

**+**  Mende erdi errugbia hauspotzen  
Joanmari Larrarteri elkarrizketa, 'Egunkaria'-z



## EUSKAL TXIRRINDULARI TALDE NAGUSIETAN

Euskadi Fundazioak hiru talde izango ditu errepidean, eta Debagoienak sei txirrindulari proiektuan, hastear den denboraldian / 38

Mikel Aristi, Olatz Gabilondo, Garazi Estevez, Xubane Garai, Danel Casais eta Julen Irizar, Euskalteleko eta Laboral Kutxako txirrindulari debagoiendarrak, denboraldiaren aurkezpenean. XABIER URZELAI

**7.750.000 euro** banatuko ditu Eusko Jaurlaritzak Debagoieneko enpresen artean / 4

**SINADURAK**

 JON ETXEBERRIA / 8

 ANDER GARAY / 11

 MARIA AGIRRE / 48



Skotnytska eta Sirosh, bandera ukrainarrekin. UXUE IGARZA

**"Norbaitek babeslekitik burua ateratzen badu tiro egingo diotela esan dute Ukrainan dauden soldadu errusiarrek"** / 6

VICTORIA SKOTNYTSKA ETA TANIA SIROSH  
DEBAGOIENEAN BIZI DIREN UKRAINARRAK



**MARTXOAREN 8A**  
ORRIALDE BEREZIAK / 21



Debagoieneko Mugimendu Feministako kideak, joan den astelehenean Elorregin egindako agerraldian. TXOMIN MADINA

## Antolaketa feministaren "garrera" batzeko deia

Mugimendu feministak aldarrikapenez beteko ditu plazak Martxoaren 8an. Aurtengo leloa 'Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista gure garra!' izango da. Emakundek nesken eta emakumeen itxura fisikoaren gaineko presioan jarri du fokua

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Datorren martitzenean izango da aurtengo Emakumeen Nazioarteko Eguna. Debagoieneko Mugimendu Feministak Elorregin eman ditu aditzera, asteon, hitzorduaren harira prestatutako egitarauak eta aldarrikapenak. Urtean zehar zein Martxoaren 8an kalera irteteko hainbat arrazoi nabarmendu dituzte talde feministetako kideek. "Urtero bezala, aurten ere emakumeoi egunerokoan eraso egiten gaituen gizarte matxista, kapitalista, kolonialista eta arrazista honi aurre egitea dagokigu", adierazi du Ane Eginok.

Olaia Muruak, berriz, kalera aterako dituzten sei aldarri ze-

rrendatu ditu: "Osasun eta hezkuntza sistema duin eta publikoak indartzea, pentsiodunek pentsio publiko duinak jasotzea, zaintzarekin lotutako lanak duintzea eta dagozkien ordaina ematea, pertsona migratuak paperik ez dutelako ez kriminalizatzea, inor etxebizitzarik gabe ez lagatzea eta geure buruak autodefentsa feministaren bitartez defendatzea ozen aldarrikatuko dugu".

**Oihua herriz herri entzungo da** Martxoaren 8an manifestazioak egingo dituzte bailarako herri gehienetan: Aretxabaletan 18:00etan batuko dira; Aramaion, 18:30ean; Oñatin, Antzuolan eta

Eskoriatzan, 19:00etan; eta Elgetan, Arrasaten eta Bergaran, 19:30ean. Bestetik, Itaiak ere Bergaran egingo du bailara mailako deialdia, 19:00etan San Martin plazan (Ikus 32. orria).

Bestalde, datozen egun eta asteetan feminismoarekin lotutako ekintza ugaritan parte hartzeko aukera egongo da Debagoieneko herri guztietan: Arrasaten Emakume Txokoak bihurtik hilaren 26rarte iraungo duen egitarau zabala antolatu du herriko eragileekin batera (Ikus 10. orria); Aramaion bi tailer eta zinema-zikloa egingo dituzte ikuspegi feministatik (Ikus 15. orria); Aretxabaletako Arkupe aretoak pintura erakus-

keta, antzerkia eta dokumentala jasoko ditu martxoan zehar (Ikus 16. orria); Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak Sahararren jaira batuko dira bihar (Ikus 18. orria); Bergaran askotariko ekimenak jorratuko dituzte gaurtik aurrera, herriko eragileek, Udalak eta Itaiak egitarauak kaleratu baituzte (Ikus 32. orria); Oñatin ere ez dira atzean gelditu, Udalak, talde feministek eta erretiratuek ondo lotuta baitaude zer egin asteburutik aurrera (Ikus 34. orria).

**Politikariei aitortza**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, *Haziak* dokumentala aurkeztuko du astelehenean Donostiako Antzoki Zaharrean. Ikus-entzunezkoak 18 emakume politikariren testigantzak jasotzen ditu; tartean, Esther Larrañaga arrasatearrarenak. Ekitaldian aitortza jasoko dute emakume horiek, "azken lau hamarkadetan euskal gizartearen eta berdintasunaren alde politikan bidea irekitzeagatik".

**Emakunderen kanpaina**

Emakundek ere jakinarazi ditu martxoaren 8aren harira egingo duten kanpainaren nondik norakoak. Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketarako sailburuak eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak azaldutakoaren arabera, neskek, eta emakumeek, oro har, euren gorputzen eta itxura fisikoaren gainean jasaten duten gehiegizko presioa izango da aurtengo kanpainaren ardatza. "Emakumeak gorputz bat bezala erakusteak gizaki bezala ikustetik urruntzen gaitu, emakumeen kontrako indarkeria areagotuz", azaldu dute.

## Greba egin dute berriz Osakidetza langileek

Joan den ostiralean bezala, lanuzteak egin zituzten astelehenean, pentsiodunen laguntzaz

**H.L. DEBAGOIENA**

"Duela 13 urtetik berri ez den akordioa berritzea" eskatu dute EAEko osasun zentroetan, Debagoieneko Ospitalean barne, SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitutako greba orokorrean. 2023ko aurrekontua handitzea eta %25 lehen arretara bideratzea; "lan-zama arintzeko" lanpostuak sortzea; 24.600 langileri eragiten dien behin-behinekotasuna amaitzea; erretiroak, bakanteak, bajak eta bestelako absentiak osorik eta lehen egunetik betetzea; eta "kontziliazioan laguntzeko neurriak" hartzea daude osasun langileen eskaeren artean. Sindikatuek borrokan jarraituko dutela adierazi dute: "Kudeatzaileek erakusten duten borondatearen arabera, ikusiko dugu greba hauek azkenak izango diren edo laster gehiago egingo ditugun". Berririo mahai sektorialean parte hartuko ez dutela ere iragarri dute: "Izan ere, onartezina da bertan informazioa bakarrik jasotzea, negoziaketa sustatu beharrean".

Bailarako pentsiodun ugarik eskaini diete babesa, Debagoieneko Ospitalearen aurrean osasun publikoaren aldeko pankartak erakutsiz.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

ARATUSTEAK  
2022


MARTXOAREN 5EAN, ZAPATUAN,  
14:30 ETA 22:00  
MARTXOAREN 6AN, DOMEKAN,  
12:00/15:00 ETA 22:30

goiena  
Zu hemen zaude.



## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	24	46	4.548	%39,80	<b>610</b>
Arrasate	20	30	8.549	%39,10	<b>226</b>
Bergara	19	25	5.421	%37,17	<b>292</b>
Aramaio	4	2	546	%37,50	<b>405</b>
Antzuola	3	3	828	%39,74	<b>275</b>
Eskoriatza	3	9	1.544	%37,38	<b>292</b>
Aretxabaleta	1	6	2.598	%36,55	<b>98</b>
Gatzaga	1	0	73	%34,60	<b>427</b>
Elgeta	0	3	303	%26,56	<b>265</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>75</b>	<b>124</b>	<b>24.409</b>	<b>%38,13</b>	<b>310</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Ehun kasu baino gutxiago izan dira astean erregistratutakoak

Aurreko astean baino 49 positibo gutxiago atzeman dira, eta Debagoieneko Ospitalean gaixo bakararra dago

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA  
Seigarren olatuak goia jo zue-  
nean, 100 kasutik gora atzema-  
ten ziren bailaran egun bakarrea-  
n –baita 600etik gora ere–; orain,  
baina, oso bestelakoa da egoera,  
eta aste osoko datuak batuta ere

positiboak ez dira 100era iritsi.  
Guztira, otsailaren 24tik mar-  
txoaren 2ra arte, 75 positibo  
baieztatu ditu Osakidetzak De-  
bagoienean; gehienak, Oñatin,  
Arrasaten eta Bergaran. Intzi-  
dentzia-tasari dagokionez ere,

aurreko astetik hona, 200 puntu  
baino gehiago egin ditu behera  
eskualdean: 310,90ekoa da. Bes-  
tetik, Debagoieneko Ospitaleko  
zuzendaritzak adierazi du per-  
sona bakararra dagoela korona-  
birusaren eraginez ingresatuta.

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

**TicketBAI**  
GIPUZKOAN

[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)

Logoak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Diputación Foral de Gipuzkoa, ETORKIZUNA ORAIN Da Futuro



Garagartzako lantokiaren artxiboko irudi bat. GOIENA

# Etxetresnenak izandako lurretan, Dikar eta Ekide

Mondragonen Ekimen Berri Kudeaketa enpresak –hark erosi zituen 2011n– gauzatu du Fagorrenak izandako Garagartzako eta San Andresko nabeen salmenta. Bi kasuetan, 2023an hasiko dira lanean egoitza berrietan; enplegua ere sortuko da

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Aurreko astean –egunean– sinatu zuten aurrerantzean Dikar kooperatibarena –Mondragonekoa– izango den Arrasateko Garagartzako auzoko industria-nabearen salerosketa. 72.000 metro koadroko azalera duen azpiegitura da, "kooperatibaren proiektuak hazten eta ingurunean enplegua sortzen jarrai dezan" erositakoa, adierazi dutenez: "Horrela, 2019ko azarotik hutsik dauden instalazio horien erabilera industrialia suspertuko da, eskualdeko enpleguaren eta ekoizpen jardueraren ikuspegitik horrek dakarrenarekin". Asmoa da instalazioak egokitzea eta datorren urtean zehar Garagartzara eramatea Dikarrekin bere jardueraren zatirik handiena.

1969an Eibarren sortua, Bergaran egon da Dikar 1980tik, eta ehizaren, kirol tiraketaren eta aire zabaleko kirolaren sektoreetara bideratuta dago. Taldeak bi filial ditu AEBetan, eta beste

bat Portugalen. Bulego zentralen eta filialen artean 300 pertsonak baino gehiagok dihardute lanean, euren marken fabrikazioan, banaketan eta merkaturatzean. 2021ean, Dikarren salmenta bolumena 90 milioi eurotik gorakoa izan zen; %97, nazioarteko salmentak.

## Ekide Group

Ekide Groupek erosi du, bestalde, Fagor Etxetresna Elektriakoena izandako beste guneko –San Andreskoa– industria-nabearen zati bat. Hazkundea helburu duen hedatze prozesuan murgilduta dago Ekide, eta hori dela-eta erosi du 58.000 metro koadroko guneko industrialia. "Inbertsio garrantzitsua da, eta

**72.000 ETA 58.000 METRO KOADROKO INDUSTRIALDEAK EROSI DITUZTE, HURRENEZ HURREN**

aukera emango digu, batetik, egungo ahalmen industrialia nabarmen handitzeko, eta hurrengo lau urteotan 80 lanpostu berri sortzeko, bestetik", adierazi dute enpresako iturriek. Ekideren instalazio berrien egokitze lanak urte honetan egingo dituzte, eta 2023an hasiko dira planta berrian lanean, era progresiboan.

Ekide Group enpresa arrasatearrak 30 urtetik gorako ibilbidea du, eta hiru lan lerro nagusi: ingeniariaritzaren eta industria fabrikazioaren; kontrol tresnak; eta ikusmen artifiziala eta robotika. Bizkaian, Mexikon eta Txinan ere baditu lantokiak, eta AEBetan ere badu ordezkariaritzaren komertziala. Bezeroen artean dituzten, automozio, elektromedizina, autobus eta *camping* sektoreetako enpresak.

Ekidek hazkunde handia izan du azken hamarkadan; 225 langile ditu, gaur egun, eta 2021ean 35 milioi euro inguru fakturatu zituen.



Bergarako Embalan3 enpresa. OIHANA ELORTZA

## 7.750.000 euro Debagoieneko enpresentzat, dirulaguntzetan

Jaurlaritzaren 'Bilakatu COVID-19' programari dagokio kopuru handiena; onuradun gehienak Bergarakoak dira

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Debagoieneko hainbat enpresa daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren *Bilakatu COVID-19* eta *Gauzatu-Industria* programetako 2021 ekitaldiko dirulaguntzen onuradunen artean. *Bilakatu COVID-19* programaren bidez, "COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-, produktu-, zerbitzu- eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio- edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei" eman dizkio laguntzak Industria sailburuordetzak.

Bestalde, *Gauzatu-Industria* programako 2021eko ekitaldiko laguntzen onuradunen zerrenda ere plazaratu du Jaurlaritzak. Programa horren bidez, teknologia oinarriko ETEak –enpresa txiki eta ertainak– edo ETE berritzaileak sortu eta garatzeko laguntzak ematen dira.

## Deialdi berria

Eusko Jaurlaritzak hilabete honetan zehar jarriko ditu martxan ETEak laguntzeko aurtengo ekitaldiko hainbat programa: Bikaintek, Bideratu eta Bilakatu, hain zuzen ere.

## Lagundutako bailarako enpresak

### Bilakatu COVID-19 programa

Natra Oñati SA	1.000.000 €
Ekide SL	1.000.000 €
Dikar S.Coop	1.000.000 €
Lazpiur SL	440.604 €
Goizper S.Coop	267.122 €
Estampaciones Sofema SL	304.500 €
Ecenarro S.Coop	67.395 €
Industrias Mujika SA	273.300 €
Ekolber SL	412.050 €
Embalan3 SL	390.870 €
Soraluce S.Coop	714.361 €
Royde S.Coop	30.733 €
Mecanizados Markiegi SL	88.465 €
Talleres Ukondartz SL	36.887 €
Altube Precision SL	54.439 €

### Gauzatu-Industria programa

Embalan3 SL	798.241 €
Gehiber SAL	192.159 €
Industrias Mugica SA	459.600 €
Bitaoñi SL	219.000 €

ERRESERBA egin Errioxan. Mahastizaintzako eta ardogintzako kultura ezaguna eta mundu osoan baloratua duen lurraldea delako. Izan ere, gure bikaintasun eta aberastasun naturala sentitu ahal izango duzu -Leza, Jubera, Cidacos eta Alhama haranetako biosferaren ERRESERBA izateagatik aitortua eta ingurune natural pribilegiatua eta leku ikusgarriak dituena-. ERRESERBA egin Errioxan, egonaldi luzeagoak egiteko, gure baliabide turistikoek, naturalez eta kultur jaialdiez gozatu ahal izateko, baita gure ostatur, jatetxez, tabernez eta abarrez. Orain, ERRESERBA egin Errioxan.

Errioxa ezagutu beharreko kontinentea da urteko edozein garaitan, eta eskaintza enoturistiko handia du. Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuko 400 upategi baino gehiago ditu, eta munduko ardo handienetako bat ekoizten duen eskualdeko mahastizaintza eta ardogintzaren historia eta kultura pasio osoz zabaltzen dute; gure gastronomia aberatsa da, eta biztanleko Michelin izar gehien dituen autonomia erkidegoa da Espainian. Gure ondare historiko eta kulturala: erakargarri nagusietako bat Donemiliaga Kukulako Yuso eta Suso monasterioak dira, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatuak. Baina baita Naiarako Santa Maria la Real Monasterioa, errege-erreginen panteoia, eta Contrebia Leucadeko aztarnategi zeltiberiarra ere, besteak beste.

Donejakue bidea hemendik pasatzen da. Errioxatik Santiagora iristeko hiru ibilbide elkartzen ditu: bide frantsesa, Ebroko Donejakue bidea eta Barrualdeko Euskal Bidea. Erromesek zereal zelaien eta ehun urtetik gorako mahastien artean egiten dituzte ibilbideak, gure tradizioak eta errioxarren abegi ona ezagutzeko aukera ere ematen diena.

Izan ere, horrelakoa da Errioxa, elkargunea eta elkar ulertzeko gunea, bideak gurutzatzeko gunea, berezko nortasuna duen lurraldea, elementu natural, kultural eta historikoen heterogeneotasun handia hartzen duena. Ezaugarri horrek izaera bereizgarri eta erakargarria ematen dio zentzumenen atsedean eta atseginerako lekua bilatzen dutenentzat, bisita bakoitzean



Gastronomiaz, ardo bikainez, upategiez eta mahastien edertasunaz gozatzeko hamaika aukera eskaintzen ditu Errioxak.



Abentura-parkeak ere asko dira Errioxan.



Donejakue bidea da beste aukera bat.

# Erreserba egin Errioxan

berraurkitzen den eskualde hau gozatzeko eta ezagutzeko. Izan ere, benetan axola duena ez da Errioxara ekartzen duzuna, baizik eta bueltan eramango duzuna. Sentipenez betetako maleta bat, Errioxak zure bidaiara esperientzia ahaztezin bihurtzeko eskaintzen dizun guztiarena.

## ENOTURISMOA

Gaur egun, enoturismoa ez da upeltegi bat bisitatzeko bakarrik, mahastizainarekin mahastiaren jatorria ezagutzeko ere bada, zaldiz paseatzea edo bizikletaz ehun urtetik gorako mahastien artean ibiltzea, mahasti-itsaso bat den

eskualde bat globo batetik ikustea, wine-bar batean dastatzeko bat egitea, barrikatik ardo bat deszifratzea, maridajeak egitea, ardoaren arkitekturan zehar bidaiatzea, denboran zehar lekualdatzea ehun urte inguruko ardotegei baten azpian, hurrengo uzta familian biltzea...

## KULTURA

Errioxako historiak monasterioetan eta kondairetan ditu bere sustraiak, eta hainbat herririk eta erresumak gutziziatutako mugako lurra izan zela erakusten dute. Donemiliaga Kukulako Suso eta Yusoko mo-

nasterioak; Naiarako Santa Maria la Real monasterioa, Naiara-Iruñea erresumako erregeen eta infanteen sorleku eta panteoia; eta Valvanerako monasterioa, non eskualdeko zaindariaren irudia babesten den mendi inguru batean; horietako batzuek beren erlijio-komunitateei eutsi diete, eta turismo kultural, erlijioso eta artistikoko guneak dira.

Errioxatik Santiagora iristeko hiru ibilbide igaro eta elkartzen dira; ezaugarri berezia da hori. Donejakue bideak 60 kilometroko ibilbidea eskaintzen du Errioxan zehar, hiru etapatan. Done-

jakue bidea egiteko modu asko daude: oinez, bizikletaz, zaldiz.

## GASTRONOMIA

Biztanle bakoitzeko Michelin izar gehien dituen Espainiako eskualdeak sei izar ditu bost jatetxetan, eta bi Bid Gourmand. Baina zerrendak alde batera utzita, Errioxako gastronomia taparen kulturaren bidez ere bizi daiteke pintxoak eskaintzen dituzten tabernetan eta gastrotabernetan, eta tokiko sukaldaritzagatik ospetsuak diren janari-etxeetan: lurretik platerera delakoa.

Lehengai oparodun eskualdea. Garaian garaiko laboreak, non orburuak, kardua, azalorea edo borraja bezalako barazki eta barazkien barietateak ahosabai bikainenak gozatzeko dituen. Mendilerroen eta artzainen lurraldea. Errioxan ere haragi onak daude, mendi inguruetako ardi, behi eta ahuntz aziendari esker. Horri esker, askotarikoak dastatzeko aukera dago: txuletilla erreak mahatsondo-xirmendu lehorretan, arkume gisatua, Demanda eta Cebollerako larreetako antxume erre famatua, baina baita Naiarako piperrak, alegria errioxarrak, txanpiñoiak, patatak txorizoarekin, potxa zuriak eta kaparroiak.

## TURISMO AKTIBOA

Turismo aktiboa, landa-turismoa edo natura-turismoa egiteko lurraldea, eta familian ere zeharkatzeko. Ingurune babestuekin, parke naturalekin, biosferaren erreserbekin eta Starlight helmuga turistikoekin, izarrak behatzeko zeruen kalitateagatik; turismo aktiboa eta aire zabaleko jarduerak, hala nola mototurismoa, abentura-parkeak, globo-bidaiak, segwayan ibilbideak, quadak, zaldi-ibilaldiak, jarduera nautikoak; abentura-turismoa, golfa...

Bestalde, munduan ez dago dinosauroen arrastoen kontzentrazio hain handirik: gutxienez, 170 aztarnategi, 11.000 dinosauro-aztarna baino gehiagorekin 22 udalerritan banatuta.

Horregatik guztiagatik eta askoz gehiagotatik, **#ReservaLaRioja**



INFORMAZIO  
GHEIAGO

# Debagoienetik, Ukrainara begira

Debagoienak eta Ukrainak badute nolabaiteko harremana; hemen bizi dira jatorri ukrainarreko hainbat lagun, eta harrera familietara ere etortzen dira hango haurrak. Egun zailak izaten ari dira guztientzat, eta laguntza emateko bideak irekitzen hasi dira

## Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Debagoienak lotura estua izan du gatazka armatuetatik eta gerretatik ihes egin duten errefuxiatuekin; Oñatiko Larraña etxea da horren adibide garbia. Testuinguru berri honetan ere, Zehar elkarte Ukrainako errefuxiatuak hartzeko prestatzen ari da eskualdeko harrera etxea.

Larraña etxekoa, baina, ez da bailararen eta Ukrainaren arteko zubi bakarra. Debagoieneko harrera familia askotara etorri dira haur ukrainarrak, eta, horrez gain, eskualdean jatorri ukrainarreko hainbat lagun ere bizi dira. Hala, momentu honetan, bailaratik begirada ugari daude Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrara zuzenduta.

Martitzenean, Arrasateko plazan elkarretaratzea egin zen, hain zuzen ere, Ukrainari elkartasuna adierazteko. Bertan eza gutu zuten elkar Victoria Skotnytska-k eta Tania Sirosh-ek, Arrasaten bizi diren bi emakume ukrainarrek.

## Familia han eta eurak hemen

Victoria Skotnytska duela bi hamarkada etorri zen Arrasatera, baina familiaren zati bat Ukrainan utzi zuen. Kontatu duenez, "ezin du sinetsi" bere herrian gertatzen ari dena, eta senitartekoengatik "oso ardurata" dago: "Batzuk han geratuko dira, eta nire ama, arreba eta ilobak -jende gehiagorekin batera- hona datoz. Poloniatik ari dira pixkanaka etortzen".

Tania Sirosh familia guztia du Ukrainan, eta beraiekin hitz egitea lortu du azken egunetan: "Harremanetan egoteak lo apur egiteko balio izan dit". Bielorrusiako mugaren eta Ukrainako hiriburuaren artean dagoen

herri batekoa da, eta azaldu du "katramila guztia" bertatik igarotzen ari dela. "Dena suntsitzen ari dira. Nire ama ospitaleko aterpe batean dago babestuta, erizaina baita. Nire aita, berriz, frontean dago borrokan; erreserbista militarra da". Egoera "gordina" eta "bortitza" dela dio Sirosh-ek: "Norbaitek babeslekutik burua ateratzen badu tiro egingo diotela esan dute soldadu errusiarrek. Herriko jendea batu egin da, eta ahal dutena egiten dute; duela bi aste edozein txorakeriarengatik eztabaidatzen zutenak ere batuta daude orain, euren etxeak babesten".

Bestetik, Alexandr Karpukhin Debagoienean bizi den errusiarrentzat ere ez dira egun errazak izaten ari: "Errusiako erregimen anker honen aurka nago, handinahi inperialen aurka, atzerriko lurraldeak hartzearen aurka. Askatasunaren eta demokraziaren alde nago; munduko bakearen, giza eskubideen eta soldata eta bizitza duinen alde. Lotsa sentitzen dut".

Skotnytskak eskaera bat egin nahi izan du: "Estatuari, Europari, eskatzen diot ateak ez ix-

teko. Euskal familiei eskatzen diet ateak ireki ditzatela haurrentzat, haurdun daudenez, errefuxiatuentzat...". Sirosh-ek, bukatzeko, gehitu du "beldurtuta" dagoela, baina, era berean, "harro" sentitzen dela: "Ukraina mundu guztiaren bularra da momentu honetan, eta balak jasotzen ari da. Espero dut hau guztia laster bukatzea, eta denok batera gure askatasuna ospatzea".

## Harrera familiak ere, arduratuta

Aurrez azaldu bezala, Debagoieneko harrera familietara Ukrainako haurrak etorri izan dira, Chernobil elkartearen laguntzarekin. Egun oso zailak ari dira izaten familia horientzat ere; Bergarako Josetxo Lizarralde eta Amaiur Saizek euren egoera kontatu dute. "Gatazkaren berri izan genuenean, berehala jarri ginen Ukrainako familiarekin harremanetan. Haurren amak oso garbi zuen zein zen bere nahia: umeak Poloniako mugara eramatea, eta guk bertan jaso eta hona ekartzea", diote. Saizen arabera, baina, ahalegina egin arren, ez dute lortu mugara iristea; "sotoan ezkatututa" geratu



Skotnytska eta Sirosh, elkarretaratzearen ostean, Ukrainako banderarekin. U. I.

behar izan dute. Komunikazioa "geroz eta zailagoa" dela azaldu du familia bergararrak, eta "urduritasun eta estutasun" handiz bizi dutela egoera. "Bi gobernuek akordioa lortzea izango litzateke denontzako onena, baina ezinezkoa dela ikusten dugu. Hala, beste elkarte batzuekin batera, korridore humanitario bat zabaltzen saiatzen ari gara, umeak handik ateratzeko", zehatu du Lizarralde.

## Laguntzeko hamaika bide

Familiek osatzen duten Chernobil elkarteak kontu korrante bat ireki du, nahi duten herritarrek dohaintza egiteko: ES36 2095 5029 12 1062229843.

Bestetik, Ukraina-Euskadi elkarteak material bilketa jarri du abian: hotzetik babesteko arropak eta gailuak, kartoizko kaxak, janaria, fardelak, higie-ne produktuak edota osasun produktuak jasoko dira. Arrasaten bertan egongo dira horretarako zenbait puntu: asteartean, 10:00etatik 13:00etara, mankomunitate parean, eta asteazke-

nean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era, azoka-gunean.

Horrez gain, Eroskik ere kanpaina bat abiatu du: bezeroek aukera izango dute borondatea emateko ordainlekutik pasatzean, eta enpresak berak ere "ekarpena" egingo du.

## Larraña etxea prestatzen

Oñatiko harrera etxea zabaldu zenetik (2008) hainbat jatorritako 724 lagun egon dira bertan, eta, Zehar elkarte komunkazio arduradun Naiara Gutierrezek aurreratu duenez, ukrainar errefuxiatuak jasotzeko prestatzen ari dira orain. "Ez dakigu zenbat etorriko diren Oñatira, oraindik Europak ere ez baitu ezer zehaztu". Lanean ari dira, etxean leku gehiago egiteko.

**HAURRAK UKRAINATIK IRTETEKO KORRIDORE HUMANITARIOA IREKI NAHI DUTE ESTATUKO ZENBAIT ELKARTEK**



Saiz eta Lizarralderen familia, Gabonetan, Ukrainako Makar mutikoarekin. A.S.

**Martxoaren 8a****ITZIAR USANDIZAGA**

DUINTASUNA ELKARTEAREN IZENEAN DEBAGOIENA

Berriro ere, urtero bezala, egunero bezala, emakume guztien eskubideak aldarrikatzera gatoz.

Erretiratzeko adina gaudituz dugun emakume asko gaztaroan elkar hartuta borrokatu ginen ukatzen ari zitzaizkigun eskubideak eskuratzeko, eta soldata eta lan-baldintza hobekiak lortzeko langileen borrokan ere inplikatu ginen. Azken batean, gure eskubideak eta pertsona guztientzako gizarte justuago eta berdina lortzeko borrokatzen eta mobilizatzen ginen.

Eta orain, zahartzarora iritsi garenean, gure eskubideen alde borrokatzeko beharra ez da desagertu. Emakume askok miseriazko pentsioak ditugu, pentsioetan genero arrakala pairatzen dugu, indarkeria ugari jasaten dugu eta abar.

Pentsio publiko eta bizi-baldintza duinak eskatzen ditugu, duintasunez bizi ahal izateko. Zerbitzu publiko onak behar ditugu, etxez etxeko arreta zerbitzuetakoak eta egoitzetakoak, errespetuz zainduko gaituztenak.

Lagunak, antolatu, elkarrekin lan egin eta mobilizatu beharra daukagu. Eskatzen duguna

ez da oparia, baizik eta eskubideak. Inoiz ez da berandu batzarretan parte hartzeko, gure iritzia emateko, animatu nahi zaituztet herritarren mugimenduetan parte hartzera. Guk adineko pertsona guztientzat bizitza duinaren alde borrokatzea ahalduz prozesuaren parte bezala ikusten dugulako.

Amaitzeko: munduko gerra ugarietan pairatzen ari diren emakume, neska eta herritar guztiei ere elkartasuna adierazi nahi diegu; gerrarik ez!

**Filosofatzen****MARIJO ETXEGOIEN ARZUAGA**

OÑATIKO EAJ-KO UDAL TALDEAREN IZENEAN OÑATI

Ohikoa izaten da urte berria hasi, eta nor bere buruari urte horretarako erronkak eta helburuak jartzea. Esango nuke askotarikoak izan ohi direla; ezagunena, seguruenez, ariketa fisikoa egiten hasteko xedea da.

Filosofiaren historiara gerturatzea izan da aurrean nire buruari jarritako erronketako bat, historian zehar filosofoek eta pentsalariak agertu dituzten ideia eta teoretara hurbiltzea. Bereziki, emakume filosofoengana gerturatzea. Izan ere, eremu horretan ere emakume filosofoak egon dira, baina *ezkutatuta* egon dira; bai

haiek, bai haien mezu, ezagutza eta jakituria, bai haiek gizarteari egindako ekarpena.

Horrela, besteak beste, nabarmentzekoak dira: Alejandriako Hipatia (370-415); hark adierazi zuen: "Modu okerrean pentsatzea ez pentsatzea baino hobea da". Marie Le Jars de Gournay (1565-1645); bere hitzak dira: "Hertsiki esanda, gizakia ez da ez maskulinoa ez femeninoa (...) Funtsezko ezaugarri bakarra adimena izatean datza". Olympe de Gouges (1748-1793); harena da esaldi hau: "Emakumea, esnatu, aitortu zure eskubideak".

Mary Wollstonecraft (1759-1797) ere ezin ahaztu: "Ez dut nahi emakumeek gizonen gaineko boterea izatea, beren buruaren gainekoa baizik". Eta, noski, Simone de Beauvoir (1908-1986): "Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da".

Egunerokotasunean, maila apalagoan, etxeko giroan eta lagunartean ere egon dira *filosofa* handiak; hain zuzen ere, amak, amamak, izebak, amaginarrebak. Nork ez ditu, bada, gogoratzen haien esakerak eta jokabideak, bizi-espereztian

oinarritutakoak eta jakinduriak jantzitakoak? Geurean, askotan, amak mezu hau helarazi digu: "Ez bete bizitza urteekin, bete urteak bizitzarekin!". 91 urte bete zituen abuztuan; badaki zertaz ari den.

Zoritxarrez, urteek aurrera egin badute ere, emakume filosofoen mezuak behar-beharrezkoak dira oraindik ere. Beraz, emakume, iratzarri, pentsatu, aldarrikatu, balioan jarri eta defendatu zeure eskubideak! Izan zeure bizitzaren jabe! Eta, ez ahaztu, bete zeure urteak bizitzarekin!

## Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

## Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrezkoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

**HAUXE BAI JENEROA!****GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

# Guztiok Ukrainarekin!

Europar Batasunaren sorreraren helburu nagusietako bat mendeetan etsai amorratuak izan ziren herrialdeen artean gerra saihestea izan zen. Ondorioz, Bigarren Mundu Gerraren ostetik bake denboraldi luzea bizi izan dugu Europar Batasuneko estatuen artean. Europar Batasunetik oso gertu gerrak izan badira ere eta Batasuneko estatuak kanpoko herrialdeetan gerra desberdinetan parte hartzen jarraitu badute ere, gerrak iraganeko zerbait moduan bizi ditugu. Milaka urtetan gatazkak konpontzeko erabili ondoren, gure arteko desberdintasunei irtenbidea emateko arrotz eta zaharkitu bilakatu den tresna. Ikuspegi etikotik guztiz onartezinak eta ikuspegi praktikotik gaindituak, diplomazia edo negoziatioa bezalako tresnei esker.

Eta horretan geunden, Errusiak Ukraina inbaditzea erabaki zuenean, gure pentsamoldeari astindu ona emanez... Gerra gure etxetara sartu da bere gordintasun guztiarekin komunikabideen bidez. Hirugarren Mundu Gerra baten beldur, inor ez da ausartzen Ukrainari zuzenean laguntzen.

## HERRIALDEEN ARTEKO ELKARLANA DA GERRA SAIHESTEN SAIAZTEKO MODU BAKARRENETAKOA

Ukrainarrak abandonatuak gelditu dira eta etsipen honetan, Europar Batasunaren sartzeko eskaera egin dute, Batasunaren babesa bilatuz. Baina Errusia ez dago Ukraina bere atzaparretatik alde egiten uzteko prest.

Inork ez daki gerra noiz eta nola amaituko den, baina

zalantza gutxi daude Ukrainak, modu baten edo beste baten, Errusiaren menpe bukatuko duela eta inguruko beste edozein herrialdek mezu garbia jasoko duela etorkizunerako.

Baita guk ere: gerrak hor egoten jarraitzen du, ez da iraganeko gauza bat, eta Europar Batasunaren esperientziak erakusten digun bezala, herrialdeen arteko elkarlana da saihesten saiatzeko modu bakarrenetakoa. Baita gerraren ondorioak arintzeko eta lehenbailehen amaitzen laguntzeko ere, elkarlanaren bidez ahalik eta laguntza gehien bidaliz Ukrainara eta Errusia ekonomikoki itotzen jarraitzeko. Guztiok Ukrainarekin!

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zahartu nahi ez

#### ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ez dugu zehaztu, adostu, noiz zaren zahar, ze urtemugatik aurrera egiten duen norbaitek bizitzaren azken aldaketa. Era berean, ez dakigu noiztik eta noiz arte den bat gazte edo heldu. Dakiguna da gehiengo zabalak beti gazte izan nahi duela, ez heldu, gazte heriotzaraino.

Mende erdi joan da gaztetasuna bizitzaren erpinean jarri zenetik.

Orduetik dator zahartzarora beti txarra dela dioen ustea eta gaztetasuna, berriz, beti ona.

Horregatik zahar batek espero ez den zerbait egin edo pentsatzen duenean esaten dugu halakoa gazte dela barrutik, izpiritu gaztea duela, adina bihotzean dagoela. Gazte=on; zahar=txar. Nabardurarik gabe.

Horregatik saiatzen gara, irrikaz, gaztetasuna antzeztan, gure nortasun agiriak dioena ezkututzen, kosta ahala kosta, hunkigarritasuneraino edo irrigarrikeriaraino.

Esaiozu edonori jaiotze datak dioena baino itxura gazteagoa duela eta sinetsi egingo dizu, edozer itxura duela ere.

Sinetsi eta ingurukoei kontatuko die, gaztetasuna antzeztan egindako ahaleginak onuragarri izan direlakoan.

Esaten duzu, edozein lekuan, zu zaharra zarela eta ez dizula horrek lotsarik ematen, ez duzula ezkutatu nahi eta esaldia bukatu baino lehen esango dizute zaharrak trapeak direla edo trasteak eta hori dioena gaztea bada, gurasokeria pitin batez osatuko du esaldia eta zahar izan nahi ez duen zaharrak esaten badu, haserre kutsu bat igarriko diozu esaldiari.

Zahartzaroak ez omen dakarrelako inolako onurarik.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailetak arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Garai aldaketaren aurrean asmatzen jakin behar dugu"

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE Euzko Alderdi Jeltzaleak *Entzunez eraiki* ekimena jarri du martxan. Entzuketara aktiborako, elkarrizketarako eta lankidetzarako prozesu bat da eta gizarte-politikak, klima-aldaketa, sustapen ekonomikoa, gobernantza eta euskara aztergai hartuta martxan da udara arte iraungo duen egitasmoa. Modu honetan, alderdi jeltzaleak bere proiektu politikoa herritarrekin partekatze eta etorkizuna modu kolektiboan eraikitzeko urratsak egin nahi ditu. Bide horretan, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea parte hartzen ari da lan-saioetan, eta ekonomiako blokeetan jardungo duela adierazi du. **Entzunez eraiki egitasmoaren helburu nagusia zein da?** Gure alderdiak beti nahi izan dio gizarteari entzun, eta, urteen poderioz, horrela joan izan dira politikak egiten, eta orain, prozesu honekin, entzute aktiboa egin nahi da,



Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea, Iturriotz kalean. IMANOL BELOKI

eta horretarako saio dinamikoz batzuk antolatu dira. Saio irekiak dira, eta, hain zuzen ere, formatzea, gure arteko elkarrizketak sustatzea eta herritarrei entzutea da asmo nagusia.

**Lan-saioetatik zer atera nahi da?** Dinamika hauetan etorkizuneko ikuspuntuak ematen dira. Gure alderdiak ikusten du Euskal Herriak erronka nagusi batzuk izango dituela mahai gainean.

Zeintzuk diren identifikatu nahi dira, eta, erronka horiei erantzun bat bilatze aldera, erantzun horretan asmatu nahi da. Formakuntza hauetan eskarmentua duten pertsonak hitzaldiak ematen dituzte eta entzuten eta ikusten duguna ondoren talde txikietan lantzen dugu. Profesionalen iritzia jasotzea garrantzitsua da, eta hori egiten da, lehenbizi, baina, aldi berean, herritarrek nola ikusten duten etorkizuna eta zer duten esateko jakitea ere inportantea da.

**Gipuzkoako bigarren saioa Arrasaten egin zen, otsailaren 26an. Zer izan zenuten hizpide?**

Goiz osoa pasatu genuen Etxaluzen, adinekoen egoitzan, eta taldeko lana interesgarria izan zen. Bertan parte hartu genuenoi eskatu zitzaigun Euskal Herriko eta, batez ere, Gipuzkoako ehun-industrialaren eta ekonomikoaren ahultasunak eta etorkizuneko erronkak identifikatzea. Ikusten da kezka bat dagoela; gure gizarte-ongizate sistema oinarrituta dugu aurreko belaunaldiak egindako lan batean, mundua aldatu egin da, eta gaur egun, sistema hori kolokan jarri dezaketen kanpoko elementu batzuk ditugu. Horiek identifikatzea

izan zen erronka, eta saio ederra atera zela uste dut. **Azpimarratzeko ideia nagusirik?** Globalizazioak, eraldaketa teknologiko handiek, lotura sozialen ahultzeak, krisi energetikoak eta biztanleriaren zahartzeak dakartzaten erronka handiak azpimarratu genituen. Kontuan izan behar dugu Gipuzkoak duen tamaina, eta hori ahultasun bat da etorkizunera begira. Aurrera egin nahi badugu, eraldaketa bat sufritu beharko dugu; bide egokia asmatzen sekulako erronka izango dugu. Paradigma aldaketa nagusi bat sufritzen ari gara; batzuek esaten dute aldaketaz betetako garai batean gaudela eta beste batzuek diote garai aldaketa batean gaudela. Nik uste dut garai aldaketa batean gaudela, eta hori aurre egiteko beharrezkoa izango da asmatzea, eta erabaki indartsuak hartu beharko dira.

**Lan-saio hauetatik aterako diren ondorioekin zer?**

Prozesu honek udara arte iraungo du, eta ondorioak atera ondoren dekalogo batzuk osatuko dira, eta horietatik ateratako politikak izango dira EAJk mahai gainean jarriko dituenak etorkizunari aurre egiteko.

## ITURRI ONETIK

### 'Urak aske' dokumentala Arrasaten ikusgai

Bego Zubia Gallastegi kazetari arrasatearrak idatzi eta zuzendu duen *Urak aske* dokumentala aurkeztuko dute datorren egunean Donostian –Elhuyarrek eta Pixelek ekoiztuta–. Ostean, Gasteizen ikusi ahalko da, martxoaren 16an, eta 30ean Arrasatera helduko da, Kulturatera –10:00etan–. Bi urtegi handi husteko eta haien presak kentzeko egindako urratsak azaltzen ditu: Artikutza (Euskal Herria) eta Vezins (Normandia). Mikel Laskurain bergarar aktoreak hartu du parte.

## ALBISTE IZAN ZEN

2005-03-02

### Izotz-kandela ikusgarriak negu gorrian

Elur denboraleak joan eta etorri zebiltzan 2005eko neguan: euria, elurra, izotza eta hotza. Eta martxoaren 2an –eguztana, aurten bezala–, 8,6 gradu zero azpitik markatu zuen termometroak Arrasaten; eta Bergaran eta Oñatin, 8 gradu zero azpitik. Ondorioz, izotz-kandela ikusgarriak agertu ziren, esaterako, Arantzazun. Eta Arrasateko Fagor Ederlanen lan barik egon ziren, argindar barik geratu zirelako hotzaren eraginez.



## HAU BE BADOGU!

### Sare sozialak ere, Martxoaren 8ra begira

Martitzeneko hitzordua dagoeneko berba da sare sozialetan:

*@martxanterak*: "Urteetan sareak josiz dihardugu eta sare horiek sendotzen jarraituko dugu. Elkarrekin soilik posible izango dugulako gizarte hau errotik eraldatzea".

*@ehbfeminista*: "Zaintzen paradisu artifizialaz erretzen! Zaintza sistema publiko eta komunitarioa orain!".

*@M8arrasate*: "Arrasateko Mugimendu Feministako kideok ere bagabiltza martxoaren 8rako prestatzen. Zapaltzen gaituen sistemari sua! Gora borroka feminista".

# Parkour parkea, udarako bukatuta, apirilean hasita

Hilabete barru hasiko dituzte Obenerrekako pilotalekuan parkour parkea egiteko lanak; 217.994,41 euroko aurrekontua du Goitu Eraikuntzak SL enpresak egingo duen obrak, eta lau hilabeteen parkea prest izatea aurreikusten dute, uda ingururako

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Obenerreka kaleko frontoian eta inguruan parkea egiteko lanak apirilean hasiko ditu Goitu Eraikuntzak SL enpresak, lizitazio publikoan puntuazio onena lortu ostean. Udal Gobernuak azaldu duenez, hiru enpresak aurkeztu dituzte eskaintzak. Obraren aurrekontua 217.994,41 eurokoa da, BEZa barne, eta lanek lau hilabete iraitea aurreikusten dute. Hala, Maria Ubarretxena alkateak adierazi du helburua dela urteko bigarren seihilekorako parkea bukatzea "eta gune degradatu honen errehabilitazioa amaitzea".

Udarako bukatuta egongo den parkeak jauziak egiteko eta hormak igotzeko elementuak izango ditu, zenbait zutabe eta heldulekurekin osatuta. Era berean, kautxuzko zoladura bat jarriko diote, "gerta daitezkeen erorikoak arintzeko", alkatearen esanetan. "Jarduketa osatzeko, saneamendu-azpiegiturak egokitu dira euri-urak biltzeko eta argiztapen-sistema jasangarria ezarriko da eta ura edateko iturri bat ere izango du parkeak".

## Proposamen aukeratuena

Parkour parkea egiteko ideia 2019an Haurren Kontseiluak proposatutako ekimenetako bat izan zen. Udal Gobernuak, eskaera horri erantzunez, 2021ean heldu zion proiektuari. Hala, duela urtebete inguru, prozesu parte-hartzaile bat abiatu zuen, herritarrei hiru diseinu edo proposamen aukeran emanaz, eta hirugarrena izan zen bozkatuena –irudian dagoena–.

## Inguru biziberrituko du

Victor Fuentes zinegotziak dio "gizabanakoaren mugimendu-gaitasunean oinarritutako lehen parkea" izango dela. "Gainera, Obenerreka berreskuratu eta osorik biziberrituko da, aisialdirako eta kirolerako gune gisa".



Obenerrekako frontoia eta inguru berrituko dute proiektuarekin. E.A.



Itxura hau hartuko dute Obenerrekako pilotalekuak eta inguruak. ARRASATEKO UDALA

## Auzoetako inbertsioa, laukoitza

Arrasateko Udal Gobernuak, parkour parkearen obra baliatuz, nabarmendu du auzoetako daukan apustua berretsi duela. "Azken sei urteetan ia 12 milioi euro inbertitu ditugu herriko auzoetan, erdigunean inbertitu duguna baino lau aldiz gehiago", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak. Gobernuak jakinarazi duenez, erdigunean 3.294.000 euro inbertitu dira. "Arrasatear gehienak auzoetan bizi gara, eta Udal Gobernu honen helburu nagusia herritar guztien ongizatea bermatzea da", gaineratu du alkateak. "Inbertsio plan zehatza jaso genuen gure Udal Gobernu programan, lehenik, eta, ostean, 2019-23 Herri Planean. Guztira, 36 ekimen dira, asko eta asko jada gauzatuak, eta beste hainbat bidean direnak; parkour parkea, kasu".

## Bihartik, "jendarte parekidea sustatzen jarraitzeko" egitaraua

Martxoaren 8aren harira, egitarau zabala antolatu du Emakume Txokoak, Arrasateko eragileekin elkarlanean

## E.A. ARRASATE

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Arrasateko Emakume Txokoak egitarau zabala antolatu du herriko eragileekin lankidetzan. "Martxoaren 8a egun seinalatua da, feminismoaren aldarriak kaleratzeko. Izan ere, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko parekidetasuna lortuko bada, feminismoari eta antolakuntzari esker izango da", nabarmendu dute.

Bide horretan, *bell hooks* aktibista feministari eta berak kaleaturiko *Feminismoa denon kontua da* liburuari eman nahi izan diote ikusgarritasuna aurtun: "Aktibistak zioen bezala, ausardia izan behar dugu iraganetik ikasteko eta printzipio feministak gure bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan nagusi izango diren etorkizunaren alde lan egiteko". Jendartea bere osotasunean interpelatzen du *bell hooks*-ek. "Izan ere, arrazaren, klasearen eta sexuaren aurrean norberaren posizioa aztertu eta gero, mundu guztia feminismoarekin bat egitera gonbidatzen du. Hori nahi dugu egin guk ere Martxoaren 8ko egitarauarekin", diote Emakume Txokotik.

## Egitaraua, bihartik hasita

Hau da egitaraua: martxoaren 5ean, Emakume Migratuentzako Topagunea, *Emakumeak borrokan* tailerra, 16:00etatik 19:00etara; martxoaren 7tik 18ra, Martxoaren 8ko kartelen erakusketak, Emakume Txokoan; Martxoaren 8an, Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, 19:30ean manifestazioa, Biteri Plazatik, *Zapaltzen gaituen sistemari sua! Antolakuntza feminista gure garra* lelopean; martxoaren 11n, *Umora feminista oholtzara* bakarrizketa saioa: Bea Egizabal Ollokiegi, Kaitin Allende Zaldunbide eta Belen Nevado Mendez; martxoaren 19an, *Sexualite eta gorputz esperientzia propio baterantz* tailerra; 26an, emakume artisau eta ekoizleen azoka, Seber Altuben; apirilaren 1ean, erakusketatailerak, *Tazolteotl, plazeraren eta pasioaren jainkosa*, kokapena zehazteke.

## Bihar eta etzi, bisita gidatuak

Martxoaren 5ean eta 6an, Arantza Otadui *Emakume Ahaztuak* bisitak egingo ditu, euskaraz 10:30ean eta gaztelaniaz 12:30ean, Iturriotz kaletik abiatuta.

## 434.000 litro ur kontsumitu dira 2021ean Uribarriko garbitokian

Kontsumoak beherantz jarraitzen du 2019an Udal Gobernuak hori kontrolatzeko neurriak hartu zituenetik

## E.A. ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak jakinarazi duenez, 2020an jaitziera nabarmena izan zuen Uribarriko ibilgailuen garbitokiko ur kontsumoak: %522,3 egin zuen behera 2019arekin alderatuz: 304.000 litro. 2021ean ere joera hori mantendu egin da: 434.000 litro erabili dira, guztira. 2010-2019 epealdiarekin alderatuta, ur-kontsumo aurrezpena %80,77koa izan da.

Ur kontsumoa mugatzeko neurriak hartu zituen Gobernuak 2019ko abenduan: "2018an, esa-

terako, 2.151.000 litro ur kontsumitu ziren eta 2017an 2.054.000 litro. Ur gehien kontsumitu zen urtea 2012a izan zen, 2.879.000 litroekin". 2019ko abendura arte, garbitoki hori irekia zen. Zazpi mangera zeuden ibilgailua garbitzeko eta ez zegoen ur kontsumoaren gaineko neurririk. "Honek eragiten zuen uraren kontsumo neurrigabea, batez bestekoa kontsumoa 2.000.000 litrotik gorakoa izanik urtean.

Egun, erabiltzaile bakoitzak hileko litro kopuru mugatua du ibilgailua garbitzeko: 2.500 litro.



XVII. mendean eraikitakoa da Uribe zubia. Aztertzen ari dira, Gautxori proiektuaren baitan, eraitsi ala ez. E.A.

## "Epe motzean", behintzat, ez dute zubia eraitsiko

Gautxori esparruaren urbanizazioaren baitan, aste honetan ziren Uribe zubia eraistekoak, baina Mondragon Unibertsitateak atzeratu egin du erabakia; egoeraren azterketa sakonago bat egiten ari dira eta, epe motzean, behintzat, ez dute eraitsiko

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Zeresan handia ematen ari da Gautxori esparruaren baitan aste honetan eraistekoak ziren Uribe zubia, XVII. mendekoa. Edozelan ere, Mondragon Unibertsitateak atzera egin du, azpimarratuz "epe motzean", behintzat, ez dutela eraitsiko. "Egoeraren azterketa sakonagoa egiten ari gara", adierazi dute unibertsitatetik.

Izan ere, Gautxori esparrua gauzatzeko ez dute zubia eraisteko beharrik ikusten eta horretarako arrazoi bakarra Uraren Euskal Agentziaren agindu bat zela onartu dute.

Agentzietatik, ordea, nabarmendu dute eurek ez dutela sekula zubia eraisteko agindurik eman. "Obra baimena eskatu ziguten, eta, gure esparruari dagokionez, baimentzeko modukoa zen esku-hartzea. Hau da, guk ez dugu ondare historikoaren gaineko eskumenik. Guk arlo hidraulikoa aztertzen dugu, uholde-arriskuak eta beste, eta alde horretatik ez

zeukan inongo arazorik eskaerak. Beraz, obra baimendu genuen, besterik ez", gaineratu dute.

**Udalan ere, nahasmena**

Nahasmenaren aurrean, Arrasateko EH Bildu kexu azaldu da. "Udaleko Hirigintza Sailetik esan zaigu ur agentziak agintzen zuela zubia eraistea, eta orain badirudi ezetz. Hori ikusita, Arrasateko udal zinegotzi taldeak otsailaren 28an egindako Hirigintza batzordearen bileran bi eskaera egin ditu: eraisketa gelditzea behin-behinean eta Udaleko Hirigintza Sailak argitu dezala zubi honen inguruan gertatutako guztia".

Aldi berean, Maria Ubarretxena alkateak azaldu du lur horiek

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA ASTE HONETAN ZEN URIBE ZUBIA ERAISTEKOA; ATZERA EGIN DU**

Mondragon Unibertsitatearenak direla eta Udalak ez duela zeri-kusirik. "Unibertsitatekoekin hitz egin dut eta oso haserre daude Uraren Euskal Agentziarekin, hasieran exijitu zielako zubia eraistea eta orain kontra-koia diotelako. Esan nahi dugun bakarra da asko poztuko garela zubia mantentzen baldin bada eta uraren agentziak bere iritzia aldatu badu".

**Ondarea babestearen alde**

Arrasate Zientzia Elkartea hasieratik azaldu da Uribe zubia eraistearen kontra, eta, gaiaren jarraipena egiten aritu ostean, 2021eko martxoan idatzi bat aurkeztu zuten Udalan. Idatzi horretan, besteak beste, zehazten zuten zubia babestu beharreko elementu moduan jasota dagoela Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean. Hala, Arrasateko Udalarik egotzi zion "herriko ondarearekiko sentsibilitate gutxi" edukitzea, eta eraisketa ekiditeko eskatu zion.



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

### Komunitatea eta auzolana

Bizi ditugun garai zail hauetan, gogora ekarri nahi dut komunitatearen eta auzolanaren indarra. Arrasaten badago auzo bat indar horren erakusgarri, Santa Teresa eta Doneztebe Portuko auzotarren komunitatea.

Pandemia garaian auzoko elkarteak sortu zuten, bizilagunen artean lagundu eta auzoa biziberritzeko asmoarekin. Bilera ezberdinak izan ditut auzotarrekin igogailu publikoak jartzeko prozesuan eta horien bitartez aukera izan dut elkarteak eta auzotarrak ezagutzeko, eta azken hilabeteetan eta auzolanaren bitartez berriro duten lokala bisitatzeko. Benetan pozgarria izan zen ikusi nuen emaitza. Guztiz abandonatuta zegoen lokal bat berriro dute auzotar guztien artean, kide bakoitzak ahal izan duen neurrian lagunduz.

Horregatik, nire lehenengo kolaborazio hau baliatu nahi izan dut Santa Teresa eta Doneztebe Portuko komunitate izaera eta auzolana goraiatzeko eta bizilagunak zorientzeko, egin duten lanak merezi baitu aitorten bat.

### 100 bat abelburu hartuko ditu Kurtzetxikik 2022an

Arrasateko Udalak, "herriko ingurumen naturala mantendu eta sustatzeko duen konpromisoa berretsiz", Kurtzetxiki mendiko udal titulartasuna duten lursailak larratzeko 2022ko baimenak eman berri ditu. Hala, jakinarazi duenez, ia 100 abelburu larratuko dira eremu horretan. Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariekien elkarlanean,

Udalak aztertu du zein den abelburu kopuru egokiena Kurtzetxikiko larreak "modu jasangarrian" aprobetxatzeko. Gehieneko kopurua hurrengo litza-teke: apirilaren 1etik urriaren 31ra 25-30 buru larri -behiak eta behorrak- eta azaroaren 1etik abenduaren 31ra 120 buruko artaldea.

2022an, Arrasateko zazpi abeltzainek izango dute euren ganadua Kurtzetxikin, 2021ean bezala. 94 buru izango dira: 29 behi eta behor eta 65 ardi.

### OHARRAK

#### Iñaki Azkoagak liburu bat aurkeztuko du

Martxoaren 10ean, eguena, *Baskonia. Una solución al problema del nombre del país de los baskos* liburu aurkeztuko du Kulturategi areto nagusian, 19:00etan.

#### 1970ean jaiotakoen kintada

Herritar batek 1970ean jaiotakoen kintada antolatu gura du, eta telefono bat jarri du herritarren eskura: 600 05 56 04 (Justi). Deitzen dutenen artean zehaztuko dute eguna.

#### Ludoteka ibiltaria, martxoan, San Andresen

Txatxilpurdiren ludoteka ibiltaria, otsailean Musakolan lau geldialdi egin ostean, martxoan San Andres auzora mugituko da eta Arimazubi plazan emango du zerbitzua, 11:30etik 13:30era, egun hauetan: martxoaren 5ean, 12an, 19an eta 26an.

#### Sasoibideren irteera egunean

Martxoaren 10ean, eguena, Salturrirainoko joan-etorria egingo dute, 10:00etan Biteri plazatik irtenda.

#### Lezetxikiri buruzko bisita gidatua Kulturaten

Eguenean izango da, 18:30ean. Izen-ematea, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus)-en.



Familia bat GI-3552 errepidearen bazterretik oinez, auto bat pasatzen den bitartean. H.L.

## Udalara oinez joateko bidegorria aztergai

Arrasateko EH Bilduk proposatutako 'Udalabide' egitasmoaren aurreproiektua landuko du Hirigintza Sailak, auzora joan-etorriak egiten dituzten oinezkoen segurtasuna bermatze aldera. Aldundiari dagokio errepideko lanak baimentzea

**Hasier Larrea** ARRASATE

2022ko udal aurrekontuetan onartutako egitasmoa da *Udalabide* ekimena. Momentuz, 18.000 euroko partida bideratu du Udala Gobernuak Hirigintza Sailera, bertako teknikariek Udalara doan GI-3552 errepidearen alboan bidegorria egiteko aukerak eta arriskuak azter ditzaten. Erguinen hasten den errepideak hiru kilometroko luzera dauka, eta asmoa da bide horren ondortik eta modu segregatuan joango den bidegorri bat eraikitzea.

Idea Udalan dauden zerbitzuen eta horien erabileraren gainean hausnartu ondoren otu zitzaien adierazi du Maider Morrasede, EH Bilduko udal zinegotziak: "Auto asko ibiltzen dira gora eta behera, batez ere, udan, baina oinez ere jende asko ibiltzen da errepidean. Estua dela kontuan hartuta, oinezkoendako beste bide segregatu bat egitea proposatu dugu, segurtasuna bermatzeko". Maria Ubarretxe-  
na alkateak, berriz, egitasmoa

"bideragarria" izatea espero duela adierazi du: "Herriaren dako ona bada, babestu eta aurrera eramango dugu, proiektua norena den kontuan hartu barik".

### Autoen erabilera gutxitzeko

Proiektuak badu beste helburu bat: gora igotzen diren autoen kopurua murriztea. Izan ere, bisitari ugari jasotzen dituen auzoa da Udala, eta auzotarrek denbora dezente daramate kezkatuta, gehiegizko trafikoa egoten delako. *Udalabide*-k problematika horri irtenbidea ematen lagundu diezaikeela adierazi du Morrasede: "Jendeari hara eta ona oinez joateko erraztasunak eman nahi dizkiogu. Arrasate oinezkoendako eta kirola

### AUZORA IGOTZEN DEN IBILGAILU KOPURUA GUTXITZEA ERE BADUTE JOMUGAN PROIEKTUAREKIN

egiteko aproposak izango diren zerbitzuak dituen herri bat izatea gura dugu". Gaineratu du Erguindik Udalara igotzeko mendi-bideak egon badaudela, baina "jende gehiago" ikusten dela errepidetik igotzen.

### Errepideari tokirik kendu gabe

Hasiera batean, ez dute aurrerikusten ibilgailu motordunei espaziorik kentzea, elkar gurtzatzen diren bi auto justu-justu pasatzen direla kontuan hartuta. Beraz, modu paraleloan eta autoen ibilbidetik ondo bereizita joango litzateke bidegorria. Soilik oinezkoendako izatea ere lehenetsiko dute; hau da, txirrindulariek errepidetik joan beharko lukete.

Lanak egin edo ez egin, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariek erabakiko dute, erakunde horren eskumenekoa baita GI-3552 errepidea. Datozen hilabeteetan igorriko diete aurreproiektuaren txostena Udalako alderdi politikoei.



LABeko kideak, astelehenean, San Andresko biribilgunean. H.L.

## Proiektu urbanistikoaren "ondorio sozial larriak" salatu ditu LABek

Langileriaren etxebizitza eskubide duinaren aldeko elkarretaratzea egin dute sindikatuko kideek asteon

**H.L. ARRASATE**

Arrasaten etxebizitzak eraikitzeko proiektu ugari daude martxan, hala-nola, San Andres Berri eta Uribesalgo izenekoak. Bi egitasmo horien arteko biribilgunean egin du LABek aldarrikapena. "Herrian 200 etxebizitza baino gehiago daude salgai prezio onartezinetan; ezin dugu onartu langileen soldataren %30 baino gehiago alokairuak edo hipotekak ordaintzeko bideratzea", adierazi dute sindikatuko kideek. Etxebizitza eskubidea bermatzeko, hainbat eskaera egin dituzte, tartean, "espeku-

lazioari uko egin eta alokairu sozial arautua lehenestea, jabetza publikoan dauden etxebizitza kopurua handitzea funts putreen etxeak desjabetuz, eta etxegabeteak gelditzea".

### Ekintza soziala jomugan

Bestalde, sindikatuak aurreratu du udaberriaren ekintza sozialeko komunitatea aurkeztuko duela, eta herritar orok izango dituela atea irekita: "Gure asmoa da lantokietatik herrira jauzia ematea, politika sozialek gure praktika sindikalean pisu handiagoa hartzeko".

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### "Kataideko obrak geldi, eta bidea itxita"

Bidegorria hobetzeko lanak "bi astean geldi" egon direla salatu du erabiltzaile batek: "Industrialdearen erditik doan bide alternatiboa, berriz, arriskutsua da, eskailera estuengatik".

# "Hasieran, biharamunaz antolatzen genuen..."

**IBAN DIAZ 'JEFE'** MUSAKOLAKO MARTXAKO ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA **MENDIKO BIZIKLETA** 2008an, jaietako batzordean sartu berri zen gazte talde batek proposatuta hasi ziren martxa antolatzen; 2019an, 360 lagun batu ziren irteeran

**Xabier Urtelai** ARRASATE

Musakolako jaiak antolatzeko batzar batetik irten da Iban Diaz (Arrasate, 1973) GOIENAREN deiarri erantzuteko, nahiz eta batzar hori ez zen, hain zuzen, maiatzaren 8an egingo duten mendi bizikletaren martxaren gainekoa. Hor lanak bideratuta izango dituzte, seguru, eta dagoeneko 100 lagun pasatxok eman dute izena: *kirolprobak.com*.

**Zelan darama Musakolan jaietako batek kalean bizi izatea?**

Ahal den moduan; kar-kar. Nik gurago nuen Musakolan bizi: giro lasaiagoa, lagunak bertan, aparkatzeko ere arazo gutxiago, baina...

**Dagoeneko urteak daramatzazue jaietan Musakolako martxa antolatzen...**

Bai; aurtengoa 13. edizioa izango da. Gogoan dut 2008an Musakolako jaiak antolatzen zituen batzordeko kideek erreleboa hartzeko eskatu zigutela hainbat kuadrillari. Eta halaxe sartu ginen jende gaztea. Jaiei beste bultzada bat emateko asmoz bururatu zitzaigun mendi bizikleta martxa egitearena. Lehenago jaietan bizikleta lasterke-ta moduko bat antolatzen zuten, nahiko katxondeo giroan. Eta ideia errekuuperatzea pentsatu genuen, baina eguneratuta.

**Martxa bera asko aldatuko zen urte hauetan...**

Bai, zalantza barik. Azken batean, mendi bizikleten martxak, orokorrean, asko aldatu dira, eta gurea ere egokitzen joan gara. Lehen, mendiko pistak erabiltzen genituen ibilbidea egiteko, baserri bideak erabiltzen genituen... Orain, erabiltzailea zorrotzagoa da, bidetxurak eskatzen ditu, tarteka zailtasuna daukaten jaitsierak... Lana ematen du horrek, baina jendea gustura joaten da Musakolatik. Hor, baina, ondo neurtu behar izaten dugu ibilbidearen zailtasuna, denetarik jendea erakarri nahi



Mendi bizikleta martxako antolatzailleetako bat da Iban Diaz. GOIENA

## "BIZIKLETA MARTXAREN OSTEAN LUNTXEAN EGOTEN DEN GIROA EDERRA IZATEN DA"

izaten dugulako, ez oso ondo dabilzanak bakarrik.

**Zuek ere ibiltzen zarete martxa batera eta bestera?**

Bai; azkenean, hainbat bizikleta-zale gaude taldean, eta geu ere beste leku batzuetako martxetara joaten gara. Hala, ideia berriak hartzen saiatzen gara, zer merezi duen gurera ekartzea, zer ez...

**Izen-ematea Internetez egiten duzue. Hori aurrerapausoa da...**

Handia! Pentsa, lehen, egunean bertan hartzen genituen izenak, goizeko lehen orduan. Eta ez genuen jakiten zenbat azalduko ziren irteera puntura. Ez da gauza bera 70 lagunendako martxa antolatzea, edo 300 lagunendako. Korrika batean joan behar izaten genuen luntxerako janari gehiago erostera... Orain, egunean bertan 50 lagunendako toki baina ez dugu gordetzen.

**Zenbat lagun ibiltzen zarete antolaketa lanetan?**

Martxako antolaketa hamar lagun inguru ibiliko gara, baina gero, martxako egunerako jende asko behar dugu. Guztira, 55 boluntario inguru izaten dugu ibilbidea zaintzen, anoa-postua prestatzen, martxa ondorengo luntxa antolatzen...

**Hor egoten da giro ona...**


Zalantza barik! Gurean ez ditugu azkarrenak saritzen, jaietako egitarauko hitzordu bat da, eta bilatzen duguna da martxa ostein helmugan giro polita egotea, jendea berriketan geratzea. Helburuetako bat bada auzoan bertan eguerdi parte girotzea.

**Baina lehen, jaietako asteburuan antolatzen zenuten martxa, eta orain, astebete lehenago. Zergatik?**

Jaietako asteburuan antolatzen genuenean gauean parranda egin eta hurrengo egunean sekulako biharamunarekin joaten ginelako martxa antolatzera! Kar-kar-kar... Boluntario batzuek azken orduan kale egiten zuten... Ez zuen merezi horrela ibiltzea; gainera, herritarrek parranda egitearen edo martxara etortzearen artean aukeratu behar zuten. Hobe da horrela.

## Ane Del Fresnok Arrasateko errekorra berdindu du (60 m)

Domekan, Gipuzkoako 20, 18 eta 16 urtez azpiko txapelketan Arrasateko zenbait atleta nabarmendu ziren. Ane del Fresnok, esaterako, finalerako txartela eskuratu zuen 60 metrokoan (8.16); 2010etik ezarrita zegoen Arrasateko errekorra berdindu zuen. Pertikarekin, aipatzekoa da Unai Iturbek lortutako zilarrezko domina (3,20).



Ane del Fresno. ARRASATE ATLETIKO

## Hirugarren dagoen ARTk bosgarren garaipena nahi du


Senior mailako Arrasateko gizonzkoen taldea hirugarren postuan dago sailkapenean, eta domekan, zazpigarren dagoen Valtecsaren kontra jokatu dute, el Fango zelaian, Bilbon. Arrasatekoak oso bolada onean dabilta, azkeneko lau partiduak jarraian irabazi dituzte-eta. Nesken taldeak, berriz, asteburuan atsedena izango du.



Arrasatekoak baloiairekin. GOIENA

## Usurbilen bisita izango du Mugarri Ingouk zapatuan

Euskadiko Txapelketako jaitziera fasean kontrario zuzenak diren Mugarri Ingou eta Usurbil izango dira bihar (16:00, Iturripe) zein baino zein gehiago. Joan den asteko Corazonistasen kontrako porrotak zapote txarra utzi zuen Arrasatekoengan, eta egoera horri buelta ematen saiatuko dira Patxi Garciaren mutlak.



Oñatiarren kontrako derbian. GOIENA

## Mondratekoek ez dute hirugarren porrotik nahi

Mondratek kontrario gogorra izango du bihar, zapatua, Musakolan (16:30), Erabil Gernika hirugarren postuan dago eta. Arrasatekoak sailkapenaren erdian daude, kategoriara igo berriak izateko denboraldi txukuna egiten dabilta, baina azken bi partiduak jarraian galdu dituzte, eta ez dute hirugarren porrotik nahi.



Afantxoren kontrako partiduan. GOIENA

# Edonork irentsi dezake maitasunaren amua

Axut kolektiboa 'Amua' antzezlanarekin etorriko da astelehenean Amaia antzokira; komedia, maitasuna eta munduaren askotariko ikuskerak taularatzen ditu lanak, umoretik, betiere; sarrerak 'Arrasate.eus' webgunean eskuratu daitezke, 10 eurotan

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

20 urtez espetxean egon ondoren, Anak asteburu-pasa gonbidatzen ditu bere gaztaroko bi maitale ohi. Arazoa da ez batari ez besteari ez diola esaten hiru izango direla. Hala, bi gizonak pentsatzen dute eurak izango direla bakarrak Anari konpainia egiteko, eta hor hasten dira arazoak. "Hortik beste hari bati egingo diogu tira, gizonen eta emakumeen arteko maitasunari buruzko trufak eginez", azaldu du Manex Fuchsek, kolektiboko kideak eta antzeleatiko batek.

Anaren pertsonaia Maite Larburuk antzeztzen du; Aitorrena, berriz, Ximun Fuchsek. "Bigarren hori familia bateko aita da, hiru seme-alaba baititu. Dena den, bizitza erdiko ataka horretan dago. Txolarre, berriz, Aitorren antonimoa da, bikote librean bizi baita. Nik antzeztzen dudana pertsonaia da hori", dio Fuchsek.

Axut kolektiboak sortu du antzezlan hau. "Bost lankide gara eta guztion arteko elkarla-

nean idatzi dugu hasieratik. Beraz, oso gurea den obra bat da eta horrek erraztu egin digu bakoitzak bere rola bere neurrira antzeztu ahal izatea, baita norbere buruari burla gaizto zein zintzoa egiteko aukera ere. Hori lagun artean egitea baino hoberik ez dago".

**Musikak indar handia du**

Maite Larburu, musikaria izateaz gain, oso maila oneko aktorea dela ere erakusten ari da antzezlan honekin. "Bere lehen antzezlana da, baina antzerkilari sena aspaldikoagoa dela garbi dago. Benetan harrigarria da oholtza gainean ematen ari den maila. Gainera, publikoak gehien jarraitzen duen pertso-

**FUCHS ANAIK ETA MAITE LARBURU DIRA ANTZEZLEAK ETA AZKEN HORRENA DA OBRAREN MUSIKA**

naia berea da, obra honek Anaren istorioa kontatzen duelako, batik bat. Lan ederra, irrigarria eta hunkigarria egiten du".

Era berean, Larbururen musikak girotzen du emanaldia. "Nolabaiteko markaketa bat egiten du musikak, elipsiak eginez. Hainbat unetan, Maiteren abestiek hartzen dute protagonismoa, aldi berean bere pertsonaiaren barne mundua adierazteko balio dutenak. Ikusgarria da nola pasatzen garen antzerki batetik kontzertu batean egotearen sentsazioa izatera. Indar handia hartzen dute berak kantatzen duen momentu horiek".

**Maitasunaren alde kulturala**

Ikuskizunak galdera asko sorrazten ditu. "Maitasunaren ikuspegia guk uste baino kulturalagoa da. Uste dugu zerutik erortzen zaigun kontu bat dela, baina laster ohartzen gara irakatsitako ereduak irentsita ditugula eta zaila zaigula eredu horietatik ateratzea".



Ezkerretik eskuinera, Ximun Fuchs (Aitor), Maite Larburu (Ana) eta Manex Fuchs (Txolarre). AXUT KOLEKTIBOIA

## Udal bibliotekak hainbat ekintza antolatu ditu martxo osorako

Lehenengo hitzordua eguenean izango da, Ahoz Aho jardunaldien baitako 'Relatos para adultos' solasaldia

**E.A. ARRASATE**

Denetariko ekintzak antolatu ditu Arrasateko Udal Bibliotekak hilabete honetarako. Lehen saioari dagokionez, *Relatos para adultos* solasaldia Ahoz Aho jardunaldien baitako emanaldia izango da, Nicole Castillo eta Andres Montero txiletarrek osatzen duten La Matrioska konpainiaren bitartez. Hilaren 10ean, eguena, izango da hori, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan, gaztelaniaz. Jardunaldi berberaren baitan, gainera, May Gorostiagaren emanaldia izango da etzi, domeka, Aramaioko kultura etxean, 18:00etan hasita (15. orrian dago horri buruzko informazio gehiago).

**Maider Alcelay hilaren 16an**

Bestalde, martxoaren 16an, eguaztena, Mainer Alcelay arrasatearrak 5 urtetik gorako haurrei-

zuzendutako ipuin kontaketa egingo du Santa Marinako Auzo Bibliotekan, 18:00etan. Aurrez izena eman beharko da, udal webgunean.

**Liburu aurkezpena Kulturaten**

Egun berean, Kulturateko areto nagusian, *El tren de los locos* liburua aurkeztuko dute Patxi Irurzun idazleak eta Josu Arteaga aurkezleak, 19:00etan hasita. Emanaldi hori gaztelaniaz izango da.

**Bukatzeke ere, ipuin kontaketa**

Azkenik, martxoaren 18an, egubakoitza, Itziar Saenz de Ojerren ipuin kontaketa gozatzeke aukera egongo da Kulturateko areto nagusian, 18:00etatik aurrera. 3-4 urteko haurrei zuzendutako emanaldia izango da, eta aurrez izena eman beharko da izena, udal webgunean.

## Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua egingo du domekan

Martxoaren 6an, domeka, Aratusteetako kontzertua egingo du Arrasate Musikaleko Bandak Amaia antzokian, 12:30ean hasita. Kontzertuaren gaia honako hau izango da: *Piratak*. Modu horretan, musikariek moztortuta interpretatuko dituzte piezak, Mikel Markiegi zuzendariaren gidaritzapean. Emanaldia doakoa izango da.



2019ko Aratusteetako kontzertua. I.S.

## Olio-pintura erakusketa, gaurtik, Doke tabernan

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Juan Carlos Steigmer Arenazaren *'Paisaien'* olio-pintura erakusketa Doke tabernan, 19:00etan, eta hilabete osoan gozatu ahal izango da erakusketa, martxoaren 31ra arte. Margolariaren hamalau pieza egongo dira ikusgai eta erakusketa orduetako tabernarena izango da: 09:00etatik 22:00etara.

## Labana taldearen emanaldia eguenean gaztetxean, 22:00etan

Kooltur Ostegunen baitan, kontzertua egingo du power-punk estiloa lantzen duen talde bizkaitarrak. Lau lagunek osatzen dute Labana, aurrez Hexen taldean ibilitakoak. 2019an kalera-tu zuten euren lehen lana: *Blacklist*. Urtarrilean ziren gaztetxean jotzekoak, baina bertan behera utzi behar izan zuten kontzertua orduan. Sarrera zazpi euro da.

# Ahoz Aho jaialdia Aramaiora etorriko da

Intujai teatrotik 15 urte daramatza ahotsa erabiltzen duten artisten jaialdia antolatzen. Aurten, hiru saio egingo dituzte Aramaion; lehenengoa domekan izango da: May Gorostiagak helduendako saioa egingo du, euskaraz, 18:00etan, kultura etxean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Ahoz Aho, Ahoz kotasunaren Nazioarteko Jaialdia, 15. aldian bete-betean dago. Ahotsa erabiltzen duten artisten jaialdia Intujai Teatrotik antolatzen du. May Gorostiaga antolatzailea: "Ahotsa erabiltzen duten artisten nazioarteko jaialdia egitea da helburua. Tolosan eta Ordizian hasi ginen jaialdiarekin; eta gaur egun, horiek dira zutabeak, baina beste herri batzuetara ere zabaldu gara". Hain zuzen, orain dela 10 urte, Aho Zabalik proiektuarekin hasi ziren Euskal Herriko beste herri batzuetara zabaltzen.

Aurten, hamabi herritan egingo dute geldialdia; tartean, Aramaion, eta baita Arrasaten eta Oñatin ere.

## May Gorostiaga domekan

Aramaion egingo duten lehenengo saioa domekan izango da. May Gorostiagak ipuin kontaketa eskainiko du kultura etxean, 18:00etan. "Nire mundua izango

da egingo dudana ikuskizunaren izena. Ipuin propioak dira, nik neuk sortutako istorioak. Bidaia bat egin nahi dut, sinergia bat sortu publikoarekin, eta hainbat sentimendu piztu".

Gorostiagak dio ipuin munduak baduela "nolabaiteko magia; publikoaren eta artistaren artean sortzen da elkarrizketa bat, eta hori beti ezberdina izaten da, ez da inoiz errepikatzen. Magia da". Bestalde, Gorostiagak gaineratu du artista eta publikoa horren gertu egoteak ere eragiten duela magia hori sortzerakoan.

Aramaion eskainiko dituzten hiru saioak doan izango dira eta ez da sarrerarik eskuratu beharrik izango.

## ARAMAION EGINGO DIREN HIRU SAIOAK DOAN IZANGO DIRA, ETA EZ DA SARRERARIK BEHAR

## Beste bi saio

Martxoaren 26ra arte iraungo du jaialdiak. Tarte horretan, beste bi saio egingo dituzte Aramaion: martxoaren 17an, egueña, Nicolas Buenaventurak helduendako saioa eskainiko du, gazteleraz; eta martxoaren 23an, eguaztena, Ifigeneia Kakridoni greziarrak familiendako ikuskizuna eskainiko du, gazteleraz. Saioak 18:00etan izango dira, kultura etxean.

## Bailarako sortzaileak

Jaialdiak Debagoienean egingo dituen geldialdiez gain, bailarako artistak ere egongo dira jaialdian: Maider Alcey eta Igor Sala eta Dorleta Kortazar. Martxoaren 15ean, Alcey eta Sala Amezketan izango dira, 18:00etan; eta martxoaren 19an, Alcey ikuskizuna egingo du Ordizian, 17:00etan. Horrez gain, martxoaren 26an Tolosan egingo den *Euskaldunen odisea* ikuskizunaren koordinatzailea Dorleta Kortazar izango da.



May Gorostiaga, Ifigeneia Kakridoni eta Nicolas Buenaventura. INTUJAI TEATRO

## Manifestazioa, tailerrak eta zinema, emakumea ardatz

Martxoaren 8an, martitzena, manifestazioa egingo dute herriko kaleetan, kultura etxetik irtenda, 18:30ean

## A.E.G. ARAMAIO

Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte Aramaioko Udalak, Itur-zuri emakume elkarteak, Laia eskolak eta Ikusiz Gozatu taldeak.

Zoru pelbikoari buruzko ikastaroa egingo dute, ikuspegi feministatik. Gimnasioan izango da ikastaroa, martxoaren 5ean eta 19an eta apirilaren 2an eta 9an, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko, idatzi [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus) helbidera.

Maskulinitateak lantzeko tailerra ere egingo dute, martxoaren 12an eta 19an, osoko bilkuren aretoan. Izen-ematea, helbide elektronikoa berean.

## Manifestazioa eta zinema

Martxoaren 8an, martitzena, manifestazioa egingo dute, kultura etxetik irtenda, 18:30ean. Horrez gain, hiru zinema ema-



Señor filmaren irudi bat. 'FILMAFFINITY'

naldi egingo dituzte: martxoaren 9an, zine-kafea *Señor* filmarekin, 18:30ean; martxoaren 13an, *Chavalas*, 18:30ean, mugimendu feministak dinamizatuta; eta martxoaren 27an, *Adam*, 19:00etan. Kultura etxean izango dira zinema emanaldiak.

## Korrikako kilometroak erosteko bilera egingo dute

Martxoaren 31n hasiko da Korrikaren 22. edizioa, Amurrion, eta, Aramaiotik pasako ez den arren, apirilaren 1ean Debagoiena zeharkatuko du. Aramaioko Udalaren asmoa da Gipuzkoaren eta Arabaren arteko mugan bi kilometro erostea. Horretarako, diru bilketa egingo dute. Ekarpena egiteko interesa duten herriko elkarte, establezimendu

eta norbanakoek Txirritola euskara elkartearen kontuan egin beharko dute diru sarrera: 3035 0161 21 1610004439 zenbakian. Epemuga martxoaren 30a da.

Bestalde, Korrika Kulturalaren barruan, hiru bertso saio egingo dituzte. Gaur izango da lehenengoa, Sastiñan, 19:00etan: Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Danel Herrarte eta Peru de Pedro izango dira bertsolariak. Bestalde, gaur arratsaldean, Korrikako arropak salduko dituzte.

## Aramaioko alkatea 'Harira' saioan izango da martitzenean

Debagoieneko udaletan ordezkakuta dauden alderdi politikotako ordezkariekin mahai-inguruak egiten ari da *Harira* saioa. Datorren astean, Aramaiori eskainiko diote tartea. Herritarrek ere izango dute gaiak edo galderak proposatzeko aukera. Posta elektronikoz: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus); eta Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07.

## Antzerki inprobisatuaren oinarriak ikasten

Debagoieneko Antzerki Plataformaren eskutik antzerki inprobisatu ikastaroa egingo dute hilaren 12an. Egoitz Aizpurua oñatiarrak eskainiko du, eta antzerki inprobisatua egiteko beharrezkoak diren oinarriak eskainiko ditu. 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara izango da. Izena emateko: 634 45 03 55 zenbakian.

Teatro Paraiso konpainiak umeei eskainiko dien *Nomadak* antzezlanaren une bat. TEATRO PARAISO

## Askotariko ekintzaz betetako hilabetea dator

Umeendako antzezlanarekin emango diote hasiera, aste bukaeran, Arkupeko egitarauari, eta horri batuko zaizkio Martxoaren 8aren bueltako agenda eta Korrika Kulturalaren barruko ekintzak; gainera, Fun Dantz jaialdia itzuliko da kiroldegira

### Mirari Altube ARETXABALETA

Bete-beteta datorren martxoko kultur agendari hasiera emango diote bihar, zapatua, Arkupen. "Berdintasun Sailarekin elkar-lanean antolatutako ekitaldi mordoxka bat daude, eta Kultura Saitetik bideratutako beste hainbeste; zinema, esaterako", adierazi du Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok. Hain zuzen ere, zinemari dagokionez, *Muerte en el Nilo* eta *Licorice pizza* filmak izango dituzte helduek eta *Ainbo: Amazoniako gerraria* eta *Encanto* umeek.

Hilabeteari hasiera, baina, *Nomadak* antzezlanak emango dio, bihar; Gasteizko Teatro Paraiso konpainiak bi emakume nomadaren gaineko ikuskizuna aurkeztuko du. Ipuin kontaketa ere izango dute umeek hilaren 16an, liburutegian: *Filomena musugorri, errege!* eskainiko die Maite Francok. Eta hilabetea bukatu aurretik, hilaren 27an, beste emanaldi bat izango da umeendako: *Adi, grabatzen, ekin!*

### Egitaraua

#### Martxoak 5

- **12:00** Hitzaldia: *¿Qué nos ha enseñado el covid sobre la soledad?*
- **17:00** Antzezlanak: *Nomadak*.

#### Martxoak 6

- **19:00** Antzezlanak: *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*.

#### Martxoak 10

- **19:00** Dokumentala: *Fabricando mujeres 2.0*.

#### Martxoak 16

- **18:00** Ipuin kontaketa: *Filomena musugorri, errege!*

#### Martxoak 17 eta 24

- **18:30** Solasaldia: Jon Maia: *Extremaduratik bertsolaritzara*.

eskainiko diete Tomaxen abenturak pailazoek.

Jon Maia bertsolari, idazle eta abeslariak, ostera, bere bizipenen berri emango du hilaren 17an, euskaraz, eta 24an, gazteleraz, *Extremaduratik bertsolaritzara* izenburupean. Azken bi kontu horiek Korrika Kulturalaren egitarau barruan antolatu dira.

#### Mikel Zamoraren kontzertua

Musikari dagokionez, kontzertu bakarra izango da eta aretxabaletar batek emango du, hilaren 25ean. Musika mundura iritsi berri den Mikel Zamorak lehen diskoa aurkeztuko du: *Mikel Zamora PR*. Indie ukituak dituen pop-rock estiloko disko intimo eta pertsonala da. Oholtza gainean eskarmentu handiko musikariak izango ditu lagun.

Bestetik, dantza urbanoen jaialdia, Fun Dantz, bueltan dator, martxoaren 26an, kiroldegira. Hamazazpi taldek hartuko dute parte, bi kategoriatan banatuta.

## M8an kalera irteteko dei egin dute feministek eta Udalak

Manifestazioa izango da, Herriko Plazatik abiatuta, eta hilabete osoan izango dira hainbat eratako ekintzak

### M.A. ARETXABALETA

Berdintasunaren aldeko borroka ikustarazteko eta, era berean, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak, Atxabaltako Mugimendu Feministaren laguntzarekin. Eguneko ekintza nagusia manifestazioa izango da; 18:00etan, adinekoen egotzara joango dira hango langileei babesa erakustera, eta 18:30ean abiatuko da, plazatik.

### Hartutako konpromisoak

Udaleko bi alderdiak eta Erdu talde feminista ordezkatuta dauden Berdintasun batzordeak adierazpen instituzional bateratua adostu du Martxoaren 8aren harira, eta herrian berdintasun-politikak ezartzeko baliabide ekonomiko, pertsonal eta teknikoak indartzeko konpromisoa hartu du; baita Udaleko barne eta kanpoko protokoloak berritzeko konpromisoa ere, indarkeria matxista guztietako biktimei ematen zaien arreta hobetzeko. Horrez gain, herritarren sentsibilizazioan sakontzeko nahia agertu du, eta berdintasunaren eta emakumeen ahalduzaren aldeko neurrien garapen integralarekin jarraituko duela eman du aditzera.

### Zaintza erdigunean

Atxabaltako Mugimendu Feministak, berriz, *Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista gure garra!* hartu du

lelo egun horretarako, eta zain-tzan jarri du arreta. GSR egotzako langileei elkartasuna adierazi, eta ondorengo manifestazioan etxe barruko zaintzak utziko dituzte agerian; umeena eta adinekoena, besteak beste. Egunotan, gainera, horri keinu eginaz murala margotuko dute Errekabarren kalean.

Pikarraituz neska gazteen taldeak, ostera, ikastetxeetan egingo du lanketa martitzen goizean, eta 12:00etarako elkarretaratzea deitu du, Herriko Plazan.

### Hilabete osoko egitaraua

Emakumeen Nazioarteko Eguren bueltako egitaraua hilabete osoa zabalduko dute Arkupen, eta erakusketa aretoan, esaterako, atzotik dago Matilde Sainz, Arantza Baskaran eta Amaia Aranzabal margolari arrasatearren erakusketa. Antzezlanak izango da domekan (19:00), Kamikaze Kolektiboak eta Ttak Teatroak eskainitako *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*. Hilaren 10ean, ostera, Setem Hego Haizea GKEK egindako ikerketa batean oinarrituta dagoen *Fabricando mujeres 2.0* dokumentala emango dute (19:00), eta solasaldia izango da gero.

Martxoaren 29an, bestetik, Berdintasun Sailak eta Erdu talde feministak abian jarritako Aretxabaletake genealogia feminista lehiaketaren bueltan Maite Triviño aretxabaletarrek egindako lana aurkeztuko dute.

## Ixadebalde azoka abian da zapatu eguerdia bitartean

Aurtengo lehen Ixadebalde merkealdien azoka abian da atzo ezkerero. Hamaika merkatarik atera dituzte merkaturako produktuak dendaren aurrealdera; hona hemen horiek: Amaia ume denda, Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Titare, Almila Shop, Tak eta Zubia. Eta jatekoa eta edatekoa izango dute, Kilokak eta Hankabeltz urdai-

tegiak. Merkatarik "gustura" agertu dira azokaren lehen egunak emandakoarekin, beherapenetan geratutako hondarrak kentzen dihardutelako.

Bi egunotan ere azokaren atea zabalik izango dira; gaur, egubakoitza, goizez 10:00-13:00- eta arratsaldez 16:30-20:00- eta 5ean, zapatuan, goizez bakarrik 10:00-14:00-. Ohi legez, opariak banatuko dituzte "sari" gisa; merkatarik bakoitzak 50 euroko bonuak zozketatuko ditu erosketak egindako bezeroen artean.





Saria jasotako balkoietako bat. ARGAZKIAK: I. ELGARRESTA, I. SORIANO ETA M. ALTUBE



Txino dantza ikasleen eskutik.



VOXeko ordezkaria desfilean.



Boris Johnson, Downing Streeten.



Txinen hileta martitzen iluntzean.



UDAKo futbol taldea erosi nahian etorritako xeke kuadrilla Durana kalean.

# Aratuste gosea aseta, datorren urtekoei begira

Kuadrillen desfileak girotu zituen kaleak domekan, eta herritarrek pozik hartu zituzten txaranga doinuak, karrozen motor hotsak eta jai giroa sortzeko egindakoak; kontzertua kale bazterrean, esaterako. Udala eta Karnabalen Lagunak "gustura" agertu dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aratuste biharamuna aste osora luzatu da askorendako, bi urte zain egon ostean "sekulakoa" izan da eta. Udala ere "oso gustura" agertu da. "Aparteko giroa, jendea pozik eta parte-hartze handia karrozei dagokienez. Argi geratu da aretxabaletarrek Aratuste izpirituari bizirik eutsi diotela", adierazi du Ainhoa Caberok,

Kultura zinegotziak. Umoreak eta originaltasunak bat egin zuten kuadrillen desfilean, eta sariak jaso zituztenak honako hauek izan ziren: Downing Street, Makrogranjak, Benidorm Fest, Hobeto Heingeinke eta Ropertarrak. Balkoi dotoreenen artean, osteria, bi hautatu zituen epaimahaiak: Karnele Unzuetaarena eta etxean-diatarrena.

Karnabalen Lagunak taldeak berretsi egin du Udalaren iritzia, eta dagoeneko datorren urtera begira jarri da: "Sekulakoa egiteko asmoa dugu; hortaz, hasi gertatzen".

Martitzenean ez zen ohiko jai girorik izan; dena den, neska-mutikoei Txino dantza eskaini zuten. Jaiak agertu zituzten kintoei Txinen hiletarekin.

## Hamar bikote izango dira aurrez aurre frontenis txapelketan

Bi multzotan banatuta jokatuko dituzte partiduak bihar; eta domekan, finalaurrekoak eta finala izango dira

**M.A.** ARETXABALETA

Emakumezkoen frontenis txapelketa antolatu du UDak zortzigarrenez, Martxoaren 8aren bueltan. Hamar bikotek eman dute izena eta norgehiagokak bihar eta etzi goizean jokatuko dituzte, Iturrigorri pilotalekuan.

**Bi multzotan banatuta**

Bi taldetan multzokatu dituzte hamar bikoteak, eta bihar, zapatua, 08:00etan hasita, talde bereko guztien aurka jokatuko du bakoitzak. Lehenengo bi postuetan sailkatutakoek domekan

jarraituko dute txapelketarekin. Finalaurrekoak 10:00etan hasiko dituzte eta finala 11:30ean jokatu da. Partiduak 25 tantotara izango dira.

**Pilotalekurako gonbidapena**

Txapelketan jardungo duten lau bikote aretxabaletarrak dira, eta gainerakoak, inguruko herrietakoak; Elgetakoak eta Eloorriokoak, esaterako. Partiduak bertatik bertara jarraituzera gonbidatu dituzte herritarrek, "giro polita" izango delako pilotalekuan.



AMAI GASTAÑAGA

## Lander Lanzos, hirugarrena

Laudion jokatuako Euskadiko kros txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen Lander Lanzos Gastañaga gaztetxoak. Arrasateko atletismo taldeko kide da, baina Gipuzkoako selekzioarekin jardun zuen joan den domekan, infantil mailan, eta 3.300 metroko distantziako ibilbidea egin zuen beste 80 bat gaztetxorekin batera.

## Izan Bidea bola-txapelketa jokatu dute bihar

Aretxabaletako Sarek antolatuta, Izan Bidea bola-txapelketa izango da bihar, zapatua, Gari Atxabaltara leloarekin. 12:30ean hasiko da, eta izena emateko ordubete lehenago irekiko dute -5 euro-. Irabazleak jasoko du batutako diruaren %50 eta txapela; bigarrenak, diruaren %30 eta xanpaina; eta hirugarrenak, diruaren %20 eta botila bi ardo.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Plaza, Martxoaren 8an egindako elkarretaratzea, Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL BELOKI

## Proiektzioekin indartuko dute feministek M8a

Martxoaren 8an manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik hasita. Hala ere, egingo duten ibilbidearen aurretik, zenbait ikus-entzunezko proiektatuko dituzte, berdintasunaren aldeko borrokan kontzientziak pizteko asmoz

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** *Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista gure garrara* lelopean, manifestazioa egingo dute Martxoaren 8an, 19:00etan, plazatik hasita. Hala ere, beste zenbait ekintza ere prestatu dituzte.

Eguaztenean egin zuten koordinazio bilera Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek, eta ibilbidea zehaztuta utzi zuten. Plazatik aterata, eliza paretik goranzko noranzkoan joango dira, eta Dorleta auzoaren atzealdetik beheranzko bidea hartuko dute; gero, San Pedro eta Inxaurtxueta auzoetatik pasatuko dira, eta, biblioteka albotik igaro ondoren, plazan amaituko da ibilbidea.

### Proiektzioak aurretik

Manifestazioaren aurretik, *Femideo* izeneko lehenengo bideo-lehiaketara aurkeztu diren lanak jarriko dituzte ikusgai, Fernando Eskoriatza plazan. *"Femideo* izeneko bideo-lehia-

keta jarri genuen martxan otsail hasieran. Martxoaren 8ra begira motorrak berotzeko ekintza izan da, eta oraindik balorazioetarako goiz da; izan ere, lanak azken unean entregatzeak direla esan digute zenbait herritarrek. Lehenengo edizioa da, eta, *Zer da feminismoa zuretzat?* galdera oinarri, bideo bat grabatu behar izan dute partaideek. Ikus-entzunezko hauekin batera, ekofeminismoaren gaineko beste zenbait bideo ere proiektatuko ditugu. Manifestazioaren ostean egingo dugu bideo-lehiaketako sari banaketa", adierazi du Kristina Cardenalek, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak.

**18:30EAN, ZENBAIT IKUS-ENTZUNEZKOREN PROIEKTIOAK IZANGO DIRA FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN**

Martxoaren 8aren baitan, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria izango da martxoaren 27an, Zaldibar antzokian, *80 amandre* izeneko ipuin kontaketa egiten. Sarrera doan izango da, baina gonbidapenak alde aurretik eskatu beharko dira kiroledegian edo *bibe.me* webgunean.

### Sahararren jaira batuz

Martxoaren 8aren aurretik, baina, zapatu honetan, sahararren jaia ospatuko da Fernando Eskoriatza plazan. Egitaraua antolatzen laguntzen aritu dira Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak, eta honako egitarau hau prestatu dute: 12:00etatik 13:00era bitartean, Mendebaldeko Saharako giza eskubideei buruzko mahai-ingurua izango da. 14:00etan, berriz, bazkaria egingo dute Saharako jakiekin, eta nahi duena joan ahal izango da horiek probatzera. Egitaraua amaitzeko, berriz, sahararrek ekarriko duten musika talde baten emanaldia izango da.



Madrilgo Arkeologia Museo Nazionaletik axtrokiak erakusten. '@MANARQUOLOGICO'

## Madrilgo zuzenean erakutsi dituzte Axtrokiko ontziak

Madrilgo Arkeologia Museo Nazionalak 'otsaileko pieza' izendatuta, bisita birtuala eskaini du Instagram bidez

### I.B. ESKORIATZA

1972an aurkitu zituzten urrezko ontziak Ezkorkortan, Axkroki inguruan. Hala, abuztuaren 17an, 50 urte beteko dira aurkikuntzatik, eta, horren baitan, Madrilgo Arkeologia Museo Nazionalan dauden ontziak *otsaileko pieza* izendatu dituzte. Hilabete osoan zehar axtrokiak ikusteko aurrez aurreko bisitak egin dituzte domekero, eta, horrekin batera, astelehenean Instagramen zuzenean erakutsi zituzten, @*manarqueologico* kontuan. Zuzenean emititutako bideoa oraindik ikusgai dago.

### Ontzien ezaugarriak

Arkeologia Museo Nazionalako Sara Garciak astelehenean eskaintako azalpenetan, Axtrokiko ontzien aurkikuntzaz eta dituzten ezaugarriez jardun zuen, besteak beste: "Bata bestearen barruan aurkitu zituzten, eta dekorazio sinbolikoa dute. Eguzkiak irudikatzen dituzten borobilak dituzte ontziek, proportzio matematikoak ondo ezarrita. Alderantzizko s-ak, hegaztiak irudikatzen dituztela, baita gurutzeta, kosmosa irudikatzen duena, eta puntuek izarrak...".



AITOR AGIRIANO

## Aratusteak gogoz ospatu dituzte

Aratuste-zapatua benetan gogotsu hartu zuten eskoriatzarrek. Sumatu zen herriko kaleetan festarako gogoia zegoela, eta horren adierazle izan zen kalera atera zen jendetza. Gainera, Andoni Moto izan zen Fernando Eskoriatza plaza musikarekin girotzen, eta, mozzorro desfile-lehiaketarik ez egin arren, disfrutatzen dakitela demostratu zuten eskoriatzarrek.

# Sexu-lehorteari buelta eman guran: 'Kottauak'

Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktore ezagunek domeka honetan eskainiko duten komedia Zaldibar antzokian izango da, 19:00etan. Umoreak ez du hutsik egingo obra honetan, eta ikusi nahi duenak sarrerak aldeztu aurretik erosi beharko ditu

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Euskal antzerkigintzan nor baino nor ezagunagoak diren Ane Gabarain donostiarrak eta Mikel Laskurain bergararrak *Kottauak* izeneko ikuskizuna antzeztuko dute domekan, 19:00etan, Eskoriatzako Zaldibar antzokiko oholza gainean.

Txalo Produzioak taldeak ekoiztutako lanaren egilea Anthony Neilson da, eta Getari Etxegaraik zuzendutako komedia honetan, Ane Gabarain da Laskurainekin batera protagonista. Iaz, urrian, Bergarako Seminarixoa estreinatu zuten obra, eta orduan izan zuten arrakasta bera lortzeko asmoarekin etorriko dira Eskoriatzara. Bi aktoreen ibilbidea errepasatuta, seguru ez dutela hutsik egingo eta ikusleak barre-algaraka arituko direla komedia dibertigarri honekin.

## Sexu-lehortea ardatz

Zaldibar antzokiko eszenatoki gainean emakume eta gizon bat izango dira, bederatzi urteko bikote harremana dutena, eta hamalau hilabeteko sexu-lehortea. Euren arteko arazoak dituzte; bakoitzak bere arazo psikologikoak eta traumak ditu, eta bata besteari botatzen dio kulpaa. "Gabezia" horri konpon-



Mikel Laskurain eta Ane Gabarain, Seminarixoa egindako saioan. IMANOL SORIANO

bidea bilatzeko, ikuslearekin hartu-emanean jardungo dute, eta, modu komikoan jardun arren, une mingarriak ere izango dira "galdutako sexuaren bila" azalduko den bikotearentzat.

## Eskarmentu handikoak

Eskarmentu handiko aktoreak dira Ane Gabarain eta Mikel Laskurain. Elkarrekin egin dituzten beste lanetan moduan, oraingoan ere bikote paperean sartuta antzeztuko dute, eta ikusleak hunkitzeko eta pentsatzeko jartzeko duten gaitasun

berezia erakutsiko dute lan umoretsu honetan. Azken finean, edozein adin eta sexurako jolas eszeniko dibertigarri eta polemikoa.

## Sarrerak, bost eurotan

Sarrerak aldeztu aurretik erosi behar dira, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegiko harreraren edo *bibe.me* webgunean. Antzokiko edukiera ez bada betetzen eta sarrerak soberan geratzen bada, egunean bertan jarriko dira salgai Zaldibar antzokiko leihatilan.

## Atama Eskoriatzako sei borrokari, Espainiakora

Asteburu honetan, egubakoitzetik domekara bitartean, Espainiako kenpo txapelketa jokatu da Granadan. Bertan, modalitate ezberdinez gozatzeko aukera izango dute ikusleak, eta kategoria ezberdinetako borrokalariak arituko dira: alebinak, infantilak, gazteak, kadeteak, juniorrak, 21 urtetik azpikoak, seniorrak eta beteranoak. Horien

artean izango dira Atama Eskoriatza taldeko zenbait borrokalari: Ion Garcia, Juan Antonio Garcia *Mondra*, Luis Carlos Carmona, Airam Duarte, Danel Azkunaga, Leire Rato, Octavio Luz De Paula eta Andoni Taberna; bakoitza bere kategorian.

Hurrengo asteburuan, martxoaren 10etik 13ra bitartean, berriz, munduko kopa jokatu da Portugalen, Caldas da Rainhan, eta Atama Eskoriatzatik, senior kategorian, Leire Rato eta Octavio Luz de Paula arituko dira.

## Odola ateratzeko autobusa, hilaren 8an, Santa Marinan

Aratuste-martitzenean, Santa Marina plazan izan zen odola ateratzeko autobusa, Fernando Eskoriatza plazan beharrezan. Horren arrazoia da zenbait hitzordu zeudela plazan. Hori horrela, martxoaren 8an ere etortzekoa da autobusa, eta, arrazoi berarengatik, Santa Marinan izango da, 16:30etik 20:15era bitartean.



Eskoriatza Txirrindulari Elkarte zikloturistek lore-eskaintza egin zuteneko. GOIENA

## Lore-eskaintza domekan Dorletako ama birjinari

Dorleta Txirrindulari Elkarte kideek salda prestatuko dute Arlabanera joaten diren zikloturistentzat

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Zikloturistek lore-eskaintza egingo diote domekan Dorletako Ama txirrindularien zaindariari. Goizetik eguerdira bitartean, zenbait txirrindulari batuko dira Arlabanen, eta Dorletako Ama Txirrindulari Taldeko antolatzaileek salda jarriko dute bertara doazenendako.

Eguaztenean, lekua atontzen izan ziren, eta hitzordu jendetsua aurreikusten dute antolatzaileek. "Ordu zehatzik ez da izaten lore-eskaintza egiteko, baina bertan izango gara harrera egiten. Leku askotatik etortzen da jen-

dea, baina Araba aldeko zikloturistak, esaterako, urterokoak dira. Sociedad Ciclista Vitorianako 200 lagun inguru etorriko direlakoan nago...", adierazi du Joxerra Agirreurretak, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarte kideak.

### Lanen ondorioz, lasaiago

Arlabanen lanak izan direla-eta trafiko gutxiago egongo dela aurreikusten dute antolatzaileek, eta lasaiago aritzeko aukera izango dutela azpimarratu dute. "Familian joateko hitzordu paregabea da".

## '80 amandre' helduentzako ipuin kontaketa liburutegian

Dorleta Kortazar eskoriatzarrak lau ipuinez osatutako saioa eskainiko du martxoaren 10ean, 18:30ean

### I.B. GATZAGA

Martxoaren 10ean, 18:30ean, helduei zuzendutako *80 amandre* ipuinaren kontaketa egingo du Dorleta Kortazar eskoriatzarrak, liburutegian.

"Nire amonen istorioak dira, eta lau ipuinez osatuta dagoen ikuskizuna da. *80 amandre* Jorge Oteizak erabiltzen zuen esamolde batetik dator; hain zuzen, 80 belaunaldi nahikoa direla kobazuloetan bizi ziren emakumeak gaur egungoekin elkartzeko. Hori da ipuinaren filosofia: gure amonen istorioak gaur

egunera ekarri, eurak izan zirena erreperatzeko eta lekua egiteko. Askotan isildutako istorioak izan dira, bizitza zaila izan dute... Oso hunkigarriak dira ipuinak, eta, nik nire amonen istorioak kontatzen ditudan arren, entzule bakoitzak bereak ikusten ditu ipuinetan. Umore puntu bat ere badu saioak, eta energia polita sortzen da", adierazi du Dorleta Kortazarrek. Gatzagako hitzorduak gain, gaur Antzuolan izango da ipuin kontaketa bera egiten, 18:30ean, eta martitzenean Elgetan, 18:00etan.



Herritar bi, *pump track* pistaren obrari begira. M.A.

## Zaleak 'pump track'-a probatzeko irrikaz daude

Herritarrek gertu dituzte BMX bizikletak eta patineteak Antzuolako 'pump track' parkea estreinatzen. Asfaltatze eta margotze lanak amaitu dituzte. Ondorengo egunetan jarriko dute 30 metroko tirolina eta Eztalako argiteria bertara lekualdatuko dute

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Ikusmin handia eragin du Antzuolako hilerri alboko belardian egiten diharduten *pump track* parkeak. Herritarrek desiratzen daude estreinatzen, eta ia egunero-egunero obra bisitatzen joan denik ere bada. Halako pistetan ibiltzen diren erabiltzaile eta zaleek aitortu dutenez, maila politeko pista da, eta bailaran dagoen onenetakoa ere badela diote. Askok Legazpin dagoen parkera joan ohi izan da, eta orain, bertatik bertara izango dute BMX modalitateko bizikletaz zein patineteaz gozatzeko. "Orain arte, Legazpiko eta Beasaingo parkeetara joan izan gara. Irrikaz gaude Antzuolako estreinatzen, itsura aparta dauka eta!", diote.

Lanak aurreko astean hasi ziren eta jada pista asfaltatuta eta margotuta dago, eta hesia jarri dute inguruan. Herritarrei zabaldu aurretik, baina, argiteria eta tirolina jartzea falta dela azaldu du Beñardo Kortabarria

alkateak: "Asfaltoa botata dago eta inguruan belardia ereinda eta txukunduta. Ondoren, tirolina jartzea faltako da, eta ondorengo egunetan egingo dute. Martxo amaieran zabaltzea gurako genuke, eta herritarrei esan nahi diet lanak egin arte ez dela komeni erabiltzea".

Parke irekia izango da, eta edonorendako egongo da erabiltzari; lehenetsuna, noski, antzuolarrek izango dutela azaldu du alkateak.

Antzuolako *pump track* parkeak izango duen bereizgarrietako bat argiteria izango da. Izan ere, modu horretan, iluntzen duenean ere parkeaz gozatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. "Argiteria aurrerago jarriko dugu;

**EZTALA FUTBOL ZELAIKO FOKU ZAHARRAK 'PUMP TRACK' PARKEAN JARRIKO DITUZTE**

izan ere, asmoa da Eztalako argiteria berritzen dugunean han dauden fokuak *pump track* parkean jartzea".

Bide batez, alkateak ohartarazi du gaur egungo elektronikako baliabide faltak Eztalako argiteriaren obran, akaso, eragin dezakeela: "Dena ondo bidean, Eztalako obra zibila bi aste barru hasiko da. Baina aurreratu digute elektronikarekin eta elektrizitatearekin zerikusia duten gauzak falta daitezkeela, eta stock falta horrek, agian, zertxobait atzeratu ditzakeela obraren epeak".

**98.000 euroko aurrekontua**  
*Pump track* parkea Pool Sport enpresa bizkaitarrak egin du (49.000 euro), eta 30 metroko tirolina, berriz, Hags enpresaren ardura da (9.200 euro). Hesiak, parkeko sarrerak eta argiteria lanek 40.000 euroko kostua dute. Hau da, guztira, 98.000 euroko inbertsioa izango du aisialdia azpiegitura berriak.



M.A.

## Euskal selekzioa Eztalan

Une oparoa bizi du emakumezkoen futbolak. Bailaran ere igarri da, zaletasuna gorantz baitoa. Ikusi besterik ez dago Antzuolan 15 urtez azpiko euskal selekzioko jokalarien entrenamenduak izan duen harrera. Tartean, Elene Aldekoa eta Maren Arabalaza oñatiarrak ziren – Ane Isasisasmendi ezin izan zen joan, bizkarreko lesio batengatik–.

## Dorleta Kortazarren '80 amandre' ipuin kontaketa gaur

Martxoaren 8aren bueltan ekintza ugari antolatu dituzte ondorengo egunetarako; parte hartzeko dei egin dute

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Emakumeen Nazioarteko Eguren baitan, hainbat ekintza antolatu dituzte ondorengo egunetarako. Hala, gaur, martxoak 4, Dorleta Kortazar ipuin kontaketa saioa eskainiko du, Torresoroan, 19:00etan –sarrerak bertan eskuratu daitezke–. Martxoaren 8an, berriz, manifestazioa abiatuko dute herriko kaleetan barrena, arratsaldeko zazpietan hasita.

Bestetik, martxoaren 12rako, zapatua, emakumezkoentzako

dantza garaikide tailerra antolatu dute, eta Blanca Carrasco antzuolarrak gidatuko du saioa, Torresoroan, 10:30ean hasita. Izena eman daiteke udaletxean edo 650 80 52 48 telefonora deituta –arropa eroso eta galtzerdiak eramatea gomendatu dute–. Eta martxoaren 13rako, aldiz, *Papicha, sueños de libertad* film emanaldia antolatu dute, Torresoroan, 18:00etan.

Antzuolarrei ekintzan parte hartzeko dei egin diete udal ordezkariak eta Andramanuelak emakume taldeak.

## Emakumeentzako eskalada ikastaroa antolatu du Arrolak

Martxoaren 9an, 16an, 23an eta 30ean (18:30-19:30) egingo dira emakumeentzako bideratutako eskalada saioak, Deiane Zubikarairen gidaritzapean. Aldez aurretik izena eman behar da, [labur.eus/neskaroko](http://labur.eus/neskaroko) helbidean. Gaur iluntzean, gainera, Arrolak kamisetak eta kantinplorak saltzeko mahaia jarriko du, Kalebarrenen.

## 'Tipularen sehaska kanta' dokumentala ikusgai domekan

Lander Garroren *Tipularen sehaska kanta* filma izango da ikusgai domekan Torresoroan, 18:00etan. Sarrera 3 euro da eta eskuragarri daude [labur.eus/sarrerakantzuola](http://labur.eus/sarrerakantzuola) helbidean. Espetxean gaixotasunak dakarren samina azalera ekartzea izan du helburu Garroren pelikulak. Preso eta gaixo dauden zailtasunak jasotzen ditu.

# Martxoaren 8a

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



### Ikuskerak

Sei emakumek kontatu dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean ikusi eta bizi dutena



**2 MÓ 229€**  
**BETAURREKO**  
**PROGRESIBO**



(BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE)

*Kontsultatu optikan konpainiaren ezugarriak.*



Otalora Lizentziaduna, 18  
 Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
 Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

www.multiopicas.com

**MULTIÓPTICAS**  
 50 urte zuen ikusmena zaintzen

# "Orain, modu sotilagoan diskriminatzen da"

**RUFINA OLASAGASTI** PENTSIODUNA

Elduainen jairo eta Arrasaten bizi den emakumeak lehen lerrotik bizi du pentsiodunen mugimendua. Adineko emakume gehiago ikusi nahi ditu asteroko elkarretaratzeetan



Rufina Olasagasti, Arrasateko Seber Altube plazan. H.L.

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

15 urterekin hasi zen lanean Rufina Olasagasti, biltegi batean; geroztik, bulego-lanak, Soziologia ikasketak, irakaskuntza eta administrazioko jarduerak tartekatatu izan ditu. Emakume eta pentsiodun bezala bizi izandakoaz dihardu.

**Begiak 21 urterekin ireki zitzaizkizula diozu. Zer dela eta?**

Lanpostu bera jorratzen genuen nire adineko mutil batek eta biok. 21 urte bete genituenean, hari niri baino gehiago ordaindu zioten. Galdetu nuenean ea zergatik zen hori, "mutila delako" erantzun zidaten, familia bat osatu behar zuela eta gastu

asko izango zituela. Justifikaezina iruditu zitzaidan.

**Aspektu hori gairidituta al dugu?**

Orain, gauzak sotiltasun eta disimulu handiagoarekin egiten dira. Lanpostuak baloratzen dituzte jakintza-maila, zailtasun teknikoa eta balio ekonomikoa kontuan hartuz. Desberdin baloratzen da, adibidez, kaleko garbitzailea edo eraikin pribatuetoako garbitzailea izatea. Horrekin batera, badirudi jaiotzetik dakigula etxeko lanak eta zaintza lanak egiten.

**Nola ikusten dituzu gazteak?**

Askok uste dute berdintasunean bizi garela, baina denborarekin jabetzen dira ezetz. Lehen, Elizak

markatzen zigun zer egin; orain, berriz, Internetek. Hala ere, bada gauza bat hobetu dena, seme-alaben zainketa modu parekatuagoan egiten dela. Horrek ekarriko du aldaketa, bai bizitza pribatuan eta baita lantegietan.

**Astelehenero irteten zarete pentsiodunen elkarretaratzeetara. Emakumeek zer-nolako pisua duzue mugimenduan?**

Emakumeon presentzia handia izaten da, baina gizonezkoena handiagoa. Esan beharra dago emakume pentsiodunek gizonezkoek baino 648 euro gutxiago kobratzen dugula hileroko EAEn, batez beste. Erkidegoan 700 eurotik behera jasotzen duten

24.400 emakume inguru daude. Egoera horretan daudenak animatu nahiko nituzke kontzentrazioetan agertzera.

**Lau urte daramatzazue borrokan. Zer lortu duzue?**

Pentsioen igoera %0,25ekoa izan beharrean KPIaren igoeraren neurriera igotzea lortu genuen, eta hori gauza handia da. Emakume alargunek, orain, senarraren pentsioagatik lehen baino zati handiagoa jasotzen dute. Hala ere, EAEn 1.080 euro baino gutxiago jasotzen duten 63.000 alargun daude.

**Eta zer dago lortzeke?**

Rajoyren Gobernuko pentsioen erreforma deuseztatzea ez dugu lortu oraindik. Langile asko prekaritatean bizi dira, 1.200 euro baino gutxiagoko soldatekin. Gutxienez, kopuru hori jasotzea derrigorrezkoa iruditzen zait, gaurko soldatak eta kotizazioak onak ez badira, biharko pentsioak ere onak izango ez direlako. Baliabideak armadara, AHTra edo monarkia bideratu beharrean, hobe hezkuntzara, osasungintzara eta pentsioetara bideratzea.



## Emakumeen berdintasuna eta osotasuna



---

**goiena**  
enpresak

Inbisa Negozio Gunea (Gamarra)  
Zumar Etorbidea 1, 229 bulegoa  
01013 VITORIA-GASTEIZ  
Tel.: 945 00 00 71 • Fax: 945 00 00 72

Antso Abarka 6, behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 59 81  
Fax: 943 79 39 18

Zurradero 2  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 65  
Fax: 943 76 40 37

goiena@goienaaseguruak.com
www.seguosgoiena.com



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna guztiok aletxo bana jarrita lortuko dugu.



**BERGARA**  
Izan, bai, ekin



**BERGARAKO BERDINTASUN KONTSEILUA**

MARTXOAK 8 2022

Parte hartu ekimenetan!

# "Espero baino zailagoa egin zait lana topatzea"

**YANINA CHOQUE** ZERBITZU SOZIOSANITARIOETAKO PROFESIONALA

2019ko abenduan, Perutik Arrasatera joan zen bizitzera. Bi urte pasatxoan ezin izan ditu bere ikasketak homologatu, ezta Perun jarduten zuen lan esparruan aritu ere

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

San Juan de Dios ospitalean dihardu Yanina Choque (La Oroya, Peru, 1982), autonomia urriko pertsonak zaintzen, soziosanitarioen alorreko ikastaroa egin ostean. Aurretik, garbitzaile aritu izan da lanean hemen.

**Zein zen zure egoera Perun?**

Banku batean egiten nuen lan, eta abeltzaintzako ingeniari ikasketak neuzkan. Euskaldun jatorriko senarra ezagutu, eta alaba izan genuen. Hona etortzea erabaki genuen, hango biolentziatik aldentzeko eta hemen aurkituko nuenak itxaropena sortzen zidalako.

**Zerekin egin zenuen hemen topo?**

Lan egiteko zailtasunekin. Esan zidaten nire ikasketak homologatzeko bi urtez ikasi behar nuela Valentziako unibertsitate pribatu batean. Hori ezinezkoa da niretzat. Gero, bankuetan ere ez didate aukerarik eman. Soldata baxuagoko lanpostuak eskuratzea baino ez neukan.

**Garbitzaile eta zaintza lanetan aritu zara. Zer ikusi duzu?**

Ia beti emakumeek betetzen dituztela lanok. Arlo horietan ohikoak dira lan-baldintzak hobetzeko protestak eta grebak. Hemen zuhurtziaz tratatzen da soldataren gaia, baina mobilizazioetan entzun izan dut beste

lanpostu batzuetako soldatak gureak baino altuagoak direla.

**Ze motatako lanpostuetan?**

Ardura gehiagokoetan. Goi-karguak gizona koei emateko ohitura handiagoa dago oraindik. Bulegoetako zuzendari izatera iritsi diren emakumeak ere ezagutzen ditut, baina horra heldzea gizona koei baino gehiago kostatu izan zaie. Mundu osoan gertatzen da.

**Zer egin beharko litzateke egoera hori aldatzeko?**

Haurren heziketan arretra jarri. Jabetu daitezela nolako desberdintasunak dauden mutilen eta nesken artean, eta erakutsi edonor izan daitezkeela ausarta eta

boteretsua. Edonork ikas dezakeela karatea edota jolas dezakeela panpinekin. Nire alabak batzuetan esaten dit: "Nik ezin dut!". Eta nik erantzun: "Ahal duzu, bai horixe! Saiatu egin behar duzu!". Horren harira, badirudi mutilak gehiago mugitzen direla, eta neskek gutxiago. Galdetzen dut ea hori berezkoa den edo neskek pixkanaka jarrera horietara moldatzen joaten diren. Gurasoon ardura da umeei era-

kustea nahi dutena egiteko gai izan daitezkeela. Horrela, etorkizunean edozein lanpostutan jarduteko aukera izango lukete. **Ezer positiborik aurkitu al duzu lan munduan?**

Puntualitatearekiko errespetua. Hemen zure lanorduak hasieratik bukaerara arte bete eta etxera zoaz; beste herrialde askotan, berriz, gehiegizko lan kargak soldata eskasagoen truke ordaintzen dira.



Yanina Choque, laneko uniformearekin. H.L.

**ERREKA**  
www.erreka.com

Berdintasunerako bidea egiten.

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK

Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA**

*Elkarrekin berdintasunerantz!*

**Hemen garbiketak**

Intxaurtxueta 16, behea  
ESKORIATZA  
T.- 943 71 48 45  
www.hemen-garbiketak.com  
hemen@hemen-garbiketak.com

**Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI**

Gizonez inguratuta egon izan da Zilaurren, bai Lanako kontseilu errektorean eta baita Mondragon Eraikuntza dibisioko kontseilu errektorean ere.

**Zaila egin zitzaizun presidente karguari baietz esatea?**

2005ean, orduko presidente Joseba Gonzalezek ezinezkoa zuen karguan jarraitzea. Naturalki onartu zen nire izendapena, lau urtez kontseilu errektorean nengoen eta.

**Zeintzuk dira zure funtzioak?**

Kooperatiba txikia izanda, Lanan presidentea ez dago liberatuta. Hortaz, komertzial saileko administrari lanarekin uztartzen dut. Horrez gain, iaztik, Mondragon Eraikuntza dibisioko presidentea ere banaiz. Azken finean, nire lana gustatzen zait: erronkak, erabakietan parte hartzea... nahiz eta batzuetan erabaki gazi-gozoak izan.

**Inoiz entzun duzu "gizonen lekuan zaude" edo halako komentariarik?**

Egia da gizonen munduan mugitu naizela azkeneko urteetan; baina bai Lanan eta baita dibisiotan ere bi emakume gara gaur egun.

# "Erabaki gazi-gozoak hartu behar dira batzuetan"

**MIRARI ZILAUAREN LASKURAIN LANA KOOPERATIBAKO PRESIDENTEA**

Enpresagintza ikasketak egin ostean, 1997an hasi zen Zilaurren Lanan lanean, merkataritza departamentuan; eta 2005ean izendatu zuten presidente

**Baztertua edo zure iritzia gutxietsia sentitu duzu inoiz?**

Batzuetan, agian, gaia ez menperatzeagatik; eta egia da gizonek euren txokoa egiten dutela. Baina ez naiz inoiz baztertuta edo gaizki sentitu.

**Enpresetan, eta bereziki industria arloan, nabarmena da kristalezko sabaia?**

Kooperatibetan gero eta gehiago ikusten dira emakumeak postu garrantzitsuetan; baina, oraindik, bide luzea dago egiteko. Nire ustez, komunitate guztietan beharrezkoa da emakumeen ikuspuntua, iritzia eta agintea. Lanan, adibidez, zuzeneko lanean badugu erronka: ez dago apenas



Mirari Zilaurren Laskurain ordenagailuaren aurrealdean. A.E.G.

emakumerik, eta, egon izan diren arren, ikasketa faltagatik edo ez ditugu bazkide egin. Gaur egun, berdintasun programa egiten ari gara, eta erronketako bat hori da. Egunotan ikusten ari garen gerraren eta triskantzaren harira, uste dut emakumeak egongo balira agintean ez ginatekeela horretara iritsiko. **Zer eman dizu, eta zer kendu, presidente karguak?**

Orokorrean, kendu baino gehiago, eman egin dit; baita burukominak ere, hori horrela da. Enpresa batean erabaki garrantzitsuak hartu behar dira; ikuspuntu ezberdinak egon daitezke, gerturatu, adostu... Horretarako gauza izan behar duzu, baina, azkenean, bide bat egiteak ematen duen poztasuna dago.

**Zeintzuk dira zure erronkak?**

Egunero daude erronkak; berruak sortutakoak, estrategikoki landu behar ditugunak. Kooperatiba moduan nora jo nahi dugun; izan ere, Lanan inoiz ez gaude geldirik, beti aurrera jo dugun kolektiboa gara. Beste erronka batzuk kanpotik datozenak dira: pandemia, gerra... Horiek ere kudeatu egin behar dira.

**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*

**Gizartearekin bat berdintasunerantz!**

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

**ausolan**

**Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Gure historia 1969an hasi zen, Arrasateko hamazazpi emakumezkoekin, eta gaur, lantaldearen %95 zarete. Ausolanen, esparru parekideak sortzeko lanean segituko dugu, errespetuzkoak, eta lana eta familia bateragarri egitera bideratuta; horiek bermatuko du gure emakumezkoak langile izatea, baina baita pertsona, ama, alaba, lankide eta lagun ere...

**Gaurko eguna, zuentzat guzientzat!**



# "Pausoak borrokaren bitartez emango dira"

**ANA NOGUEIRAS** ERAIKINETAKO GARBITZAILEA

Duela urte batzuk hasi zen Nogueiras garbikuntzan: lehenengo, ikastolak garbitzen; gaur egun, bulegoak garbitzen ditu. Genero arrakalaren gainean hitz egin du

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE Lan ikusezina egiten dutela dio Nogueirasek: "Inork ez daki bere enpresa edo eskola nork garbitzen duen".

**Eraikinetako garbitzaileen lansaria kale garbitzaileena baino txikiagoa da. Zein da egoera?**

Soldata arrakalaren adibide garbia da gaur egun 7.300 euroko diferentzia dagoela Gipuzkoan kale garbitzaileen –gizonezkoak nagusi– eta eraikinetako garbitzaileen –emakumezkoak gehienak– artean. Datu horretan, gainera, oinarrizko soldata delakoa hartzen dugu kontuan, plus barik. Hala ere, plus horiek nahiko diskriminatzaileak dira. Kale

garbikuntzan plus toxikoak eta arriskutsuak sartzen dira, eta guk ez dugu horrelakorik kobratzen. Nik komunak garbitzen ditut, beste batzuek eskolako laborategia, plastika gela... Hori ez da toxikoa? Gainera, gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakalaren kalkulua androzentrismoa da. Gizonen soldata hartzen da oinarri bezala arrakala kalkulatzeko. Emakumeena hartuko balitz, handiagoa litzateke.

**Zer dela-eta gertatzen da gizonen eta emakumeen arteko lan bereizketa hori?**

Garbikuntzan lan fiskoa hartu izan da kontutan; itxura denez, kalea garbitzeko indarra behar

da... Beharbada, garai batean, makineriarik gabe, horrela izan zitekeen, baina gaur egun ez dauka inongo zentzurik. Ohitura eta kultura matxistak edo irudimen matxistak iraunarazi dituzte joera horiek.

**Mobilizazioetan, lan hitzarmen berria dago eztabaidan. Zelan daude negoziazioak?**

Askotariko mobilizazioak daude; orain, adibidez, Diputazioak kontratatzen dituen garbitzaileak daude greban eta mobilizazioak egiten. Gu ere bagabilta mobilizazio horiek piztu nahian, udalez udal. Udal gehienek dute azpikontratututa eraikinen garbitasuna eta baita kale garbi-



Ana Nogueiras, Aretxabaletan. A.E.G.

kuntza. Arrakalak daude guztietan; beraz, badugu non borrokatu.

**Azken urteetan ze pauso eman dira berdintasunerantz? Eta zer geratzen da egiteke?**

Pausoak borroka bitartez emango dira. Teoria eta errealitatea barneratuta ditugu. Borroka da bide bakarra, eta, zoritxarrez, asko dugu oraindik egiteko.

**M8aren harira, soldata arrakalaren kontra egingo dute politikariek eta**

**arduradunek. Zuk zer eskatuko zenieke horiei?**

Martxoaren 8ko diskurtso handi horiek bakoitzak bere arduratan txertatzeko. Egun batean ezin da emakumeekiko elkartasuna erakutsi eta hurrengo egunean gure lan baldintzak hobetzeko ezin dutela ezer egin esan. Pentsatzen duzunarekin eta esaten duzunarekin koherentea izan behar da. Hipokrisia galanta dago.

**FAGOR**

**M8**  
Berdinetik, berdinerara  
geuri ere badagokigulako

# "Ogibideari bestelako balioa ematen diogu"

**AINHOA CALONGE AGUAZILA**

Antzuolako aguazila da Calonge. Kale garbitzaile nahiz brigadako langile ere jardun du. Dio emakumeek bestelako balio erantsia ematen diotela ogibideari



Ainhoa Calonge auto bati isuna jartzen. MAIDER ARREGI

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Ainhoa Calonge oreretarrak hiru urte daramatza Antzuolako aguazil lanetan. Ingeniaria da, eta "gizonekoen lan-eremu" gisa hartuak izan diren ogibideetan ondo moldatu dela dio.

**Nola hartu zaituzte herritarrek?**

Emakumea naizen aldetik, ez dut aparteko arazorik izan; esango nuke ondo hartu nautela, eta hasiera-hasieratik integratuta sentitu naiz. Nola deitzea nahi nuen ere galdetu zidaten: *aguazil* edo *la aguazil*; kar-kar.

**Aguazilak brigadako lanak ere egin behar ditu. Ondo moldatu zara?**

Aguazil lanetan baino gehiago, brigadako lanetan igarri dut

nirekiko zalantza hori. Lankideak gizonetzkoak izaki, noiz edo noiz galdetu didate ea gai izango naizen lanen bat edo beste egiteko. Nik beti esaten diet: "Zu gai bazara, ni zergatik ez?".

**Kale garbitzaile lana, ordea, gizonetzkoen zeregin gisa hartua izan da.**

Udaletan lanean hasi nintzanean, kale garbitzaile lana gizonetzkoen lana zela esaten zen. Indarrarekin erlazionatzen zen orduan kale garbiketara. Baina indarra baino gehiago, teknika kontua da, eta ogibidea ondo ezagutzea. Lurra garbitzea, gainera, emakumeekin lotu izan da... Alde horretatik, harritu egin nintzen.

Brigada lanerako nahiz aguazil izateko, indarra baino gehiago, ogibidea ezagutzea da gakoa.

**Udaletan aldaketa badator. Antzuolan, brigadan emakumeak daude lanean.**

Gaur egun, nolabaiteko babes ematen zaie emakumei. Oposizioetan ere balioa ematen zaio eta puntuatu egiten da. Indarkeria matxista kasuetan ere aintzat hartzen da. Instituzioen aldetik hasiak gara emakumeen aldeko jarrerak ikusten. Antzuolan geroz eta emakume gehiago ikusten dira brigadan lanean. Demostratzen ari gara ahal dugula, eta zergatik ez? Sasoi batean, Ertzaintzan nahiz udaltzain

izateko oso emakume fuertek ikusten ziren, eta ez da indarririk behar. Zorionez, emakumeek bestelako sentsibilitate bat ematen diogu ogibideari; gizonetzkoek eman ezin dezaketen beste balio erantsi bat ematen dio polizia lanbideari. Enpatia edo sentimendu horrek talde lanean jarduten laguntzen du, eta taldea osatzen du modu oso positiboan. Emakumeek badituzte balio batzuk agian gizonetzkoek ez dituztenak landu edo gizarteak ez dizkienak utzi garatzen. Emakumeok, aldiz, balio horiek ba-

ditugu eta lantaldearen osagarri dira.

**Obretan ere lan egindakoa zara.**

Bai, eta ez naiz inoiz gutxietsita sentitu. Gainera, soldata arrakalarik ere ez dut sumatu, gizonetzkoen berdina kobratu izan dut eta.

**Atzerrian lan egin duzu; kultura aldaketarik igarri duzu?**

Bai. Errumanian lan egin nuen, eta ikusten da pentsaera atzerakoiagoa dutela. Hemen, lan asko egiteko dagoen arren, geroz eta urrats gehiago egiten ari dela gizartearen esango nuke.

**MARTXOAK 8**  
ELKARREKIN BERDINTASUNA ERAIKITZEN

**ikerlan** MEMBER OF  
BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

[www.ikerlan.es](http://www.ikerlan.es)



Parekidetasunaren alde

**EROSKI**  
ARRASATE

# "Geure burua maitatzeak ahaldundu egiten gaitu"

**AMAIA TXABARRI** ARRASATE

Catarsi Feminista, argazkigintzaren bidez transmititutako sormen-espazio kritikoa, gaur aurkeztuko dute, gaztetxean. Gorputz aniztasunetik lan egitea du xede

**Maidar Arregi** ARRASATE

Catarsi Feministak sarean da goeneko eztanda egin du; gaur, ordea, Arrasateko gaztetxean gorputzuko dute ekimena 19:00etan. Amaia Txabarrri arrasatearra da sortzailea.

**Zergatik jaio da Catsarsi Feminista?**

Filmatze espazioen eszenatokiak sortzen jarduten dut, eta mugimendu feministako kide ere banaiz. Ogibidearen eta mugimendu feministaren parte-hartzetik sortutako grinatik eta kezkatik sortu da Catsarsi Feminista. Espazioaren esku-hartze artistikotik eta emakume zein pertsona ez-bitarrek gizartean bizi ditugun desberdintasun,

zapalkuntza eta diskriminazioak oinarri hartuta, alegia. Catsarsi Feminista argazkigintzaren bidez transmititutako sormen-espazio kritikoa da. Alde batetik, kolore biziak eta irudi transgresiboak modu deigarri eta kataritikoak ezaugarritzen ditu proiektuak. Bestalde, samurtasuna eta norbere buruaren maitasuna dira lanaren oinarritzko elementuak.

**Gorputz patroietatik kanpo dauden zortzi emakume batu dituzu.**

Helburuetako bat da gorputz aniztasunetik lan egitea. Gorputz guztiak erakutsi nahi ditugu, ez inposatutako arau estetikoetara hurbiltzen direnak soilik: lodiak

direnak, ile zuriak eta zimurrak dituztenak, iletsuak direnak... Errealitatea erakutsi nahi dugu. Txikitatik presio estetikoak eta genero estereotipoak inposatzen zaizkigu eta honek errotik zeharkatzen gaitu. Beste gorputz mota batzuk daudela eta gure gorputzetan ezer gaizki ez dagoela ulertzeak gudan ahalduntze prozesu bat sortzeko aukera zabaltzen du. Gai desberdinak landu ditugu: lodifobia, ahalduntzea, patriarkatua... Katarsia eragin nahi dugu patriarkatuak eta heteroarauak beraien inposizioak sustatzen dituen esparruetan; hala, eraldaketa sozialerantz bidea egin nahi dugu.

**Emakunderen kanpainak edertasunaren estereotipoa du jomuga.**

Bai; guk ere landu ditugu feminismitik landu daitezkeen alor guztiak. Argazkilaritzaren esparruan, esaterako, presio estetikoak eta lodifobia lantzen ditugu, bai. Garrantzitsua da guretzako. Errealitate eta nortasun desberdinak kontuan hartuta, gorputzen aniztasunen errealitate desberdinen ikusgarritasunerako gune izan nahi duen

dibulgazio feminista proiektua sortu dugu.

**Argazki saioetan zelako giroa izan duzue?**

Momentu hunkigarri asko bizi izan ditugu. Ikaragarria izan da saio bakoitzean 18 bat emakume batera lanean ikustea, nire lan munduan ez da ohikoa emakumez sorturiko lantaldeak ikustea. Giroa, lan egiteko modua eta elkarren arteko laguntasuna bizitzea polita izan da.



Amaia Txabarrri, gaurko aurkezpena gertatzen. A.T.

Feminismoak batzen gaitu  
**MARTXOAK 8**

OÑATI  
dabilen herria

**8 M 2022**

Berdintasunarekin bat!

ULMA

**goiena<sup>M8</sup>**

# Landaola saria jaso dezake eskolak gaur

Elgetako eskola komunitateko 'Hamaiketako osasungarriak' proiektua Landaola saria jasotzeko hautagaietako bat da, erakunde publikoen multzoan. Azaroan jarri zuten proiektua martxan: eskolako umeek ogia eta fruta izaten dute hamaiketakoan

## Arantzazu Ezkibel Galdos ELGETA

Elgetako eskolako Maala guraso elkarrekin bultzatuta ekin diote eskolan hamaiketako osasungarriak banatzeari. "Eskolako jangela eraldatzeko prozesuan, familiendako elikadura tailerra egin genuen, eta handik irten zen ideia. Elikadura osasungarriago baten alde egite aldera, ume guztiek hamaiketako berdina izatea, osasuntsua izatea, bertako produktuen alde egitea eta ahalik eta hondakin gutxien sortzea izan dira helburuak", azaldu du guraso elkarreko Ikuska Lizarralde.

Proposamena gainerako gurasoaren artean zabaldu, eta ondoren eskolako kontseilura eraman zuten. Eskolako organo gorenak baiezkua eman zuen, eta azaroaz geroztik ari dira hamaiketako osasungarria banatzen eskolan.

## Ogia eta fruta

Eskolako familia bakoitzak kuota bat ordaintzen du hilero –ume bakoitzeko 6 euro–. "Oraindik ez gara hasi kuotak kobratzen; asmoa da hiru hiletik behin egitea. Gainera, beka dutenek Udalaren laguntza jasoko dute kuota ordaintzeko, %70ekoa", azaldu du Lizarralde.

Eskolak dituen 124 umeek jasotzen dute egunero hamaiketakoan.



Eskolako umeak fruta banatzen. ELGETAKO ESKOLA

## AZAROAZ GEROZTIK, UMEEK OGIA ETA FRUTA JATEN DUTE EGUNERO HAMAIKETAKOAN

takoa. "HHko umeen artean gelako ekintza bat gehiago da", azaldu dute eskolako zuzendaritzako kideek. Ogia eta fruta banatzen dute: "Hasi ginen astean behin ogia jasotzen eta gainerakoetan fruta; baina, ogiak izan

duen harrera ona ikusita, orain, astean bitan jasotzen dugu ogia". Kontsumo taldera ogia ekartzen duen Lurretako Patxikobaso okinak ekartzen du ogia, eta bera arduratzen da xerrak mozteaz. Fruta, aldiz, Ereindajanekek ekartzen du.

## Proiektu bizia

Ereindajaneke Ainhoa Narbairak hauxe dio: "Eskolaren partetik borondate handia egon da eta komunitateak benetan sinistu du ekimena bultzatzeko orduan". Fruta aukeratzera, ekoizleen gertutasuna kontuan izaten dute: "Platanoarekin hasi ginen, baina urrunetik ekarri behar denez, utzi egin dugu; zitrikoak ekartzen ditugu Valentziatik zuzenean, sagarrak bertakoak, madariak eskualdean ez badaude Nafarroatik ekartzen ditugu...". Gaineratu du alergiaz kontuak direla eta asko zaindu behar dutela ze fruta eskaini. Ogiarekin olioaz gain, gazta, marmelada eta bestelakoak eskaintzea aztertzen ari dira.

Lizarralde nabarmendu nahi du talde irekia dela eta gurasoaren proposamenak entzuteko prest daudela.

## Elkarretaratzea eta ipuin kontaketa saioa martitzenean

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira, Dorleta Kortazarrek '80 amandre' doako saioa egingo du

### A.E.G. ELGETA

*Zapaltzen gaituen sistemari sua!* lelopean aldarrikatuko dute Emakumeen Nazioarteko Eguna Elgetan. Elkarretaratzea eta doako ipuin kontaketa saioa egingo dute.

Azken urteetan egin izan den moduan, Udalak deituta elkarretaratzea egingo dute Martxoaren 8an, Mendizaleen plazan, 19:30ean. Horren aurretik, Dorleta Kortazar ipuin kontalaria saioa egingo da, 18:00etan, liburutegian. *80 amandre* helburtutako ipuin saioa eskainiko

du eskoriatzarrak. Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi zuten emakumeen istorioak dira Kortazarrek kontaketa saioa egingo duenak. "Esku zailduak, sabel puztuak, begirada galduak eta, batez ere, irribarrea begietan duten amandreak, amamak, amonak, amaxiak, amumak". Jorge Oteizaren esanetan, 80 amandre behar dira antzinaroa orainaldiarekin lotzeko; hala, Kortazarrek lau amandre ekarriko ditu. Ipuin kontaketa saioa doan izango da.



AMAIA OLARIAGA

## Oroimena lantzen ibili dira

Azaroan hasi eta joan den eguaztenera arte, astero egin dituzte memoria tailerreko saioak hamar bat nagusik. Ariketen bitartez oroimena, arreta eta hizkuntza landu dituzte. Tailerraren helburua lehen ahanzturak atzeratzea edo hobetzea izan da. Nork bere etxean egiteko moduko teknikak ere ikasi dituzte.

## Kantsatzekek Arkaitzera irteera eta bazkaria egingo du

Martxoaren 20an izango da mendirte irteera. Arantzazutik Arkaitzera igoko dira, eta ondoren, Zerainera jaitsi. Han, Oiharte sagardotegian bazkalduko dute. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a izango da. Prezioa: 35 euro bazkideek eta 40 bazkide ez direnek. Soilik mendira joateko aukera ere egingo da –adierazi izena ematerakoan–.

## Antzerki inprobisatu ikastaroa egingo dute bihar Elgetan

Bihar, zapatua, antzerki inprobisatu tailerra egingo dute, Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta. Egoitz Aizpuruak inprobisatuko antzerkia egiteko oinarrikoak diren teknikak erakutsiko ditu. 16 urtetik gorakoendako tailerra izango da: 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara egingo dute. Prezioa: 60 euro.

## Bosgarren Landaola sariak

Landaola federazioak bosgarren Landaola sariak banatuko ditu gaur, egubakoitza, Azpeitian –12:00etan–. Gipuzkoako landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen elkarrekin banatzen ditu Landaola sariak, eta horren barruan daude Gipuzkoako sei landa garapen elkarte; horien artean, Deba Garaia. Erakunde publikoen multzoan –beste bost proiektuekin batera– hautagai da Elgetako eskolak Ereindajanekek elkarrekin batera abian jarritako proiektua. Ekimenaren helburua hartu dute kontuan hautagaitza izendatzerakoan.

Erakunde pribatuaren sarirako hautagaien artean dago, beste bostekin batera, Arrasateko Ainara Abasoloren Irrika Gluten *free bakery* proiektua.



Bergara 2030 egin herrixa planaren bozketa: EH Bildu alde (9), EAJ kontra (6) eta PSE-EEren abstentzioa (1). JOKIN BEREZIARTUA

# 2030eko Bergara irudikatzen plana aurrera, oposizioaren babes barik

Udal Gobernuaren '2030 egin herrixa plana' onartu du udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin (9), EAJren kontrakoekin (6) eta PSE-EEren (1) abstentzioarekin; Martxoaren 8ko adierazpena eta zaugarriei digitala ez den arreta bermatzeko mozioa, aho batez aurrera

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Bergara 2030 egin herrixa* plana onartu zuen udalbatzak astelehenean. Agenda 2030eko "garapen jasangarrirako helburuak" hartu ditu Udal Gobernuak oinarri moduan plan estrategikorako. Helburu horien artean daude, besteak beste, pobrezia, klima larrialdia, genero berdintasuna, hizkuntza eta kultura aniztasuna, eta industriaren garapena. EH Bilduren aldeko botoekin (9) –bajan dagoen Gorka Artolak jarduneko alkate Ainhoa Leteri delegatu zion botoa–, EAJren kontrakoekin (6) eta alderdi sozialistaren (1) abstentzioarekin onartu zen.

EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurrategiren arabera, "harro" daude plan horri begira egindako lanarekin: "Harro gaude egin dugun bidearekin. Parte-hartze handia izan da prozesuan

**"HARRO GAUDE EGIN DUGUN BIDEAREKIN; PLAN INDARTSU BAT DUGU BETETZEKO"**

NAGORE IÑURRATEGI, EH BILDU

zear eta 2030ko Bergarako nolakoa izan behar den irudikatzen eta horretarako helburuak zehazten lagundu diguten eragile, elkarre eta herritarrei esker ona adierazi behar diegu. Izan ere, prozesuan parte hartu nahi izan duten guztiarekin aritu gara lanean; horregatik, balorazio ona egiten dugu. Plan indartsua dugu esku artean eta datoen urteak ditugu orain aurretik plan hori aurrera eramateko". EAJko Irune Galarragak honako azalpen hau eman zuen euren kontrako botoa azaltzeko: "Hasieratik mahai-gaineratu genuen ez geundela ados iritzietan eta prozeduretan. Gobernuak esan duenez, partaide-tza prozesu garrantzitsua gauzatu da; ulertzen dugu partaide-tza egon behar dela, baina beste atal batzuk ere landu behar dira. Horietako bat da, gure ustez, azterketa sozioekonomikoa egitea, pandemiak egoera asko aldatu duelako eta komeni delako gaur egungo egoeraren ahalik eta argazkirik zehatzena izatea, eta hortik aurrera egitea lanke-ta". PSE-EE abstenitu egin zen: "Ez da gure plana, baina ez dugu oztopatuko".

**Digitala ez den arreta eske**

Aho batez onartu ziren, era berean, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoaren 46. urteurrenaren testuinguruan haren aldeko adierazpen instituzionala, Martxoaren 8a dela-eta udal taldeek aurkeztutako Eudel-en adierazpen instituzionala, eta kontsumitzaile zaugarriari arreta pertsonalizatua ematearen inguruan hiru taldeek aurkeztutako mozioa.

Azken hori alderdi sozialistaren proposamena izan da, hiru taldeak "hasieratik" ados jarri dituen: "Abisu edo atentzio dei bat eman nahi genien digitalizazioaren mantran erori ohi diren enpresei, banketxeei edota udalei, digitalizazioa egon daitekeen biderik onena moduan ulertzen dutenei. Horiei guztiak gogoratu behar diegu herritar zaugarri asko dagoela ez dena gai mundu digi-

**"HASIERATIK ESAN GENUEN EZ GEUNDELA ADOS IRITZIE TAN ETA PROZEDURETAN"**

IRUNE GALARRAGA, EAJ



Langile bat belarra moztzen Agorrosin futbol zelaian. JOKIN BEREZIARTUA

## Agorrosinerako tramitea, aho batez

Agorrosingo futbol zelaiko lanak egin ahal izateko BK Erek hitzarmen eguneratua aho batez onartu zuen udalbatzak, eta belar naturala kendu eta artifiziala jartzeko lehen faseko lanak udan gauzatzea dago aurreikusita. Osoko bilkuran nabarmendu zuen Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek urte luzez jabetza pribatukoa izan den eremu bat berreskuratuko duela herriak: "Futboleko egiteko egoera nabarmen hobetzeaz gain, eremu esanguratsu bat irabaziko dugu bestelako kirol jarduerak batzuetarako". Lanak martxoan zehar adjudikatu nahi ditu Udalak eta bi aldeek nahi dute lanak udan zehar gauzatzea. 2022-2023 denboraldian bi zelai artifizial izatea nahi du BKEk: "Ez bada lehen jardunalditik, izan dadila iraila amaieratik edo urri hasieratik. Ipintzako saturazioari buelta emango genioke bi futbol zelai izanda, asko irabaziko genuke".

tal horretan murgiltzeko, eta bestelako bide batzuk eskaini behar zaizkiela. Izan ere, halako ekimen sozialetako asko ez dira Excel-eko kutxa baten sartzen eta horregatik beharrezkoa da herritar multzo horiek atzean geratu ez daitezen lanketa egitea, sortzen ari garen arrakala digitala salbatzen ari garena baino handiagoa izan daitekeelako", adierazi du PSE-EEko Alberto Alonsok. Onartutako mozioan jasutzen da, besteak beste, Udalak "konpromiso irmoa" hartzen duela adineko pertsonen edo desgaitasuna duten edozein adineko pertsonen udaletxean egin behar izaten dituzten tramiteetan haien premiak aintzat hartzeko.

**Ukrainako gerra ere hizpide**

Azkenik, galdera eta eskaeretan Alberto Alonsok mahai-gaineratuta, Ukrainak bizi duen egoera ere izan zuten hizpide udalbatzan. Hurrengo batzordean gaia landuko dutela adostuta, hiru taldeek salatu zuten Ukrainako gerra. Alonsok berak nabarmendu zuen Ukraina Bergararik oso gertu dagoela une honetan: "Ukraina oso gertu

dago Bergararik, jokoan dagoena demokraziaren, elkartasunaren eta bakearen oinarriak direlako. Ate bat ireki dugu ez dakiguna noiz eta nola itxiko den eta hori ez da bakarrik ukrainarren edo errusiarren ardura, gurea moduko gizarte libre eta demokratiko baten bizi garen guztion ardura da". EAJk Errusiako presidentea Vladimir Putinen jarrera salatzen du: "Putinen jarrera salatzeaz gain, Errusiako tropa inbaditzaileek Ukraina lehenbailehen uztea eskatzen dugu". EH Bilduk elkartasuna adierazi die biktimei: "Elkartasun osoa adierazi nahi diegu gerran dauden biktimei eta Ukrainan lagunak edota senideak dituzten bergararrei; adierazpen baterako adostasuna lortzeko jarriko gara baina gaia oso konplexua denez tentuz hartu nahi dugu".

**"EZ DA GURE PLANA, BAINA ERABAKI DUGU, ORAINGOZ, EZ OZTOPATZEA"**

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

# Arrizuriaga eraldatzea, asmo nagusien artean

Egonkortze lanak egin eta parte hartze prozesua abiatuz, kultur topagune bilakatu nahi dute Arrizuriaga. 'Bergara izan, bizi, ekin' eta 'Bergara 2030 egin herrixa' planen baitan, asteon aurkeztu ditu 2022ko egiteko nagusiak Udal Gobernuak

**Jone Olabarria** BERGARA

2022an egiteko aurreikusitako proiektu handi nagusitu dituzte: dagoeneko martxan dagoen Zubieta eta Masterreka kaleak berrurbanizatzea eta Arrizuriagan kultur proiektua garatzea. Horiekin batera landu gura dituzten beste 56 egitekorekin batera, une honetan Larramendi auziak eta Boluko maldak ere aurreikuspenen artean leku garrantzitsua dutela aitortu dute.

## Arrizuriaga, kultura topagune

Arrizuriaga jauregian herritarrekin batera egin nahi dute kultura proiektua: "Eraikinarren ondare izendapenarekin gorabehera batzuk izan ostean, eta adjudikazioa eginda, ekainerako hasi gura da lanekin. Paraleloan egingo dira parte-hartze prozesuarekin batera. Teilatua konpondu eta barruan espazio diafanoak sortuko dira, ostean horien erabilera askotarikoa izateko, besteak beste". 593.000 euroko aurrekontua du.

Zubieta-Masterreka ardatzaren berrurbanizazioari dagokionez, lanak "martxa onean" doazela zehaztu du jarduneko alkate Ainhoa Letek. Horiekin batera, mugikortasun azterketa lantzen ari direla ere adierazi dute, eta "laster" aurkezteko asmoa dutela, lehentasunak zehaztu ostean.

## Ortu komunitarioak, udarako

San Martzialera bidean, guztira, 90 partzela izango direla azaldu dute, eta ekainerako prest egotea aurreikusten dute: "Obrak hasteko daude eta erabilera irizpideak zehazten gabiltza. Oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko bi bide moldatuko dira, baita lau aparkaleku ere, zama-lanetarako". Proiektuaren lehen aurkezpenen "interesdun asko" izan ziren, eta behin baldintzak zehaztuta horiekin eta interesdun



2012a ezkerreko itxita, teilatua konpondu eta espazio irekiak sortuko dira. J.B.

## ZEHAZTUTAKO PLANEZ GAIN, BOLUKO MALDA ETA LARRAMENDI AUZIA ERE "GERTUTIK" JARRAITUKO DITUZTE

berriekin harremanetan jarriko direla azaldu dute.

### San Joxepeko arreta zentroa

Dependentzia apala duten adinekoentzako zentroak gehienez hamabi pertsonendako lekua izango du. Mankomunitateko gizarte mapatik eratorrita, erabilera irizpideak ezartzen ari direla zehaztu dute, eta behin horiek finkatuta martxan jartzea da asmoa. Udal zerbitzu bat izango dela azaldu dute, baina zerbitzuaren kudeaketa enpresa pribatu bati esleituko zaio.

### Auzoetan hainbat lan

Herriguneko proiektuez gain, auzoetan ere hainbat lehentasun finkatu dituzte. Horien artean dago *Osintxu bizi* plana: "Premiak aztertzeke mahai bat eratu eta zenbait ekintza gauzatu dira. Kudeaketa publiko-pribatua du,

Soraluze enpresak ere parte hartu eta bere fondo soziala bertara bideratuko du".

Buruñaoko bidegurutzearen segurtasuna bermatzeko asmoz, bidegurutzea ordenatzeko lanak egingo dituzte. Bestalde, gauzatzeko dirulaguntza baten zain dauden arren, Elosuko frontoian ere konponketa lanak egin gura dituztela azaldu dute, "erabilera askotariko gunek bat izan dadin".

### Boluko malda eta Valogreene

"Une honetan nobedaderik ez dagoen arren" aurtengo planen artean jarraipen berezia izango dutenak direla azaldu dute. Boluko maldari dagokionez, lurra jabe nagusi Murua Balzola fundazioarekin akordiora iritsi gabe, eta "egoera emergentziakoa" izanda, bigarren faseko egonkortze lanak Udalak hartuko ditu bere gain.

Gainerakoan, eta beste askoren artean, ziburuak jarri nahi dituzte Martinez de Iralako karpan, Ehunduren bulegoa Mizpildi kalean finkatuko dute, Azoka biziberritzeko plana garatuko dute eta ur-jolasak jartzeko prozesua abiatuko dute –ez dira aurtengo udarako egongo–.

## GORA ETA BEHERA




### Beira edukiontzia gainezka, eta zaborra lurrean

Herritar bat behin baino gehiagotan kexatu da Ozaeta kaleko beira edukiontzia ezin delako erabili. Goraino beteta dagoela eta jendeak botilak eta beirazko edukiontzia lurrean lagatzen dituela salatu du. Zaborra eta edukiontzia maizago jasotzea eskatu dute auzotarrek.

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo [688 69 00 07](tel:688690007).



GOIENA

### Telefonoak interesa dutenen artean zozketatuko dituzte

Bergarako Udalak hainbat telefono berrituko ditu, eta oraindik ere erabilgarri dauden gailuak herritarren artean zozketatzea erabaki du. Zozketan parte hartzeko interesa duten herritarrek eskaera bete eta aurkeztu beharko dute. Martxoaren 11 da zozketan parte hartzeko eskaera egiteko azken eguna. Bergaran erroldatutako pertsona fisikoek,

irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoek zein Bergaran egoitza duten pertsona juridiko, kultura edo kirol elkarteek, herri-taldeek edo ongintzako elkarteek –ikastetxeak barne– izango dute eskaera aurkeztu aukera.

Horretarako, *F0169B* inprimakia bete beharko da Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean. Bi aukera daude: udaletxeko *B@Z* bulegora bertaratuta edo telematikoki udal webgunearen bitartez.

## OHARRAK

### Erramu Zapatuko postuak jartzeko eskaera

Apirilaren 9an, Erramu Zapatua, ganadu azokan, Oxirondo plazan edo San Martin plazan postua jartzeko eskaera epea martxoaren 7ra arte da. Udalaren webgunean eskuragarri dagoen inprimakia bete, eta udaletxeko *BAZ*en edo [ferixabergara@bergara.eus](mailto:ferixabergara@bergara.eus) helbidean aurkeztu behar da, dagokion dokumentazioarekin batera.

### 'Zinegoak', Seminarixoa martxoaren 9an

Zinegoak jaialdiarekin udalerrietara zabaldu gura dira LGTBIQ+ gaiak lantzen dituzten film laburrak eta dokumentalak. Helburu horrekin, martxoaren 9an, eguaztena, iritsiko da jaialdia Seminarixora, 20:00etan hasita. Sarrerak webgunean daude salgai, hiru eurotan.

### 'Luze edo motz' bakarrizketa Osintxun gaur

Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregarainen bakarrizketa umoretsua Osintxuko Txuringo jatetxean egongo da ikusgai gaur gauean, 22:00etatik aurrera. Hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izango dituzte hizpide, besteak beste, kritika eginez, deseraikiz eta barre eginez bazterrak zirikatzen jarraitzeko.

# "Oraindik euskara ez da ohikoa notariotzan"

**MARIA LONGARTE ULAZIA** NOTARIOA

Bergarako notario berria da Longarte. Azken urteetan "herritarrak babesteko" hartu diren neurriak eta notariotzako operazioak euskaraz egin ahal izatea goraiatu ditu.

**Uxue Igarza Loiola** BERGARA

Maria Longarte Ulazia tolosarra da, eta 2020an hasi zen notario lanetan, Seguran. Bailaraz aldatu du orain, eta "oso gustura" dagoela adierazi du.

**Zer moduz Bergarako notariotzan?**

Denbora gutxi daramat, otsailaren lehen hasi nintzen, baina oso gustura nago. Mugimendu dezente topatu dut hemen; azken finean, harreman estua dago erabiltzaileekin eta enpresekin. Inguru potentia da.

**Zaila al da notario izatera iristea?**

Sartzeko oposizio bidezko prozedura bat egin behar da; gai-tegi mardula ikasi behar da, eta ahozko bi azterketa eta azterketa praktikoa bat egin behar dira. Ondoren, hutsik dauden plazar hartu ahal izateko, zerrenda bat osatzen da. Behin bertan, antzinatean hartzen da kontuan. Nire kasuan, Bergaran zegoen pertsona bat Huescara joan da, eta, bakante bat zegoenez, nik eskatu dut.

**Ez da ohikoa izaten notarioek euskaraz artatzea, ezta?**

Ez da batere ohikoa, eta, egia esan, asko eskertzen dute bezeroek. Bai Goierrin eta bai Debagoienean ezinbestekoa da herritarrek beraien hizkuntzan jarduteko aukera edukitzea.

**Horrek zaildu egiten du prozedura?**

Ez. Egun, agiriak eta bestelako testu juridikoak euskaraz eskatu daitezke. Baina egia da oraindik pauso asko eman behar direla alor horretan. Gainera, jende askok nahiago du halakoak gaztelaniaz irakurri. Dena den, euskal hiztuna izanez gero eta gai juridikoak menperatuz gero, ez dago inolako zailtasunik.

**Herritarrek aukeratu dezakete euren notarioa?**

Jendeak ohiturarengatik edo gertutasunarengatik herriko notarioarengana jotzen du, baina, mediku edo abokatuekin egin daitezkeen moduan, notarioa ere aukeratu egin daiteke. Hori



Maria Longarte, Bergarako notario berria, Arrasaten. JOKIN BEREZIARTUA

## "IAZ, LEGE BERRIA ONARTU ZEN, ADIMEN GAITASUN MUGATUA DUTEN PERTSONAK BABESTEKO"

bai, salbuespen batzuk daude: dibortzioak, ezkon aurretiko kapazitate aktak... Baina denok ezagutzen ditugun gestioak edozein notariotzatan egin daitezke. **Zeintzuk dira operazio ohikoak?** Norbanako edo pertsona fisikoen, erosketak eta hipotekak dira arruntenak, eta baita herentzia eta testamentu kontuak ere. Eta enpresen munduan, estatutu aldaketak, administratzaileak, botereak ematea...

**Pandemiak baldintzatu egin du zuen alorra ere?**

Nahiko egonkor mantendu dira operazioak, baina egia da pandemiaren eraginez lurren salerosketei lotutako operazio gehiago egin ditugula.

**Zenbait lege aldatu dira azken urteetan; horietako bat, maileguena.**

Bai, 2019ko maileguen lege horren helburua bezeroa babestea da. Azken finean, bankuak zenbait

baldintza inposatzen ditu, eta bezeroa egoera zaurgarrian egon daiteke. Hala, legeak mugak jartzen dizkio banketxeari, eta notariook baldintza guztiak aztertzen ditugu bezeroarekin.

**Desgaitasun egoeran daudenentzako neurriak ere hartu dira, ezta?**

Bai, adimen gaitasun mugatua dutenak babesteko lege berri bat dago abian iazko irailaz geroztik. Erabaki pertsonal edo ekonomikoak eurek hartzea da helburua, hirugarren pertsonen euren partez erabaki beharrean. Horretarako tutoretza arunt baten orde, kuradore bat ezarri eta beraien borondateak zehazten laguntzen zaie notariotzan. **Bolo-bolo dabil testamentu solidarioaren gaia ere. Zer da?**

Bai, geroz eta gehiago entzuten dugu. Gure testamentuan gobernu kanpoko erakundeetara bideratutako legatu txiki bat jartzean datza: Gurutze Gorriarentzat, Unicef elkartearentzat... Jende asko etortzen zaigu bere ondarearen zati bat gainerakoei laguntzeko bideratu nahi dutela esanez, baina ez dakitela nola egin. Guk gomendioak ematen dizkiegu hori egin ahal izateko.

## Martxoaren 8a hilabete osora zabalduko dute bergararrek

Gaurtik hilaren 27ra arte, filmak, mobilizazioak, kultur emankizunak eta beste hainbat ekimen antolatu dituzte

**U. I. L. BERGARA**

Begarako eragileek eta Udalak egitarau zabala osatu dute Martxoaren 8aren bueltan, eta gaur bertan egingo dute lehengo ekimena. Bestetik, bailarako gainerako mugimendu feministekin bat eginda, agerraldia egin dute asteon feminista bergararrek (Ikus. 2.orria).

Gaur, hilak 4, *Hive* helduentzako pelikula eskainiko dute Seminarixoa, eta biharko bi ekimen daude programatuta: 10:30etik 12:30era, Shotokanek antolatuta, 14 urtetik gorako emakumeentzako defentsa pertsonalerako doako ikastaroa izango da -Agorrosinen eman behar da izena-, eta, bestetik, 20:00etan, *Sexberdinak* antzezlan eskainiko dute Seminarixoa.

Domekarako, berriz, 17:00etan, haurrentzako *Ainbo* filma emango dute Seminarixoa, eta 19:30ean, *Hive* eskainiko dute berriz. Pelikula horrek hirugarren emanaldi bat ere izango du, astelehenean, hilak 7, ordu eta leku berean. Horrez gain, astelehenean, 12:00etan, Duintasuna taldearen kontzentrazioa izango da San Martin plazan.

**Manifestazioa Martxoaren 8an**

Emakumeen Nazioarteko Egunerako, Martxoaren 8rako, Martxanterak talde feministak manifestazioa deitu du. 19:30ean abiatuko da, San Martin plazatik. Horrez gain, Bedelkarrek antolatuta, herriko merkatariak maskara moreak banatuko di-

tuzte, "elkarrekin geldiezinak" diren ideia sustatzeko.

**Hilabete bukaerara artekoak**

Martxoaren 8tik hilabete bukaerara arte ere zabaldu dute egitarau morea. Asteazkenean, hilak 9, *Zinegoak* film laburren emanaldia egingo dute Seminarixoa, 20:00etan, eta egubakoitzean, Leire Moñux musikariak kontzertua eskainiko du, ordu eta leku berean.

Bukatzeko, hilaren 11tik 27ra bitartean, Bergarako emakume artisten erakusketa egongo da ikusgai Aroztegi aretoan. *Bertatik bertara, emakume baserri-tarren bizitza* du izena.

**Urratsak egiteko konpromisoa**

Otsailaren 28ko osoko bilkuran, adierazpen instituzionala onartu zuen udalbatzak, aho batez. Berdintasun-politikak garatzeko "baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak" indartuko dituztela adostu dute alderdiek, eta administrazioko langileen "barne-prestakuntza" bultzatuko dutela. Horri lotuta, "indarkeria matxista jasan dutenei arreta emateko sistema" indartuko dutela adierazi dute. Bestalde, herritarrei begira, "sentsibilizazioan sakontzea" eta "emakumeak ahalduzko neurriak garatzen jarraitzea" dira asmoak, besteak beste.

Berdintasunerako legearen aldaketak "berdintasun politikak indartzea" ekarriko duela ere azaldu dute udal adierazpenean.

## "Estatu sozialista", Itaiaren aldarri

Martxoaren 8aren inguruko adierazpena kaleratu du Deba bailarako Itaiak, eta bost ideia nagusi azpimarratu nahi izan dituzte. Pandemiaren testuinguruan, emakumeen lan baldintzek "okerrera" egin dutela eta zaintza lanen zama "areagotu" egin dela salatu dute. Bestetik, "erakundeen aurpegi zuriketa" eta "hipersexualizazioaren normalizazioa" ere gaitzetsi dituzte. Finean, azaldu dute "estatu sozialista" dela "emakume langileen zapalkuntza gainditzeko bermea".

Gaur, 19:00etan, hitzaldia egingo dute kartzela zaharrean, eta, ostean, kontzertuak: Uda-Azken, BassAgain Sound System eta Maixa eta Makalias. Martxoaren 8an, berriz, manifestazioa egingo dute, 19:00etan, Bergarako San Martin plazatik.





Kusmin handia piztu zuten moja zahar gazteek Aratuste-zapatuan; *Santa Kiwi* santuari gorazarre egiten aritu ziren egun osoan. N.M.

# Aratusteen fededun dira bergararrak oraindik ere

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, bereziki gogotsu hartu dituzte bergararrek Aratustea, eta, batez ere, zapatuan sekulako giroa izan zen kaleetan; kontzertua eta erraldoien kalejira itzuli dira eta herriko hiru ikastetxeek ere hartu dituzte kaleak

## Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak eragindako ziurgabetasunak ez du denbora-margina handirik utzi mozarroak eta karrozak prestatzeko, baina pandemiak berak eraginda bergararrek inoiz baino gogotsuago heldu diete aurtengo Aratusteei; zapatuan, bereziki. Zapatu eguerdian Irala kaleak erakusten zuen argazkia ikustea besterik ez

dago herritarrek gozatzeko zuten gogoaz jabetzeko. Askotariko mozarroen artean, arrakasta berezia izan zuen moja zahar gazteen paperean irten zen koadrillak, *Santa Kiwi*-ri gorazarre egiteko; herritar askok atera zizkieten argazkiak, eta protagonistek eurek komentuaren atarian atera zuten eguneko argazki ofiziala. Euren otoitz

propio eta guzti aritu ziren kaleak alaitzen: *Gure ama infernuetan zerana, Santa Kiwi izan bedi zure izena, etor bedi zure akelararrera, egin bedi zure nahia, zerbeza eskuan, aske eta libre.*

## Kontzertua eta erraldoiak

Aratusteetako kontzertua ere itzuli da aurtan, egoerak eraginda ohikoa baino formatu



Aratuste-kontzertua: Asier eta Eider Elorza aita-alabek *Shallow* abestu zuten. I. SORIANO



Domekako erraldoien kalejira Masterrekan; oso jendetsua izan zen. I. SORIANO

txikiagoan izan bada ere. Musika bandak eta orkestra sinfonikoak, Kulunkako dantzariak eta kantariak argi utzi zuten, beste behin, Bergarak lehengai berezia duela kultura arloan. Pieza guztiak izan ziren bereziak, baina bereziki zirraragarria izan zen orkestraren laguntzarekin Asier eta Eider Elorza aita-alabek abestutako *Shallow*, Kulunkako dantzariak lagunduta; zirrarara berezia eragin zuen abesti ezagunak udal pilotalekuan. Bestalde, domeka arratsaldean kalejiran irten ziren erraldoiek jendetza elkartu

zuten; plan aproposa izan zen zapatuko ajeari aurre egiteko.

## Ikastetxeak ere kalean

Aranzadi ikastolak eta Mariaren Lagundiak egubakoitz arratsaldean ospatu zituzten Aratustea, eta San Martin Agirre herri eskolan, ohikoa dutenez, Aratuste-martitzenaz gozatu zuten. Askotariko gaiak oinarri hartuta mozarroetarako, hiru kasuetan ikastetxeetan hasi zuten mozarro festa, eta gero, herriko kaleak alaitu zituzten, bide bazterrak hartu zituzten senideen eta herritarren gozamenerako.

## 'Sexberdinak': gurpil aulkian gozatzeko antzezlan berezia

Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimenetik sortutako obra bihar helduko da Seminarixoa aretora (20:00)

## J.B. BERGARA

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* ekimenaren barruan sortutako *Sexberdinak* antzezlan Seminarixora helduko da bihar, martxoak 5, 20:00etan. Telmo Irureta eta Aitziber Garmendia

dira aktore protagonistak, baina oihalaren atzeko aldean badago presentzia debagoien-darra: Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu du eta Kepa Errastik idatzi, Iruretarekin batera. Obrak dituen berezita-

sunetako bat da ikusleak gurpil aulkietan egongo direla. "Aulkia batu eta espazio huts batean muntatu ohi dugu emanaldia. Norberaren jaioterrian estreinatzea beti da berezia, baina ezingo naiz egon. Pena ematen dit, baina aktore moduan nabilen beste obra batekin emanaldia izango dut egun horretan. Hala ere, Telmok eta Aitziberrek ez dute inor axolagabe utziko, hori ziur", adierazi du Gabilondok. Sarrerak salgai jarri eta berehala agortu ziren.



Garmendia eta Irureta obra antzeztan, eta publikoa gurpil aulkian. B.U.

# Zentro arina, uda ostetik aurrera erabilgarri

Menpekotasun baxua duten 65 urtetik gorako herritarrendako izango da eguneko arreta zerbitzua eta asteen bizpahiru egunez eskainiko dute Pake Leku eta Lagun Leku erretiratuen elkarteetan. Autonomia pertsonala indartzea da helburuetako bat

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eguneko arreta zerbitzua izango denaren oinarriak onartu ditu, aho batez, udalbatzak otsailan egindako osoko bilkuran. Oinarriak jendaurrean jarriko dituzte alegazioei tartea emateko, eta esleipenarekin hasiko dira gero. Uda osterako erabilgarri egotea da Udalaren asmoa.

## Bizpahiru egunetan asteen

Menpekotasun handia izan ez baina menpekotasun egoeran dauden 65 urtetik gorako herritarrei eskaintzeko zerbitzua da eguneko zentro arina, euren autonomian laguntzeko, harremanak egiten jarraitzeko eta menpekotasun egoerak atzeratzeko eta baita bakardadeko egoerak gaingintzeko ere.

Asteen bizpahiru egunetan eskainiko da, hasiera batean, eta orduak moldatuko dira erabiltzaileen eskaeren eta beharren arabera. Eguneko arreta zerbitzu horretan osasun fisikoa eta kognitiboa lantzeko ariketak eta

informazioa eskainiko dute, gizarite harremanak landu, eguneroko bizimodua antolatzeko aholkuak eman eta ongizate emozionala hobetzeko saiakera egin, besteak beste.

## Pake Leku eta Lagun Leku

Kokapenari dagokionez, herritarrek ondo ezagutzen duten tokietan eskainiko dute, bertaratzea erraza izan dadin. "Erabilerarekin ikusiko dugu beste gune konkretu batean jarri beharko dugun edo ez, baina, printzipioz, herritarrendako leku ezagunetan hasiko gara eskaintzen: Pake Leku eta Lagun Leku erretiratuen elkarteetan. Jendeak badaki non dauden, ezagutzen ditu, eta zerbitzu hau erabiltzea erraztea

## OSASUN FISIKOA ETA KOGNITIBOA LANTZEKO ARIKETAK EGINGO DITUZTE, BESTEAK BESTE

laguntzen du horrek", dio alkateak, Izaro Elorzak. "Komunitatean txertatuta egongo da zerbitzua, eta hori garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horrek, gainera, uste dugu balio izango duela agian bestela espazio horietara hurbilduko ez liratekeen horiek ere bertara hurbiltzera, eta hori ere, bere horretan, positibo ikusten dugu", gaineratu du Susana Alunak, Udaleko Ongizateko batzordeburuak.

## Udalen eskumena

Gizarte zerbitzuen euskal sistema arautzen duen 12/2008 Legeak dio tokian tokiko udalei dago kiela Eguneko Arreta Zerbitzua eskaintzea, eta Oñatiko Udalak adierazi du aurten bertan zerbitzu hau martxan jartzeko asmoa. Aurrekontuetan 20.000 euro daude jasota proiektua abiarazteko. Zerbitzuaren araudiari buruzko kontsulta publikoa egin zuten, lehenengo, eta oinarriak onartu berri dituzte. Lizitazioa etorriko da gero.

## Emakumeen aldeko ekintza bateragarriak datozen egunetan

Bazkaria zapatuan eta emakume artisauen azoka domekan, adibidez; Martxoaren 8an, manifestazioa

## O.E. OÑATI

Oñatiko Udalak, herriko sare feministak, Bargastak talde feministak eta Lagun Leku erretiratuen elkarteak hainbat ekintza -bakoitzak bereak- prestatu ditu Martxoaren 8ari begira, baina bateragarriak izan daitezkeen aritu dira lanean.

Asteburuari begira, adibidez, gaztetxean egingo den emakumeen bazkaria eta poteo musikatu antolatu du Bargastak talde feministak, eta emakumeen artisau azoka egingo dute domekan, Udalak eta Oñatiko sare

feministak antolatuta. Bi film eta hilaren 30ean egingo den diziplina askotariko *Emakumeak* ikuskizuna ere badator azken bien egitarauan. Bestalde, lau taldeek jaso dute martitzenean egingo den manifestaziorako deialdia. 19:00etan abiatuko da, herriko plazatik. Eguerdian, Olakuan, elkarretaratzea egingo dute, Lagun Lekuk deituta, indarkeria matxista gaitzesteko, eta horren ondorioz hil diren emakumeak eta umeak gogoan. Udalbatzak ere dei egin du ekintzetan parte hartzeko.

## Hirugarren gradua aplikatu diote Joseba Arregi presoari

Espetxetik kanpo pasa zituen joan den zapatua eta domeka Joseba Arregi preso oñatiarrak, hirugarren gradua aplikatuta. Aste barruan ere handik kanpo egin ditu egunak eta gauerako bueltatu da Martuteneko kartzelara. Espetxe arduradunek jarritako baldintzen zain dago, hirugarren gradua nola bete behar duen jakiteko. Jaurlari-

tzak urrian hartu zuen bere gain espetxeak kudeatzeko eskumena, eta hirugarren gradua motibazio politikoagatik emandako lehen hiru presoetako bat da oñatiarra.

75 urte ditu Arregik eta 29 urte daramatza preso; 1992an atxilotu zuten, Bidarten. Frantziako kartzelatan egonda, 2000. urtean Espainiartu zuten eta 30 urteko kartzela-zigorra jarri zioten, terrorismo, hilketa, mehatxu eta lesio delituengatik. Zigorra- ren hiru laurdenak beteta ditu.

## GORA ETA BEHERA



## Kristal txikiak telefono kabina inguruan

Lizaur Arkitektoan dagoen telefono kabinarekin lotuta herritar batek GOIENARI helarazitakoa: "Badira hilabete batzuk kabinak kristalak hautsita dituela eta zati txiki arriskutsuak daudela inguruan; zerbait pentsatu beharko dute, norbaitek min hartu baino lehen".

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



Herritar bat Kale Barrian behera oinez bastoiarekin lagunduta. O.E.



Korrika batzordea osatzeko egin zen lehen bileraren ostean ateratako talde argazkia. DEBAGOIENEN AEK

# Berezko ibilbidea izango du Korrikak Oñatin

Korrika Txikia egingo dute lehenengo, eta nagusiek hartuko dute gero lekukoa, bidegorritik, Elorregira heldu eta Korrika ofizialarekin bat egiteko. Denbora eta distantzia neurtzen eta beharrezko baliabideak zehazten dihardu batzordeak

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herri barruan hasi eta, bidegorritik, Elorregiraino iritsiko den Korrikaren ibilbide propioa egingo dute Oñatin. Distantzia neurtu, kilometroak banatu, Korrika Txikia antolatu eta Korrika ofiziala Elorregitik pasako den unerako han egoteko kalkulak egiten ari da orain Oñatiko Korrika batzordea. Korrika ez da Oñatitik pasako, baina Oñati sartuko da Korrikan.

## Herri barrutik Elorregira

Herriko hiru ikastetxeek elkarrekin Korrika Txikia prestatuko eta koordinatuko dute. Herriko kaleetan barrera izango da hori; gero, herriko eragileen eskuetara helduko da lekukoa, eta horiek helduko dira, kilometroz kilometro, Elorregiraino. "Herriko hainbat eragileren eskuetatik pasako da lekukoa eta kate hori Elorregiraino luzatuko dugu. Han, Korrika ofizialarekin bat eginda, Oñatik hartuko du jatorrizkoa eta berak

eramango du kilometro batean zehar", dio Korrikako Debagoieneko koordinatzaileak, Ikuska Lizarraldeak.

Tarte horretan Oñati zein eragilek, taldek edo norbanakok ordezkatzeko duen erabaki behar da; batzordean erabakiko da nola egin ordezkaritza hori. Oñatitik Elorregirainoko tartean zer erabiliko den lekuko moduan eta originalaren modukoa erabiltzea pentsatuz gero, nola edo nork egingo duen ere pentsatuko dute eta Korrikaren hasieran joango den furgoneta ere lortu beharko dute, ofiziala ez da Oñatira joango eta. "Sekulako erronka da Oñatirendako. Korrika egingo da eta herriak berak antolatuko du. Korrika Txikiko

**KORRIKAKO MATERIALA SALTZEKO POSTUA JARRIKO DUTE ZAPATU GOIZEAN PLAZAN**

azken zatian nagusiek hartuko dute lekukoa eta diruz lagunduko duten eragileek egingo dituzte Elorregirainoko zazpi kilometroak. Ondo neurtu behar da guztia, kilometroak zatitu behar badira birbanatzeko. Udaltzainak ere beharko dira bidea zaintzeko... Dena ondo lotu beharko da, baina iruditzen zait Oñatin badagoela horretarako gaitasuna eta ahalmena. Eragileak hasi dira mugitzen".

## Kilometroak eros daitezke

Apirilaren leian pasako da Korrika Debagoienetik. Guztira, 32 kilometro egingo ditu bailaran eta Oñati Elorregin batuko da. Eguerdik partean pasako da handik, eta, garaiz egoteko, Korrika Txikia zein orduan egin ondo neurtu beharko dute, plazatik Elorregirainoko tartea egiteko behar den denbora ere kalkulatu. Kilometroa erosteko, *korrikadebagoiena@gmail.com* helbidera idatzi behar da. Bihar, materiala salduko dute plazan.

## Immigranteen egoerak ekarriko ditu martxoan Hotz Oñatik

Erregularizazioari eta babesari buruzko hitzaldi bana eta bi ikus-entzunezko eskainiko ditu zinema aretoan

### Goiena komunitatea

Hotz Oñati / OÑATI

*Izan gaitzen babesleku; bide seguru eta legalak orain!* izenburua duen sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Hotz Oñatik.

Babesa eskaintzea da kanpainaren abiapuntua, baina legezko bideak hartzeko eskaera ere egin gura du. Hain zuzen ere, immigranteen erregularizazioa eskatzeko 500.000 sinaduraren bilketa ari dira egiten Espainiako kongresuan aurkezteko, eta sinadura horiek batzen ere ibiliko dira Hotz Oñatiko kideak. Esaterako, kanpaina honen barruan antolatu dituzten ekitaldietan jarriko dituzte eskuorriak sinadurak jasotzeko. Lehen hitzaldian, zehazki, erregularizazioaz berba egingo du Gonzalo Fanjulek, eguaztenean; online izango da. Irungo harrera sare-



Egindako bideoaren irudi bat. HOTZ OÑATI

ko ordezkari bat etorriko da apirilaren leian, eta bi ikus-entzunezko ere eskainiko ditu: *Aita Mari* –martxoak 23– eta *Unax Blancoren Bigarren bidaia* –martxoak 15–. Ekitaldi guztiak izango dira toki eta ordu berean: 19:00etan, zinema aretoan.

## Eukaliptorik ez landatzeko bidea hartuko du Udalak

Oñatin eukalipto landaketak debekatzea eskatu dute hainbat eragilek, eta hori bere egin eta mozio bidez eraman zuen EH Bilduk otsaileko osoko bilkurara. Landatzearen kontra bozkatu zuen EH Bilduk, eta arrazoiaren artean dago EHUKo eta Aranzadiko adituek gaiaren inguruan egindako ikerketa: eukaliptoaren eragina kaltegarria dela inguru-

menerako, baita landaketa horren hedatzea lurzoru eta hidrologiarentzat eta biodibertsitatearentzat. Mendien kudeaketa eskumena Aldundiarena izan arren Udalak ere badituela neurri hauen aurkako bideak adierazi zuen EH Bilduk, eta Aramaion hartutako bidea hartuko dutela Oñatin. EAJK debekuaren kontra egin zuen eta neurtutako landaketaren alde agertu zen, egunerokotasunean zelulosarekin egindako produktuak eta egurra ere behar direla irizita.

## Auzoko jaien egutegia zehazteko bilera eguaztenean da

2022ko auzo jaien egutegia zehazteko bilera egingo dute eguaztenean, martxoak 9, jai batzordeetako eta udal ordezkariak. Udalaren dirulaguntzaz ere hitz egingo dute, nola eskatu eta likidazio kontuak zelan eta noiz aurkeztu, adibidez, eta baita Udalak dituen baliabide materialak ere. Bilera kultura etxean da, 18:30ean.

## Beasain-Bergarako bidesariari buruz informatzera datoz

Beasain eta Bergara arteko A-636 errepedeko bidesariari buruzko informazioa emateko mahaia jarriko dute martxoaren 9an eta 28an Zubikoa kiroldegian, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Tarifei, deskontuei eta teleordainketa sistemari buruzko informazioa eta eskaera inprimakiak jaso ahal izango dira bertan.



Mila Modu taldea osatzen duten Andoni Campos, Xabi Yaniz, Roberto Ferreira eta Oskar Arlanzon. OIER YANIZ

## 'Intra' diskoa aurkeztuko du gaur Mila Moduk

Lan "gitarroagoa eta humanistagoa" izango dela aurreratu dute taldekideek, eta argitaratu dute "mimo handiz" egindako 'Inor ez da inor' kantuaren bideoklipa ere. Herrian aurkeztuko dute arratsaldean, eta bira akustikoa ere prest daukate

### Amaia Txintxurreta Guridi oñati

Hamar abestiz osatutako *Intra* izeneko diskoa aurkeztuko du gaur goizean, Donostian, Mila Modu talde oñatiarrak, eta arratsaldean euren lana gertutik ezagutzeko aukera eskainiko dute Oñatiko kultura etxeke zinema aretoan, 19:30ean. Sarre-  
ra gutxi batzuk besterik ez dira gelditzen –udal webgunean eros daitezke–.

### Disko "gitarroagoa"

*Absurdoaren paradisua* aurreko lanean hasitako ildo beretik doan diskoa izango da *Intra*. "Kasu honetan, grabaketa apur bat desberdin egin genuen, gitarreroagoa da, landuagoa ahotsetan eta konponketetan, osatuagoa da. Ez bakarrik hamar abesti dituelako, baizik eta egin den lana denbora gehiagorekin egin delako. Aurrekoarekin, justu, konfinamenduaren ostean entsegu batzuk egin eta estudio-  
ra sartu ginen. Kasu honetan, prozesua apur bat luzeagoa izan

da; hasi ginen grabatzen iazko ekainean eta bukatu genuen urte amaieran. Mimo gehiagorekin egindako diskoa da", azaldu du Xabi Yaniz taldekideak.

Letretan, "barrura begira" jarri direla gaineratu du musikariak: "Nolabait, erruak eta erantzunak beti kanpoan topatu beharrean, askotan norberaren burura ere begiratu behar dugula adierazi nahi izan dugu. Alde horretatik, humanistagoa da. Gauza bat falta dugunean, gero konturatzen gara zer geneukan. Letra horiek idatzita daude konfinamendu garaian eta badauka eragina momentu horrek konposatzerakoan". Yanizek berak konposatutako musikaz gain, letra asko ere hark

**HAMAR KANTUZ OSATUTAKO DISKOA "LANDUAGOA DA AHOTSETAN ETA KONPONKETETAN"**

idatzitakoak dira, eta Iñaki Goitiak, Iñaki Olalde eta Arantzazu Ugartek idatzitakoak ere jaso dituzte.

*Inor ez da inor* kantuaren bideoklipa egin du Yanizen seme Oierrek, aurreko ikus-entzunezkoak bezala. Dagoeneko Youtube-  
ben ikusgai dago eta hori ere asko zaindu dutela azaldu dute.

### Dagoeneko eskuragai

Disko berria Elkar dendetan eta webgunean eskuratu ahal izango da, baita Oñatiko hainbat tabernatan ere.

### Bira akustikoa, prest

Gaur egingo duten Oñatiko aurkezpena "berezia" izango dela esan du Yanizek, eta horren ostean etorriko dira formatu akustikoan eskainiko dituzten kontzertuak: hilaren 17an Bilbon, 25ean Donostian, 31n Gasteizen eta apirilaren 7an Iruñean. Aste Santu ostean, formatu elektriko birari ekingo diotela aurreratu dute.

## "Opari bat izan da niretzat proiektu honen parte izatea"

**JOSU ZUBIA 'BIDAIDE' ANTZEZLANEKO EKOIZLEA**  
Produktio lanetan nola moldatu den azaldu du Zubiak

### A.T. OÑATI

Bihar, zapatua, 19:00etan Santa Anan eskainiko dute *Bidaide* antzezlana –sarrerak salgai daude ohiko tokietan–. Geuretik Sortuak ekimeneko fruituetako bat da, hain zuzen, eta ekoizle lanak egin ditu bertan Josu Zubia oñatiarrak.

### Lehen aldiz jardun duzue ekoizle moduan lanean?

Aurretik, Potx eta Lotxekin-eta ibili izan naiz, baina egia da maila horretan eta nirea ez den proiektu batean ekoizle lanetan ibili naizen lehen aldia izan dela.

### Zer moduzko esperientzia izan da?

Opari bat izan da niretzat proiektu honen parte izatea; zortea izan dut, sormen prozesu bat hasieratik bukaerara bizitzeko aukera izan dudalako. Ez zen leuna izan hasiera, zailtasun askori aurre egin behar izan diegulako, baina oso interesgarria da Geuretik Sortuak aurrera eramanez ahal izatea. Idoia Beratarbide eta Iraia Elias dira antzezlaneko zuzendariak, nahiz eta aktore moduan ere jarduten duten. Euren laguntza beti izan dut eta azpimarratu behar da Metrokoadroka sormen laborategiaren lanak ez direla bakarrik arte eszenikotan zentratzen, baizik eta arte espresio guztietan; hitza badauka, aktore lana ere bai, plastikatik ere asko dauka eta irudiak oso politak dira obra honetan. Gainera, profesional berriak ezagutzeko aukera ere eman dit eta oso pozik nago.

### Zein izan da zure lana, zehazki?



Josu Zubia oñatiarra. XABIER REZABAL

Ikusten ez diren lan asko egin ditut; aurrekontuetatik hasi, laguntzak eta baimenak eskatu, materiala lortu... Bulego lan asko egin behar izan ditut, ikuskizun egunean agertokian ezer falta ez dadin.

### Agertoki gainean ala atzean sentitzen zara gusturago?

Bietan gozatzen dut pila bat, maila oso antzerakoan betetzen naute. Badakit bi lanak zer diren eta atzeko lanaren emaitza da agertoki gainean ikusten dena. Bi lanetan oso eroso eta beteta sentitzen naiz.

### Aurrera begira zein lanetan ikusten duzue zeure burua?

Sorkuntzari orduak kentzen dizkiozu ekoizle lanak egin behar badituzu, eta oreka topatu behar da. Baina bai sormen lanetan eta baita produktio lanetan ere, bietan jarraitzeko asmoa daukat aurrerantzean ere.

## Bigarren aldia beheko fasean jokatuko du Mekalki Aloña Mendik

Seniorren bigarren maila nazionalako Mekalki Aloña Mendi saskibaloitako taldea gutxigatik ez da sailkatu goiko faserako, eta bigarren aldia hiru garaipen eta hiru porrotekin hasiko du, sailkapenean erdi inguruan kokatuta. Zortzi partidutuzte aurretik; lehenengoa bihar, zapatua, 18:00etan, Barrena Berriren kontra, etxean jokatuko dute.

## Iñigo Erle, Euskal Herriko klubaren pilota txapelketako finalean

Bihar Zumarragako Beloki pilotalekuan 17:30ean hasita jokatuko dira Euskal Herri mailako klubaren arteko pilota txapelketako finalak. Iñigo Erle oñatiarra izango da Lazkaoko LAPKE ordezkatzeko Ekhi Irribarriarekin, lehenengo mailan, Lemoaren aurka. Maddalen Etxegaraik eta Uxue Osesekek ere hartuko dute parte, nagusien mailan.

## COMERCIAL URCELAY

# Konfiantza ereiten, tokikoa garatu, sustatu eta bultzatzeko asmoz

Deba Ibaiaren eta Amilaga kaleen artean, errepide nagusiaren bazterrean dago Leizeaga kalea. Izan ere, bergarar askoren joan-etorrien ikusle dira bertako hormak. Erosketa poltsekin batzuetan; ibilgailuetako matxurekin bestetan; azken ordukoak asetzeko peskizan beste hainbatetan.

Finkatze elementuen banaketa oinarri, enpresen, komertzioen eta bulegoen marasma horretan dago finkatuta Comercial Urcelay.

### Konfiantza ereiten

1958an sortu zen Bergarako familia-enpresa; hala, sei hamarkadatik gora daramatza bezeroen beharrak asetzen, mota guztietako zirrindola, azkoina edota

torlojuak banatzen. Kalitatea dute jatorri eta helburu, bai produktuetan, baita eskaintako zerbitzuan ere.

Azken urteetan, baina, buruhauste handiei egin behar izan diete aurre. "Gehienetan ezin gara enpresa handiekin konpetentzia sartu, ez eta Txinatik datozen produktuen prezioekin lehiatu ere", aitortu du familiaren arrastoa jarraitzen ari den Amaia Urcelayk. Beraz, helburua garbia da: "Gertuko enpresa multinazional zein txikiek gurea bezalako enpresetan konfiantza izatea".

### Tokikoa, beharrezko

Tokiko ekonomia "garatzen, sustatzen eta bultzatzen" egiten



Familia-enpresari jarraipena ematen ari zaio Amaia Urcelay.

dio ekarpena, arduradunaren hitzetan, enpresa bergararrak gizarteari. Eta hori izan da, hain zuzen, Goienakideen komunitatera batu izanaren arrazoia. Hainbat enpresari eskaintako finkatze elementuen banaketan zein egunerokotasunean herritarrei euskarazko informazioa ematean, "tokikoa bultzatzea beharrezkoa delako".



Leizeaga kalea 6, Bergara

943 76 10 78

amaiaurcelay@comercialurcelay.com

www.comercialurcelay.com

## ALET TALDEA

# Energia berriztagarriak, trantsizio ekologikora bidean

Naturak sortzen duen indarra leloa ageri da joan zen udan itxuraldatu zuten eraikinean. Baita landare eta eguzki-loreen irudiak ere. Urdina, berdea eta horia dira nagusi.

Azalak barrua estaltzeko balio duela esan ohi da maiz; azalak barrua bistaratzen duela, aldiz, beste hainbatetan. Bigarrena da Bergarako enpresaren kasua.

### Energia berriztagarriak

Munduko energia-merkatuaren garapenaren eta "irtenbide iraunkorren beharren aurrean", bi hamarkadara bidean da Alet Taldeak "trantsizio ekologikoaren alde" egindako "apustua". Proiektuaren oinarriak ezartzen direnetik produktua martxan



Alet Taldea enpresa bergararraren eraikin itxuraldatua.

jartzen den unera arte, beraz, bide-orri bakarra dute ezarria: energia berriztagarrien erabilera.

"Konfiantzan eta kalitatean" oinarrituta, irtenbide integralak eskaintzen dituzte –aholkularitza, dirulaguntzen kudeaketa, azterketa eta irtenbide teknikoak, instalazioa zein mantentzea–, proiektuak "bezeroen beharrei egokituta" kudeatuz. Eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, aerotermia, geotermia, biomasa, zoru erradiatzailea eta VMC-fluxu bikoitzeko aireztapena dira, besteak beste, baliatzen dituzten sistemak; "eraginkorrak, ingurumenarekiko adeitsuak eta kontsumoan aurrezteko baliagarriak", euren hitzetan.

### Ekintzak, hitzen bidetik

Ideiak, hitzak eta ekintzak bide beretik irudikatzen, josten eta egikaritzen ditu Bergarako enpresak. Euskara eguneroko lanabes izaki, "euskal hedabideen alde" euren "ekarpena" egiteko batu da Goienakideen komunitatera. Euskarak batzen gaituelako, ekintza bat gehiago ideien eta hitzen bidetik.



Sanantonabat 9, Bergara

943 76 58 15

admin@alet-taldea.com

www.alet-taldea.com

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak

**Xabier Urzelai** DERIO

Derioko (Bizkaia) Euskalteleko egoitzan dena dago gertu babesleatako ordezkariak eta komunikabideak hartzeko. Goizeko lehen orduan talde erretratuak egin dituzte eraikinetik gertu, eta aurten bai, aurten talde osoa batu ahal izan dute erretraturako. Taldeko zuzendariak, masajista eta teknikariak, eta txirrindulariak; 52 txirrindulari, guztira. Eta kopuru horretatik sei dira Debagoienekoak.

**Hiru taldetan banatuta**

Euskadi Fundazioak hiru talde izango ditu errepidean, eta Debagoienak sei txirrindulari proiektuan. Emakumezkoen Laboral Kutxa-Euskadi taldean, guztira, hamahiru ziklista daude, eta hiru dira bailarakoak: Olatz Gabilondo (Bergara, 1999), Xubane Garai (Aretxabaleta, 2002) eta Garazi Estevez (Aretxabaleta, 2002). Euskaltel-Euskadiko harrobi taldean, Gizonen 23 urtez azpiko Laboral Kutxa-Euskadin, hemeretzi lagun dira, eta tartean dago Danel Casais (Oñati, 2003). Eta gizonen talde nagusian, Euskaltel-Euskadin (UCI Pro Team), Mikel Aristik (Bergara, 1993) eta Julen Irizarrek (Bergara, 1995) jantziko dute maillot laranja. Hala, GOIENAK sei lagun horiek batzeko asmoarekin egin du bidaia Deriora.

**Ilusio berrituekin**

Txirrindularitza profesionaleko egutegia urtetik urtera geroago eta azkarrago hasten dute, eta baita amaitu ere. Hala, taldearen aurkezpena egin dutenerako ziklista batzuek dagoeneko hartu dituzte lehenengo berotuak, eta horietako bat da Julen Irizar. Mikel Aristik, berriz, Portugalen hasiko du denboraldia, Irizarrekin batera lehiatuko duen Alentejoko Itzulian. Azkeneko bi urteak ez dira errazak izan bi bergarrendako, pandemiak ere ez du askorik lagundu, eta pedal kolpe eta sentsazio onak errekuaratzeko neguan serio ibili dira lanean. Urte garrantzitsua da biendako, besteak beste, kontratua amaitzen dutelako. "Urterre esaten dugu datorrena urte garrantzitsua dela, baina bai, hau garrantzitsua da", dio Aristik, aurkezpen ekitaldia amaitu eta banakako elkarrizketetan egindako errondan. Bitartean, fundazioko argazki-



Ezkerretik hasita, Mikel Aristi, Olatz Gabilondo, Garazi Estevez, Xubane Garai, Danel Casais eta Julen Irizar. X.U.

# Erreferentziazko taldean sei dira

**TXIRRINDULARITZA** Euskadi Fundazioko hiru taldetan banatuta daude Debagoieneko sei txirrindulari, eta horietako bi dira profesionalak, Mikel Aristi eta Julen Irizar. Olatz Gabilondok, Xubane Garaik eta Garazi Estevezek domekan hasiko dute denboraldia

lariak banan-banan ari dira ziklistei argazkiak egiten, eta gainontzeko komunikabideak ere elkarrizketetan murgilduta daude. Hala, ekitaldiaren hasierako protokoloa eta egitarau zorroztza amaituta, ziklistak erlaxatuago daude, aurretik dituzten lasterketen gainean berbetan, eta Etxeondo, Orbea, Laboral Kutxa eta Euskaltel babesleen ordezkariekin berbetan; izan ere, fundazioak 37 babesle ditu, guztira.

Irizarrendako eta Aristiren dako halako ekitaldiak ez dira berriak, eta kanpoan egiten duen

## MIKEL ARISTIK ETA JULEN IRIZARREK PORTUGALEN DUTE HURRENGO HITZORDUA

eguraldi aparta entrenamendu saio baterako aprobeztatu ez izanaz ere penatuta daude. "Tira, atsedean egun moduan hartuko dugu gaurkoa". Bergararrek bi aste dituzte ondo entrenatzeko, martxoaren 16tik 20ra bitartean Alentejoko Itzuliko Portugalen irteera puntuan izango dira biak. Oroitzapen onak ekartzen dizkie Portugalen, baina urrun geratzen dira bai bata eta bai besteak han lortutako garaipenak. "Uf, aspaldi altxatu nituen nik Portugalen besoak, dagoeneko ahaztu ere egin zait", dio Irizarrek, umorez. 2018an izan zen, Portugalgo Itzuliko bigarren etapari; Muriaseko maillot orlegia jantzita zeramala beste bi lagunekin batera ihesaldian sartu zen Irizar, eta 30 kilometrora azken erasoia jota bakarrik helmugaratu zen bergararra. Ordutik ez du halako esperientziarik bizi

izan. Aristiren kasuan, berriz, 2019ko Portugalgo Itzulian etapa garaipena eskuratu zuen, baina iaz, hain zuzen, Alentejon, bi etapatan bigarren sailkatu izanaren arantza atera gurako du.

**Casais eta Gabilongo**

Danel Casaisendako eta Olatz Gabilondorendako lehenengo urtea izango da Laboral Kutxan. Oñatiarrak amateur mailako lehenengo urtean Ampon egindako lan onari –hainbat garaipenekin– esker egin du salto Laboral Kutxara, eta deigarria da ze garbi dituen helburuak. "Txirrindulari profesional izan nahi dut". Gabilondok, berriz, ziklismo-zale izatetik lasterketetan esku hartzerako saltoa egin zuen iaz etxeko taldean, Lokatzen, eta lasterketetan hasi orduko Gipuzkoako txapeldunorde izan zen, Seguran. Hala, orain arteko kirol ibilbide laburrean aurrerapausoa emango du aurten, ikasten jarraitzeko.

**Domekan Zaldibarren**

Hain zuzen, Gabilondok, Garaik eta Estevezek oraingo domekan hasiko dute denboraldia, Zaldibarko II. Emakumeen Sarian. "Taldeko kide guztiak egongo gara irteera puntuan, eta gogotsu gaude. Egia esan, sentipen kontrajarriak dira; izan ere, batetik, hilabeteak daramatzagu lehenengo lasterketarako prestatzen, baina, bestetik, domekan ikusi ahal izango dugu gutako bakoitza non dagoen, eta horrek beldur apur bat ere ematen du", dio Garaik. Hala, datozen hila-beteotan Euskaldun Torneoeko lasterketak nazioarteko probekin tartekatuko dituzte. "Nazioarteko hitzorduetarako Jonek [Lazkano, kirol zuzendaria] hautaketa egiten du. Gutako bakoitzaren entrenamenduetako datuak izaten ditu, gehienok potentziometroa daukagulako, eta horren arabera eta ibilbidearen eta gutako bakoitzaren ezaugarrien arabera egiten du".

## Ibarrean badira ziklista gehiago

Amateur mailan Debagoienean badira txirrindulari gehiago. Eulen taldean Debagoieneko hiru ordezkari daude: Unai Cueva (Oñati, 2002), Andoni Azkarate (Arrasate, 2000) eta Asier Azkarate (Arrasate, 2000). Eta Aloña Mendiko harrobiko beste txirrindulari bat, Aimar Erostarbe, Cafes Baque taldean lehiatuko da aurten. Horrekin batera, Eibar taldean –lehenengo Debabarrena– lehiatuko dira Enaitz Garai (Aretxabaleta, 2003) eta Ibai Unamuno (Bergara, 2003). Eta Bergarako Bolintxo Okindegia-Lana taldean izango dira Eneritz Urrutia (Arrasate, 1990) eta Ainhize Barrainkua (Aretxabaleta, 1997). Horiez gain, egongo dira talde ofizialetan egon barik euren kabuz lasterketa batzuetara joango direnak ere; esaterako, Iker Eskibel eskoriatzarra.

## Zer espero duzu denboraldi honetatik?



**KUBANE GARAI**  
LABORAL KUTXA-EUSKADI

### "Ikasketekin bateragarri izan behar du"

"Denboraldiari begira, asmoak eta helburuak ez dira aurreko urtetik askorik aldentuko. Taldearen partetik ez dugu presiorik. Txirrindularitzaz gozatzea da helburua, hobetzen joatea, egiten dugunaz disfrutatzea eta, ahal den neurrian, ziklismoaren gainean ikasten jarraitzea. Kontutan izanda, gainera, kirol jarduera ikasketekin bateragarri egin behar dugula. Horretarako, baina, ondo antolatzea ezinbestekoa da".



**GARAZI ESTEVEZ**  
LABORAL KUTXA-EUSKADI

### "Itzulian egotea denendako da berezia"

"Taldearen partetik, oraingo, ez digute apartekorik eskatu; hau da, norberak daukana ematea da helburua, eta urtero pauso bat aurrera ematea, poliki-poliki hobetzen joatea. Nik ez dut denboraldia hasi, eta Jon, taldeko zuzendaria, joango da esaten gutako bakoitzak non egon behar duen. Alde horretatik, ziklistok egin dugu gure artean berba, eta denon nahia da Itzulian egotea; izan ere, etxeko lasterketan egotea beti da polita".



**OLATZ GABILONDO**  
LABORAL KUTXA-EUSKADI

### "Iritsi berria naiz, dena dut ikasteko"


"Txirrindularitzara iritsi berria naiz, eta, egia esan, batzuetan, oraindik sinistu ere ez dut egiten hau guztia gertatzen ari zaidanik. Gaurkoa moduko talde aurkezpenek, esaterako, inpresio apur bat ematen dute, ez nagoelako ohituta, baina oso esperientzia polita izan da eta taldearekin lasterketetan hasteko sekulako ilusioa daukat. Lehenengo urtea izango da talde honetan, eta dena daukat ikasteko. Zorionez, urte asko dauzkat aurretik".



**DANEL CASAIS**  
LABORAL KUTXA-EUSKADI

### "Egindako apustua eskertu nahi diet"

"Egun polita izan da gaurkoa, profesionalak diren txirrindulariak oso gertu izan ditut eta garbi daukat horra iritsi nahi dudala, horretarako nabil lanean. Eta profesional izateko Euskaltel-Euskadi da nire erreferentziazko taldea, mailot laranja janztea ametsa izango litzateke. Laboral-Kutxan oso maila ona duten taldekideak ditut, eta nigatik egindako apustua eskertu nahi diot taldeari".



**JULEN IRIZAR**  
EUSKALTEL-EUSKADI

### "Alentejon ondo ibiltzea da orain helburua"

"Gaurkoa moduko ekitaldiak politik dira ostera ere ilusioak berritzeko, eta gogo handiz gaude, egia esan. Denboraldia indartsu hasi nahi nuen eta Valentzian txispa apur bat hartzea zen helburua, gero Omango Tourrera joateko. Ondo hasi nintzen, baina Omanera joan aurretik hoztu egin nintzen eta ez nintzen nahi moduan ibili. Orain, berriz, hilabete dugu Alentejoko Itzulian ondo prestatzeko".



**MIKEL ARISTI**  
EUSKALTEL-EUSKADI

### "Gogo handiz nago, eta ilusioarekin"

"Iazko urtea ez zen batere ona izan, eta 2020a... Pandemiaren lehenengoa, zer esan... Bada, urtero esaten dugu urte garrantzitsua dugula aurretik, baina egia da ilusio eta gogo handiz nagoela aurtengora begira. Taldekide batzuek bai, baina nik ez dut denboraldia oraindik hasi, Alentejoko [Portugal] Itzulian izango naiz Julenekin batera; ezagutzen dut ibilbidea eta gustuko dudana lasterketa da".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### O.ERREGION. GIZ.

Bergara-Amaikak Bat

Zap. 11:00. Agorrosin.

Mondra-Euskalduna

Zap. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Mutriku

Dom. 16:30. Ibarra.

Añorga-Aloña Mendi

Dom. 17:30. Rezola.

#### O. ERREGION. EMAK.

Leintz Arizmendi-Ostadar

Zap. 13:00. Mojategi.

Lagun Onak-Bergara

Zap. 15:30. Azpeitia.

#### GORENGO M. IRAUPEN F.

Axular-Mondra

Zap. 15:30. Puio.

Antzuola-Getariako

Zap. 16:00. Eztala.

#### EMAK. GORENGO. KOPA

Mutriku-Leintz Aloña

Dom. 16:30. San Miguel.

#### GAZTEAK. EUSKAL LIGA

Urdaneta-Euskal Liga

Dom. 12:00. Loiu.

### ARETO FUTBOLA

#### MAILA NAZIONALA

Mondrate-Gernika

Zap. 16:30. Musakola.

Laskorain-Eskoriatza

Zap. 18:00. Tolosa.

#### GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.

Mondrate-Ostiko

Dom. 18:15. Musakola.

#### GIP. BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Laskorain

Zap. 17:00. Eskoriatza.

Ingou Aloña-Tolosala

Zap. 18:00. Zubikoa.

#### GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.

Ordizia-Eskoriatza

Dom. 09:30. Majori.

### ESKUBALOIA

#### EUSK. TXAP. GIZON

Mugarri Ingou-Usurbil

Zap. 16:00. Iturripe.

Ereintza-Fagor

Professional

Zap. 17:00. Errenteria.

#### EUSK. TXAP. EMAKUM.

Cons. Aloña Mendi-Ereintza

Zap. 16:00. Zubikoa.

#### GIP. SENIOR LEHEN MAILA

Hondarribia-SoraluceBKE

Dom. 12:00. Hondarribia.

### SASKIBALOIA

#### EBA

MU-Nissan Grupo

Dom. 18:30. Iturripe.

#### JUNIOR EUSKAL LIGA

MU-Fundacion Bilbao

Basket

Dom. 12:00. Musakola

#### GIPUZKOAKO TXAP.

Cafes Aitona-B.Soraluce

Zap. 20:00. Logroño.

#### GIP. SENIOR. GIZ.

Bergara Sora.-La Rioja

Zap. 16:00. Iabegaraieta.

### PILOTA

Oñatin, gaur (18:30), hiru

partidu, alebin eta infantil

mailakoak.

Aretxabaletan, gaur

(19:00), bost partidu,

alebin, infantil, kadete

eta gazte mailakoak.

Antzuolan, gaur (19:00)

bi partidu, alebin eta

infantil mailakoak.

Arrasaten, zapatua

(12:00), partidu bat,


infantilak.

Bergaran, gaur (19:30),

infantil mailakoak.

## PILOTA Rezusta eta Iribarria, eskuz binako finalerdietan

Eskuz binako txapelketako finalerdiak hasiko dituzte oraingo asteburuan Bilbon eta Iruñean, eta finalerdi horietan izango dira Beñat Rezusta bergararra eta Iker Iribarria. Bikote gipuzkoarrak Iruñeko Labriten izango du hitzordua, zapatuan, 17:30ean hasita. Eta Laso eta Imaz izango dituzte aurrean.



Beñat Rezusta. GOIENA

## FUTBOLA Azken sailkatu Euskalduna hartuko du Mondrak

Oraingo asteburuan, Mondrak, Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko dute etxean. Laugarren dagoen talde arrasatearrak azken sailkatuaren bisita izango du; Andoingo taldeak azken lau partiduak jarraian galdu ditu. UDAREN kontrario Mutriku eta Bergararen kontrario Amaikak Bat sailkapenaren erdian daude.



Añorgaren kontrako partidua. GOIENA

# "Paisaia eta gorputza, ezinbesteko nire lanean"

**LAIDA LERTXUNDI** ZINEMAGILEA ETA ARTE EDERRETAKO FAKULTATEKO IRAKASLEA Bilboko artistak egin du Bergarako Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk jasoko duten Monzon-Ganuz sariaren oroigarria, 'Landscape Plus' izeneko lana

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA Laida Lertxundiren (Bilbo, 1981) lanak arte kontzeptualaren eta zinema estrukturalaren ideiak eta gorputzetik lan egiteko ikuspegi feminista erradikala batzen dituzten lekuen miaketa erakarriak dira.

**Zuk egindako lana izango da aurtengo Monzon-Ganuz saria. Pozik? Ez nuen espero; oso pozik nago. Bergarako Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk jasoko dute. Ezagutzen dituzu?**

Egia esan, ez ditut pertsonalki ezagutzen. Bikoteari eman izanak pozten nau; izan ere, belaunaldi hartako emakumeek gizonen ibilbide politikoak zein profesionalak sostengatu izan dituzte, aitortzarik gabe.

**Euskal artistei bultzada ematea helburu du sariketak. Zer deritzozu? Oso iniziatiba ona dela uste dut, artistok horrelako aukera gehiago behar ditugula uste dut.**

**Zinemagilea eta unibertsitateko irakaslea zara; Euskal Herrian bizi zara egun, baina Ameriketako Estatu Batuetan urte luzez bizitakoa. New Yorken eta Kalifornian bizi izan naiz; ikasi eta lan egin nuen Arte Ederretako irakasle. Orain dela gutxi bueltatu naiz, baina Ameriketako Estatu Batuetan egon naizen denboran harremana mantendu dut Euskal Herria-**



Laida Lertxundi artistak egin duen *Landscape Plus* artelana. L.L.

## Sari banaketa ekitaldia egunean

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak iaz sortu zuten Monzon-Ganuz Euskal utopikoei aurtengo saria Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk jasoko dute martxoaren 10ean, Seminarixoa, 18:30ean hasita egingo duten ekitaldian. "Euskal Herriari, bere kulturari, hizkuntzari, historiari eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrek omendu nahi ditugu sariarekin; bi herritarrek jasoko dute euskara min eta lehentasun, gure iraganarentzat etorkizuna eraikitzeke lanean aritu direlako beti", dio Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

*Seminarixoa.eus*-en eta, emanaldiak dauden egunetan, txarteldegian eskura daitezke ekitaldirako doako sarrerak; pertsona bakoitzak lau gonbidapen, gehienez.



Laida Lertxundi artista. L.L.

rekin; adibidez, bakarkako erakusketa bat egin nuen Azkuna Zentroan 2014an, eta Tabakaleran 2016an beste bat. Horrez gain, komisariotza lana egin nuen Bartzelonako CCCBn 2001etik 2011ra. Gaur egun, Azkuna Zentroan *Artista AZ Kidea* moduan lan egiten dut eta EHU'n eskolak ematen ditut.

***Landscape Plus* da sariketara aurkeztu duzun lana. Zelakoa da?**

Hiru prozesu ezberdin jasotzen ditu: grabatua, *chine cole* eta tinta. *Landscape Plus* euskaraz *Paisaia eta Plus* edo gehiago izango litzateke. Paisaia gorputzarekin harremanetan jartzeko modu bat da. Argazki analogikoa atera nuen Chocolate Peak mendi tontorretik, Kaliforniako basamortuan. Argazki horretatik, gero, grabatua bat egin nuen, irudi horretan urdina agertzen dena. Eta beste alde batetik, Yoko Onoren *Fly* filmeko fotograma batekin beste geruza bat gehitu nion *chine cole* teknikarekin. Tintaz egindako beheko marra gorria Jasper Johnsen lanari egindako keinu bat da, lerro horiek erabiltzen baitzituen berak konposaketak borobiltzeko. Los Angelesen egin nuen Toni Zepedarekin 2016an lan hori; Hammer Museum-en

erakutsi nuen lehenengo eta New Yorkeko NADA House-n iazko udan.

**Diozu paisaia eta gorputza direla zure lanean etengabe agertzen diren elementuak. Zer adierazteko? Plazer eta esperientzia zentzu gisa interesatzen zaizkit sarritan erabiltzen ditudan bi elementu horiek. Hau da, paisaian egoteak berak harreman bat sortzen du paisaiaren eta gorputzaren artean. Gorputz prozesu horiek prozesu teknikoak bilakatzen dira. Prozesua bera osatzeak eraikitzen du zentzua.**

**Epaimahaikideek diote: "Laida Lertxundik etengabe mugitzen ari den obra eskaini digu, oso bisuala, ikusizko kodeak trukatu, non prozesuak garrantzia hartzen duen, oreka bizian eta amaierarik gabe. Kontzeptuzko mugarik gabeko eraikuntza artistikoa, baina berezko ziguilurekin, ikuspegi ireki eta nahasi bat birdefinituz, ikuspegi pertsonal batetik". Zer diozu?**

Lan polita egin dutela deritzot, eta honen guztionen parte izana eskertzen dut.

**Zinemagilea zara, AEBn 16 mm-ko formatuko film asko egin dituzu. Jarraitzen duzu zinemagintzan?**

Zinema egiten dut artearen testuinguruan; hau da, irudia mugimenduan lantzen dut. Pieza bat estreinatu berri dut New Yorkeko MoMa-n eta bakarkako erakusketa prestatzen ari naiz Bilboko La Taller-en, laster inauguratuko dena. Erakusketa horrek zinema, grabatuak eta argazkia barnebilduko ditu. Horrez gain, nire bikotekidearekin pieza berri bat lantzen ari naiz, eta Bilboko Azkuna Zentroarekin beste proiektu bat egiten ere bai; eskola iragankor bat da eta Bizkaiko mendietan egindako grabaketek osatzen dute Azkuna Zentroko proiektu hori.

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

ASIER URZELAI  
'BINBI'

MARTXOAREN 9AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN  
ETA 23:30EAN  
ALMENEKO IKASLEAK PLATOAN  
ELKARRIZKETATZAILERAN  
'GALDEGAZTE' SAIDAN

goiena  
Zu hemen zaude.





# Antzezlana websail bihurtzeko ahaleginetan

laz herriko Santa Ana aretoan "arrakastaz" eskaini zuten 'Beita' antzezlana pantailara eramateko asmoz, 'crowdfunding' kanpaina abiatu du Xup antzerki taldeak 'Itsulapikoa.eus' plataforman; hilabete dago ekimena diruz laguntzeko

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

"Harrera oso ona izan zuen antzezlana, jendea oso hunkituta ikusi genuen, eta zerbait gehiago egiteko gogoz geratu ginen. Antzezlaren bigarren zatia sortzea aukera bat izan zitekeela pentsatu genuen, baina hasapenetatik uste izan dugu pantailara eramateko moduko proiektua dela, eta websail bat sortzeko ahaleginetan lanean ari gara. Euskarri digitaletan ikusteko izango da. Hamabost minutuko iraupena izango duten zortzi kapitulu egin gura ditugu", azaldu du Xup taldeko kide Malen Perez de Arenazak.

Aktore gazteek, bereziki, publiko gazteari zuzenduta egindakoa da *Beita*. "Euskal kultura eskaintzan gazteendako hutsunea dagoela iruditzen zaigu, batetik, eta, bestetik, gazte sortzaileok euskarazko erreferenterik apenas dugula ere ikusten dugu. Gure helburua, hasieratik, bizi dugun errealtatea gazteen ikuspegitik erakustea da; hala ere, gazteentzako bai, baina denontzako balio duen proiektua ere bada gurea, gizarte osoari eragiten diguten gaiak azaleratzen dituelako. Guretako garrantzitsua da euskarazko websail hori egitea", gaineratu du Xup taldeko kide Sara Arregik.



*Beita* antzezlana lantalde artistikoa. XUP ANTZERKI TALDEA

## Antzezlana oinarri

Sexu eraso bat du antzezlana istorioak oinarri, eta websailaren kontakizuna ere bide beretik doala dio Perez de Arenaza aktoreak: "Sexu eraso baten aurrean, ingurukoek, kuadrillakoek, esaterako, hartzen dituzten jarrerak azaleratzen dira ikuspuntu gazte eta feministatik. Oinarrian antzezlana istorio bera da, baina pertsonaia bakoitzaren bidez antzezlanean agertzen diren askotariko gaiak sakonago lantzeko bidea dugu websailaren".

## 'Itsulapiko.eus' plataforman

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak abian jarritako gazteen proiektuak laguntzen dituen Batera ekimenak babestuta, otsailaren 24an abiatu zuten diru-bilketa kanpaina. "Apirileko lehenengo astea bitartean egin daitezke ekarpenak atari horretan, eta egindako ekarpenaren arabera sariak jasoko dituzue trukean. 3.000 euro lortu gura ditugu gutxienez, eta 10.000 euroko muga jarri dugu, gehienez. Erantzun ona ari gara jasotzen eta pozik gaude".

# Mondra & Roll punk rock jaialdia Monterronen uztailean

2.500 lagunentzako tokia izango du nazioarteko eta bertako talde "izarrak" gonbidatu dituzten jaialdiak

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko punk-rock jaialdi propioa izan behar zuela uste izanik, Mondra & Roll antolatzen dute Gasteiz Calling eta Barnanroll jaialdien bultzatzaileek. "Euskal Herriko punkaren sehas-

ketako bat da Arrasate, eta bertatik euskal musika eszena handia elikatzen duten musikariak ateratzen jarraitzen dute. COVID-19aren erruz bi urtez saiatu ondoren, hirugarrenean lortu dugu, hemen dago Mondra

& Roll, eta geratzeko etorri da", diote antolatzaileek.

## Musikari "handiak"

Uztailaren 8an eta 9an egingo dute, eta Monterron parkean izango dira, besteak beste, Cock Sparrer, Cockney Rejects, The Baboon Show, Peter and The Test Tube Babies eta La Excavadora, baina herriko musikariek ere izango dute tokia oholtzaren gainean; hori horrela, Des-Kontrol, Perlata eta Crap taldeak ere agertokian izango dira.

## Goienakideen txokoa

### OTSAILEKO IRABAZLEAK

#### 'ILARGIA ETA LANDAREAK' AGENDA

- Olatz Aperribay Andoaga (Bergara)
- Kristina Atxa Gallastegi (Bergara)
- Maitane Aysa Martin (Eskoriatza)
- Alaitz Osa Arabaolaza (Oñati)
- Maidier Revalo Olivencia (Aretxabaleta)
- HARREMAN DENDAKO OTARREA**
- Garbife Sarasketa (Elgeta)
- ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK**
- Oier Aliaga Garcia (Arrasate)
- Idola Axpe Aranegi (Arrasate)
- Laiene Mendibil Garmendia (Arrasate)

#### TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

- Iñaki Zabala Vitoria (Bergara)

#### MAIALDE LANDETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

- Amalia Balda Etxarte (Bergara)

#### LARRINETXE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

- Gorka Markez Zumelaga (Bergara)

#### 'GANBARA' HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK

- Arantazu Uribealzo Muzika (Arrasate)

#### INES OSINAGA ETA JOSEBA SARRIONANDIAREN

- EMANALDIRAKO SARRERAK

- Ainhoa Osa Etxebarria (Arrasate)

- Agurtzane Azkarate Garitano (Bergara)

#### 'LEHENDAKARI GAIA' ANTZERKIRAKO SARRERAK

- Ane Agirre Uribealzo (Arrasate)

### SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko barnelekuak, biko sarrerak (lang: 8) eta Antzerki taldeko barnelekuak. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETA**, Areatza sarrak: OÑATI: 943 08 20 00. Olatz Apea: aretatik: igandea 10:00 - 17:00 (sareak dituzte horren gainetik). Harreman dendako otarra. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide bartzelaren, Harreman dendako. Arrasateko Euzko Itzartzearen duen dendare. **Agenda jasotzeko**, zuzen GOIENAREN egutziari. Sare jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA eskuzki edota BAZKIDE ZENBAKIA edozein emen behar da. GOIENA, Oñati, Lantzetako 31. Areatza: 943 25 05 05. Oñati: astelehenetik eguzker: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri esker

'Leihook' haur antzerkirako sarrerak ditugu

Arrasate | Amalia Antzokia | Martxoak 12 | 17:00

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus | WhatsApp: GOIENAKIDE 'Leihook'

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 1791370001 lagunen artean, gurekin lotu gura duen pertsonari Goiena komunikazio zirkuituan itzuli gura duenaren izena dela. Zozketaren helburua da irabazle bakoitzari parte-hartze gaitasuna ematea. Zozketa zuzenaren bidez, haur zozketako irabazleak hildakoentzako diruak irabazteko dira. Itxarotzen ari garenak.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 8

☎ 943 25 05 05 | ✉ goienakide@goiena.eus | 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

🗨️ GOIENAKIDE Jatekera [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



**BAZKIDETZA KUOTA: 60€**  
 Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



**DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!**

**goiena kide**

Okm: batzen gaituen distantzia.



## HILDAKOAK

**Jose Maria Gutierrez Conde.** Arrasaten, otsailaren 17an. 70 urte.

**Felipe Garitano Iturricastillo.** Eskoriatzan, otsailaren 17an. 86 urte.

**Maria Rosario Irizar Aranburu.** Oñatin, otsailaren 17an. 86 urte.

**Rosa Lage Iglesias.** Aretxabaletan, otsailaren 18an. 95 urte.

**Jose Iturbe Garai.** Arrasaten, otsailaren 18an. 88 urte.

**Maria Dolores Rios Montero.** Bergaran, otsailaren 18an. 63 urte.

**Maika Mujika Zubizarreta.** Bergaran, otsailaren 19an. 66 urte.

**Jose Olivenza Mendez.** Aretxabaletan, otsailaren 20an. 73 urte.

**Catalina Gonzalez Hidalgo.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 97 urte.

**Felix Otazo Castromonte.** Bergaran, otsailaren 21ean. 81 urte.

**Maria Molinuevo Gomez.** Arrasaten, otsailaren 22an. 87 urte.

**Margarita Cortada Ameztai.** Bergaran, otsailaren 22an. 89 urte.

**Ametz Martin Bastida.** Elgetan, otsailaren 22an. 10 urte.

**Felix Azkarate Beloki.** Arrasaten, otsailaren 23an. 92 urte.

**Eleuterio Cid Martinez.** Arrasaten, hilaren 23an. 88 urte.

**Jose Ramon Kerejeta Barrutia.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 81 urte.

**Pilar Ezkurra Arocena.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 82 urte.

**Ana Agirre Sirena.** Bergaran, otsailaren 25ean. 87 urte.

**Jesusa Cuesta Clemente.** Eskoriatzan, otsailaren 25ean. 87 urte.

**Bixente Azkarate Retolaza.** Bergaran, otsailaren 26an. 73 urte.

**Josefa Zabaleta Lamarain.** Oñatin, otsailaren 26an. 88 urte.

**Maria Rosa Alustiza Larrañaga.** Bergaran, otsailaren 27an. 77 urte.

**Luzdivino Garcia Garcia.** Oñatin, otsailaren 27an. 91 urte.

**M. Cristina Larraza Ugarteburu.** Arrasaten, otsailaren 28an. 78 urte.

**Jesus Maria Ortiz Trapaga.** Eskoriatzan, otsailaren 28an. 83 urte.

**Anton Castillo Madinabeitia.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 74 urte.

**Juan Carlos Aranzabal Egizabal.** Elgetan, martxoaren 2an. 59 urte.

**Maria Dolores Igartua Uriarte.** Oñatin, martxoaren 2an. 96 urte.

## ESKER ONA

## Jose Ramon Kerejeta Barrutia



Angelita Garmendiaren alarguna  
2022ko otsailaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.

Haren seme-alabak: Aitor eta Katherine Rodriguez, Iñigo eta Ane Miren Gorostiza. Bilobak: Auritz, Arhane eta Ekain. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko martxoaren 4an.

## OROIGARRIA

## Anton Castillo Madinabeitia



Gure gogoan betiko.

Ziorlako lagunak.  
Arrasaten, 2022ko martxoaren 4an.

## Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA | Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 4 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09  
Zapatua, 5 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30  
Domeka, 6 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15  
Astelehena, 7 JUNCA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99  
Martitzena, 8 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26  
Eguaztena, 9 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39  
Eguena, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

## BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 4 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74  
Zapatua, 5 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87  
Domeka, 6 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87  
Astelehena, 7 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05  
Martitzena, 8 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
Eguaztena, 9 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
Eguena, 10 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

## OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
Zapatua, 5 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
Domeka, 6 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
Astelehena, 7 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
Martitzena, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22  
Eguaztena, 9 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
Eguena, 10 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

## EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
2022ko abuztuaren 15era arte:  
AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

## EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
2022 osoan:  
ZABALA: Barrenkalea 5 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05  
edo [eskela@goiena.eus](mailto:eskela@goiena.eus)

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

## ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Andaluzia Eguna ospatzen**

Euskadiko andaluziarren elkarteak batzen dituen federazioak antolatu zuen jardunaldia Arrasateko Al-Andalus elkartearen. Besteak beste, Tabita artistak egin zuen emanaldia.

**2. Jose Antonio Nuñez txapeldun**

Soraluzeko tiratzaileak irabazi zuen Aretxabaletako bola-joko txapelketa. Sei txirlo bota zituen bakarra izan zen. Guztira, 50 tiratzailek parte hartu zuten.

**3. Oñatiko ehiza txapelduna**

Jose Ignazio Leibarrek irabazi zuen herri mailako txapelketa, zazpi eper hartuta. Mikel Lopez eta Ibon Igartzabal izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

**4. 102 urte bete ditu**

Otsailaren 27an bete zituen urteak Baldomera Mendizabal aretxabaletarrak. Juana ahizpa –eserita–, hainbat loba eta beste lagun batzuk inguruan zituela ospatu zuen.

**5. Aloñaren aitortza**

Emakumezkoen Lehen Mailan debuta egin duen lehen oñatiarra izateagatik omenaldia jaso zuen Eider Egañak. Eibarko atezainak oroiagarria eta kamiseta jaso zituen opari.

**6. Iraia Aginagalderentzat saria**

Aretxabaletako Hankabeltz urdaitegiak eta Jon harategiak emandako produktu sorta jaso du, 2022ko Aratusteetako argazki lehiaketako erretratu politena egiteagatik.



## ZORION AGURRAK



ANTZUOLA  
**Maddi Acosta Segurola**  
Martxoaren 9an, 8 urte. Zorionak, Maddi! Oso ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Amaia eta Raul Pozo**  
Martxoaren 8an, gure Amaiak 10 urte eta aitaxok, 44. Zorionak bioi etxekoan partetik!



ARETXABALETA  
**Iargi Azkarate Bilbao**  
Martxoaren 8an, 6 urte. Zorionak, Iargi! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Besarkada handi bat eta patxo pilo bat danon partetik!



ARETXABALETA  
**Garikoitz Arrese Serrato**  
Martxoaren 6an, 8 urte. Zorionak, Gari! Oso ondo ospatu zure eguna zure lagunekin eta familixakuokin, eta patxo handi bat zure arrebatoaren, amaren eta aitxaren partetik!




OÑATI  
**Izei Umerez Eceolaza**  
Martxoaren 6an, 3 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta jarraitu zaren bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu; bereziki, Laiak.



BERGARA  
**Ibai Egaña Zabaleta**  
Martxoaren 5ean, 6 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo ospatu zure urtebetetzia eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Alba Andres**  
Martxoaren 5ean, 20 urte. Zorionak, Albon! Sozidarian eziñ, baña ospatu biku! Kontuz 20 urtetako krisixakin. Asko gurotzugu! BNT.



OÑATI  
**Paule Bikuña Urkia**  
Gure etxeko printzesak, martxoaren 4an urteko bat! Zorionak, maitia, etxeko danen partetik.



BERGARA  
**Magali Azula Padilla**  
Martxoaren 3an, 7 urte. Zorionak, Magali! Primean pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada handi bat etxeko danon partetik!



ESKORIATZA  
**Julen Garcia Isasmendi**  
Martxoaren 3an, 2 urte. Zorionak, Julen! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik!



OÑATI  
**Kattin Ibabe Arkauz**  
Martxoaren 3an, urtebete. Familia danaren partetik, ondo pasatu, potxola. Patxo handi bat!



OÑATI  
**Lur Hernandez Otxoa-Aizpurua**  
Martxoaren 2an, 9 urte. Zorionak, Lur! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat danon partetik. Mua, mua!



BERGARA  
**Domingo Ruiz**  
Martxoaren 1ean, 57 urte. Zorionak, aita! Egun ederra izan dezazula etxekoekin batera eta asteburuan gozatu! Urte askotarako, gu aidamenean gaituzula! Asko maite zaitut.



ARRASATE  
**Aiur Odrizola Urzain**  
Martxoaren 1ean, 10 urte. Zorionak, maitia! 10 urte gure bizitza alaitzen. Segi horrela, txapeldun.



BERGARA  
**Ander eta Jon Basauri Davila**  
Martxoaren 1ean, 10 urte! Zorionak, Ander eta Jon! Zorionak eta muxu pilo bat etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Eki Markina Urizarbarrena**  
Otsailaren 28an, 3 urte. Zorionak, Eki! Segi horrela, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Patxo erraldoi bat familixakoan partetik!



ARRASATE  
**Amair Lizaranzu Madinabeitia**  
Otsailaren 27an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Handitzen, handitzen... jada esku bakarra motz. Sei urte! Ziur gauz ederto ospatuko dogula. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



OÑATI  
**Unai Luis Gomez**  
Otsailaren 27an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Muxu erraldoi asko etxeko danon partetik.



ARAMAIO  
**Jule Lizarralde Errasti**  
Otsailaren 26an, 8 urte. Zorionak, rubia! Jarraitxu zure alaitasun eta bizitasunaz! Asko guretzau!



ARRASATE  
**Olaia Romero Fernandez eta Beñat Irazabalbeitia Fernandez**  
Olaia otsailaren 25ean, 13 urte eta Beñatek 27an, 5 urte. Asko maite zaituztegu, bikote! Musu handi bat gure altxorrendako, etxekoan partetik.



BERGARA  
**Aitor Perez Elkorobarrutia**  
Otsailaren 24an, 5 urte. Zorionak, maitxia, familia gutzixaren partetik. Bereziki Hodei eta Maddi.



OÑATI  
**June eta Sara Segurola**  
Sarak, 6 urte otsailaren 17an eta Junek, 8 urte otsailaren 24an. Zorionak gure etxeko printzesei! Asko maite zaituztegu. Etxekoan partetik, mila milioi muxu!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARETXABALETA  
**Unax Barandiaran Otxoa**  
Martxoaren 4an, 7 urte. Ederto ospatu zure urtebetetze, mutiko handi! Familiakuak.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 4

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Hamaika merkatarik postuak jarriko dituzte. Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00.

*Aretxabaletan, 10:00etan.*

**ELGETA Korrikaren arropa salmenta**

Ordutegia: 15:45-16:30, herri eskola atarian, eta 18:00-19:00, Mendizaleen plazan.

*Elgetan.*

**ESKORIATZA Korrika asteburua gaztelekuan**

Korrikako kantak entzun, kartelak egin eta pankartak prestatuko dituzte gaztetxoek.

*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ekofeminismoa' proiektzioa**

Eskoriatzako Talde Feministaren eskutik.

*Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ARRASATE Catarsi Feministaren azken lanaren aurkezpena**

Andrea Gonzalez kazetariak aurkeztuta, argazkien eta bideoen proiektzioa, Ana Goitiaren bakarrizketa eta Ekiñe Casadoren eta Iraitz Agirrearen musika.

*Gaztetxean, 19:00etan.*

**BERGARA M8aren bilakaerari buruzko hausnarketa**

Ostean, Uda-Azken, Bassagain eta Maixa Eta Malakias taldeen kontzertua. Sarrerak, bost eurotan, Bergarako Pol Pol eta Arrasateko Jai Zale tabernetan.

*Kartzela zaharrea, 19:00etan.*

**ANTZUOLA '80 amandre' ipuin kontaketa, helduendako**

Dorleta Kortazarren eskutik. Sarrerak, egunean bertan leihatilan.

*Torresoroan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Intra' diskoaren aurkezpena**

Mila Moldu talde oñatiarrak azken lana aurkeztuko du. Sarrerak aurrez har daitezke.

*Zinema aretoan, 19:30etan*

**OÑATI 'Beranduegi' podcastaren zuzenekoa**

Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko ekintzen baitan.

*Gaztetxean, 20:00etan.*

**BERGARA 'Luze edo motz' bakarrizketa saioa**

Idoia Torregararekin eta Mirari Martiarenarekin.

*Osintxuko Txuringo tabernan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 5

**OÑATI Zuhaitz azoka**

Hainbat mintegitako landareak, haziak eta loreak erosteko aukera, Ingurumen Jardunaldien baitan.

*Foruen plazan, 09:30ean.*

**OÑATI Korrikako materiala salgai**

Arropak ez ezik, txapak eta petoak ere izango dituzte, eta Korrika laguntzaile egiteko aukera egongo da.

*Foruen plazan, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Hamaika merkatarik postuak jarriko dituzte denden aurrealdean.

Ordutegia: 10:00-14:00.

*Aretxabaletan, 10:00etan.*

**ELGETA 'Antzerki inprobisatua' ikastaroa**

Debagoieneko Antzerki Plataformaren eskutik, eta Egoitz Aizpurua oñatiarra irakasle lanetan.

Ordutegia: 10:00-13:00 eta 15:00-18:00.

*Elgetan, 10:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria San Andresen**

3-12 urte artekoendako, bi hezitzailearen laguntzarekin.

*San Andresko gazte txokoan, 11:30ean.*

**ESKORIATZA Saharar jardunaldi kulturala**

12:00etan, Giza eskubideak Mendebaldeko Saharan izeneko hitzaldia eta solasaldia kultura etxean; eta 16:00etan, kontzertua, Fernando Eskoriatza plazan.

*Eskoriatzan.*

**ARETXABALETA '¿Qué os ha enseñado el COVID sobre la soledad?' hitzaldia**

Javier Yanguasek egingo du berba, gazteleraz.

*Zaraia aretoan, 12:00etan.*

**BERGARA 'Txertatu? Umeak, gazteak eta haurdunak, baina zertarako?' hitzaldia**

Juanjo Martinez mediku zirujauak egingo du berba. Irekia.

*Seminarixoko karpan, 12:00etan.*

**ARETXABALETA 'Izan bidea' bola-txapelketa**

Aretxabaletako Sareren eskutik, Gari Atxabaltara leloarekin.

Izen-ematea, bost euro.

*Bolatokian, 12:30ean.*

**ARETXABALETA 'Nomadak' antzezlana**

Teatro Paraisoren eskutik, umeendako. Sarrerak, hiru euro.

*Arkupen, 17:00etan.*

**BERGARA 'Mutildun aulkia. Sexberdinak' antzezlana**

Geuretik Sortuak ekimenaren baitan, Aitziber Garmendia eta Telmo Irueta aktoreekin. Sarrerak, zortzi euro.

*Seminarixoa, 20:00etan.*

**OÑATI 'Bidaide' antzezlana**

Metrokoakroka sormen laborategiaren lana, Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias, Idoia Hernandez eta Mikel Ugarte aktoreekin.

*Santa Ana antzokian, 22:00etan.*

**BERGARA Ezpalak eta Lukiek taldeak**

Sarrerak, bost euro.

*Kartzela zaharrea, 22:00etan.*

## DOMEKA 6

**OÑATI Zuhaitz Eguna: landaketa**

Herrigunean landatuko dituzte, Ingurumen Jardunaldien baitan.

*Foruen plazan, 10:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Dorletako Amari lore-eskaintza**

Bailarako zikloturistek egingo diote eskaintza.

*Arlabanen, 11:00etan.*



TTAK TEATRO

**ARETXABALETA 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlana**

Kamikaze kolektiboaren eta Ttak Teatroyen eskutik, Iraia Elias, Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola aktoreekin. Sarrerak, hiru euro.

*Etzi, domeka, Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI Emakume artisauen azoka**

M8aren harira, herriko artisau emakumeen lanak ezagutzeko eta erosteko aukera.

*Foruen plazan, 11:00etan.*

**ARRASATE Aratuste-kontzertua**

Piratak izango da Arrasate Musikaleko bandaren kontzertuaren gaia. Debalde.

*Amaia antzokian, 12:30ean.*

**BERGARA 'Zortzikoz blai' emanaldia**

Txistulari bandaren eskutik.

*Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.*

**ARRASATE 'Familian jolasean'**

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.

*Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

**ARAMAIO May Gorostiagaren ikuskizuna**

Ahoz Aho ekimenaren baitan, helduendako saioa, euskaraz.

*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Tipularen sehaska kanta' dokumentala**

Lander Garroren lana. Sarrerak, hiru eurotan, *Labur.eus/sarrerakantzuela* helbidean.

*Torresoroan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ekofeminismoa' proiektzioa**

Eskoriatzako Talde Feministaren eskutik.

*Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Kottauak' antzezlana**

9 urteko bikote harremanean, eta 14 hilabeteko sexu-lehortean dagoen bikote baten (Ane Gabarain eta Mikel Laskurain) abenturak. Sarrerak, bost euro.

*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlana**

Kakimaze kolektiboaren eta Ttak Teatroyen eskutik. Iraia Elias, Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizola oholtzan. Sarrerak, hiru eurotan, kultura etxean edo *Aretxabaleta.eus* atarian.

*Arkupen, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 7

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

*Foruen plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARETXABALETA Korrika batzordea**

Lekukoari ongietorria egiteko ekitaldiak antolatzen hasteko. *Udaletxe zaharrian, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Amua' antzezlana**

Axut taldearen lana, Maite Larburu, Manex Fuchs eta Ximun Fuchs aktoreekin. Sarrerak, hamar euro. *Amuia antzokian, 19:30ean.*

**OÑATI 'Gure seme-alaben sexualitatea. Aniztasun afektibo sexuala, erotika eta pornografia' tailerra**

Gehitu elkarteko kideen eskutik, euskaraz. Gaur egingo dute lehen saioa. *Euskaldun Berria gelan, 19:30ean.*

**MARTITZENA 8****OÑATI Emakumeen Nazioarteko Eguna**

12:00etan, elkarretaratzea Olakuan, eta 19:00etan, manifestazioa Foruen plazan. *Oñatin.*

**ESKORIATZA Emakumeen Nazioarteko eguna**

18:00etan, Femideo 1. Lehiaketaren sari banaketa, eta 19:00etan, manifestazioa. *Fernando Eskoriatza plazan.*

**ESKORIATZA 'Ekofeminismoa' proiektzioa**

Eskoriatzako Talde Feministaren eskutik. *Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Manifestazioa. *Herriko Plazan, 18:30ean.*

**ELGETA '80 amandre' ipuin kontaketa**

Dorleta Kortazarren eskutik, helduendako. Debalde. *Liburutegian, 18:30ean.*

**ARAMAIO Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Manifestazioa. *Bizente Goikoetxea plazan, 18:30ean.*

**ANTZUOLA Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Manifestazioa. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE Eguna Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Manifestazioa. *Herriko Plazan, 19:30ean.*

**BERGARA Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Manifestazioa. *San Martin plazan, 19:30ean.*

**ELGETA Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Elkarretaratzea. *Mendizaleen plazan, 19:30ean.*

**EGUAZTENA 9****BERGARA 'Baga, biga, higa' hitzaldi musikatua**

Eñaut Elorrietarekin eta Mikel Markezekin, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixooan, 10:00etan.*

**ELGETA Garbigune ibiltaria**

Egun osoan zehar. *Salbador kalean, 10:00etatik aurrera.*

**ELGETA 'Emozioen garrantzia familian' formakuntzaren bigarren saioa**

Treba Guraso programaren baitan. *Udaletxean, 17:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko. *Oxironon, 18:00etan.*

**OÑATI 'Izan gaitzen babesleku; bide segurua eta legalak orain' hitzaldia, online**

Bartzelonako Osasun Global Institutuko politika zuzendari Gonzalo Fanjulek egingo du berba. *Zinema aretoan, 19:00etan.*

**BERGARA 'Zinegoak' 2022 film laburrak**

XIX. Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdiko lanak. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixooan, 20:00etan.*

**EGUENA 10****ARRASATE Sasoibide ibilaldia**

Salturrirainoko joan-etorria egingo dute. *Biteri plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria**

Egun osoan zehar. *Olakuan, 10:30etik aurrera.*

**LEINTZ GATZAGA '80 Amandre' ipuin kontaketa, helduendako**

Dorleta Kortazarren eskutik. *Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Monzon-Ganuz**

Debalde, edukiera bete arte. Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk jasoko dute aurtengo saria. *Seminarixooan, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Lezetxiki, neandertalen lurraldea' erakusketara bisita gidatua**

Gaur, gazteleraz. Izenak, *Arrasate.eus* atarian. *Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE 'La matroska' ipuin kontaketa**

Ahoz Aho jaialdiaren baitan, gazteleraz. *Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Baskonia. Una solución al problema del nombre del país de los baskos' liburuaren aurkezpena**

Iñaki Azkoaga egileak aurkeztuko du. *Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'La hija oscura' filma, zineklubean, jatorrizko bertsioren originalean**

Maggie Gyllenhaal zuzendariaren lana, jatorrizko bertsioan eta zineklubean. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Labana taldea**

Power-rock musika lantzen du Bilboko laukoteak. Aurretik, Hexen taldeko kide izandakoak dira. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE AMAIA ANTZOKIA**

**Belfast**  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
**Kikoriku dejavu**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**BERGARA SEMINARIXOIA**

**Hive**  
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Ainbo**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI KULTURA ETXEA**

**Los sonidos del silencio**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.  
**Cuatro chicos y "esto"**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR COLISEO**

**Competencia oficial**  
Zapatua: 17:00, 19:45.

Domeka: 17:00. Astelehena: 20:30.

**En un muelle de Normandia**  
Zapatua: 22:30. Domeka: 20:00.

**Uncharted**  
Zapatua: 17:00, 19:45. Domeka: 17:00.

**El triunfo**  
Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ BOULEVARD**

**The Batman**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 17:00, 17:30, 18:00, 19:00, 19:45, 20:45, 21:45, 22:10, 22:30, 23:30. Domekatik eguenera: 17:30, 18:30, 19:45, 21:10, 22:10. Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 17:00, 20:10, 20:40. Domeka eta eguaztena: 15:45, 19:30.

Astelehena, martitzena eta eguena: 19:00.

**Peter Rabbit**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:40.

**Muerte en el Nilo**  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:40, 22:20. Martitzena: 19:40, 22:20.

**Competencia oficial**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:40, 21:10.

Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30. Astelehena, martitzena eta eguena: 22:30.

**The medium**  
Astelehena: 21:00. Eguaztena: 22:00.

**El buen patron**  
Egunero: 20:15.

**El padrino**  
Eguena: 21:00.

**Ainbo**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:00.

Astelehenetik eguenera: 18:30. Zapatua eta domeka: 15:45. Egunero: 17:40.

**Belfast**  
Eguaztena: 17:00.

**El metodo Williams**  
Egubakoitzetik domekara: 22:00.

**Cásate conmigo**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45. Astelehena, martitzena eta eguena: 22:30.

**Spiderman**  
Egunbakoitzetik domekara eta eguaztena: 19:00.

Astelehena, martitzena eta eguena: 18:00.

**Uncharted**  
Egunero: 17:00, 19:40, 22:20.

**Encanto**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45.

**La abuela**  
Egunbakoitza eta zapatua: 23:00.

**KRITIKA****En un muelle de Normandia** ★★★★★

**Zuz.:** Emmanuel Carrere. **Herr.:** Frantzia (2021). **Aktoreak:** Juliette Binoche, Lea Carne. **Iraupena:** 106 minutu.

**Maila sozialen arteko harresia****ANTONIO ZABALA**

Florence Aubenas kazetariak bere ibilbidean erreportaje ugari idatzi izan ditu. *El muelle de Ouistreham* liburuan, 2008ko krisialdiaren barnean, baldintza desegokietan egindako lanari buruz ikerketa bat egin zuen. Langileek baliabide gutxirekin, eta ia gelditu gabe, lanean jardun behar izaten zuten, trukean soldata eskasa jasota. Kazetaria garbiketa lanak egiten duen jendearengana hurbildu zen –Aubenasek bere ikerketa burutzeko, lanbide bulegora joan zen garbitzaile lanpostu bat eskuratzeko asmoz–, horiek nola bizi ziren, nolako lan baldintzak zituzten eta pertsona haiek zituzten sentimenduak eta kezak ezagutzeko.

Emmanuel Carrere idazleak Aubenasen kontakutako istorioa zinemara egokitu du. Carrere,

langileen egoera azaltzeaz gain, azpimarratu nahi izan ditu langile horien artean sortzen diren lokarri emozionalak. Filmaren protagonista, Marianne, garbitzaileen mundura hurbiltzen da, lagunak egiten ditu, baina,aldi berean, euren artean sorturiko loturak engainu egoera baten barnean sendotu dira. Idazleak bere ikerketarako pertsonaia bat sortu duenez, istorioan egia eta gezurra, adiskidetasuna eta traizioa nahasten dira.

Gizartearen maila sozial desberdinak daude, eta oso zaila izaten da beraien arteko harresia gainditzea. Carrere errealismoarekin eta fikzioarekin jotzen du zaurian piko egiteko.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

## Beste gerra bat

Ezustean, beste gerra bat piztu da. Oraingo hau gertuago, Ukrainan. Entzuten ari gara handik ihesi doazen edo han geratu direnen testigantza gordinak. Gordelekutik ateratzean bidalitako *whatsapp* mezu laburrak. Eta barruraino sartzen zaizkigu, bereziki euskaraz kontatutakoak baitira batzuk. Chernobil elkartearen bidez udaz uda gurera etorritako gazteen kontakizunak dira.

Orain, udaberria ate joka den honetan, horietako batzuk Euskal Herrira datoz berriro. Baina jaioterrira itzulera noiz izango den jakin barik. Txernobyngo umeak errefuxiatu datoz. Batzuk, gainera, familiarterko lagunduta.

Debagoienean bada esperientzia errefuxiatuei harrera egiten. 1992an, Bosniako gerran, hainbat boluntariok aterpea antolatu zuten Eskoriatzako San Viator etxea zenean. 19 lagun etorri ziren, familian edo bakarka. Ikasi, lana bilatu, lagunak egin, eta bizitza berri bat hasi zuten. 1996tik aurrera, gerra amaitutakoan, apurka-apurka batzuk Bosniara bueltatu ziren, eta beste batzuek hemen geratzea erabaki zuten. Urrutira joan gabe, Oñatiko Larraña aterpetxean errefuxiatu eta etorkinekin egiten ari diren lana ere gertu dugu. Bada nora begiratu, bada nor lagundu.

GOIENA OKM GIDA

# "Komertzioetan oso zaila ikusten dut erreleboa"

ARITZ AIZPURUA ZUBIAURRE JOXAN ARRANDEGIA

Lo gutxi egitera ohituta, jai eta deskantsurako egun gutxi dituela aitortu du Aizpuruak, baina, hala ere, nahiago ditu arrandegia eta portua, tailerlean lan egitea baino

Jone Olabarria BERGARA

Aizpuruaren aitak ireki zuen, duela 25 urte, Bergarako Ibargarai kaleko Joxan arrandegia. Duela hamabost urtetik Super Amaran ere badute arrandegia. Aurretik, arrainaren negozioa lotuta zegoen Aizpuruaren familia, Deban betidanik izan dute-eta arrandegia. Betidanik ezagutu du negozioa; izan ere, tailerreko lana ez zuen gustuko. Goiz hasi zen portuetara joaten. **Zure jarduna goizean goiz hasiko da... Lan sakrifkatua duzu?**

Egunero-egunero 03:30ean jaitzen naiz. Eta domeka arratsaldeetan ere, esaterako, Ondarroara joaten naiz, jenero bila. **Deskantsurako egunik ez duzu?** Nik ez daukat halakorik; karkar. Egunaren arabera aldatzen da, baina Ondarroara, Pasaiara eta Oiartzunera joaten naiz jeneroaren bila, eta gero, banaketak egin behar, jatetxeetara eramane, eta egunero beste mila tramite.

**Hori da lan honen okerrera? Zerbait ona ere izango du...**

Ardurak dira okerragoak: zer jenero erosiko duzun, zenbat, iritsiko den, sobran izango du...Eta baita langileen kudeaketa. Onena, ez dudala nagusirik,



Aritz Aizpuru, Ibargarai kaleko Joxan arrandegian, eguazten goizean. J. OLABARRIA

## Semea negoziara, ezta pentsatu ere!

"Nire kasuan, seme batek 18 urte ditu eta besteak, 14. Zaharrena ikasketa batzuk egiten hasi zen, baina gustatzen ez zaizkiolako utzi egin ditu. Batzuetan esaten dit: 'Aita, joango naiz zurekin arrandegira, laguntzera!'. Eta beti esaten diot: 'Ezta pentsatu ere!'. Garai batean, askoz irabazi gehiago ematen zituen dendak; orain, hainbeste merkataritza-gune handirekin ezinezkoa da lehiatzea; kalitatean irabazten dugu, baina prezioarekin ezin da ezer egin".

ni neu naizela neure arduraduna. Onerako, baina baita txarrerako ere. Baina, behintzat, kalean egoteko aukera ematen dit, mugitzeko, eta ez tailer batean sartuta egun osoa.

**Debarra izanda, zergatik Bergaran arrandegia?**

Gure aitak Deban zuen arrandegia, eta 15 urte nituenetik aritu izan naiz han laguntzen. Ibargarai etxeak eraiki zirenean bertan lokal hau erosteko aukera izan zuen, eta Bergarako lokalaren ardura hartu nuen.

**Noiz egiten duzue diru gehien hemen? Gabonetan?**

Hori uste du jendeak, baina ez. Gabonetan egun fuerte pare bat daude, baina egun askotan itxita egoten da arrandegia, edo jendea nazkatuta hainbeste jateaz. Eguraldi txarra edo euria egiten duenean saltzen da gehien, urria eta azaroa izaten dira onak. Udan edo eguzkia bada, jendea kanpora joaten da, eta akabo.

**Eta zer moduzko bezeroak dira bergararrak?**

Herritarrekin eta jatetxeekin lan egiten dugu. Une honetan, partikularrengandik datorkigu negozioaren zati handiena; jatetxeen asuntua gero eta okerrago dago. Bai hemen baita herri gehienetan ere. Hala ere, geroz eta gutxiago saltzen da, negozioa ez da lehen zena.

**Negoio hauek badute erreleborik?**

Ez. Arrandegian bakarrik ez, komertzioetan orokorrean oso zaila ikusten dut erreleboa. Izan ere, lan sakrifkatua dela esaten digute askok.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

GOIENA  
TELEBISTA  
SASOI  
BERRIA

**BIZI GIPUZKOA**

MARTXOAREN 15AN, EGUENEAN,  
21:30AN ETA 23:30AN  
JULEN LANDALUZEEK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.

